



Ozenki: operazaleen elkartea

Arrasaten sortu da,
lirika sustatzeko | 32



Taldeko kideak. | ARANTZAZU EZKIBEL

Txapel Txinek Aratusteetarako dei
gingo die aretxabaletarrei bihar | 23



Bideo-jokoak diru eta balio
iturri berri bilakatzen ari dira | 2



'Mirrix katua' musikala aurkeztuko
du Ganbara Txikik domekan | 32

Zubillaga eta Oñati arteko bidegorriko lanak, aurrera

Zubillaga-Epelekoak
irailean hasiko dira | 4



MIREIA BIKUNA

"Iheslariek eta presoek konponbidean parte hartu behar dute"

Manu
Ugartemendia

Herrira mugimenduko
bozeramailea | 8



EUSKAL HERRIKO TALDE ONENA

Antxintxika Debagoiena taldea iazko talde onena izendatu dute Euskadiko eta Nafarroako triatlói federazioek. Pozik jaso dute saria, baina ez dute emaitzengatik itsutzeko asmorik: herritarrak kirolera gerturatzea da euren helburu nagusia. | 28

Rakel Alonso, Alex Altuna, Iban Dasilva, Josemari Barrena (lehendakaria), Patxi Torres eta Nere Arregi, taldeko kideetako batzuk, garaikurrekin. | MONIKA BELASTEGI

Oñatiko 50 garajetan eta 15 autotan egin dute lapurreta

Ustez lapurretekin
lotura duen furgoneta
antzman dute | 21

Ekhiñe Egigiturenena da gutunik ederrena

Donostiar horrek *Ingrid maitea* delako gutunarekin irabazi du Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketa. 20. edizioa bete du aurten. 20 edizio oparo, duda barik. Euskaraz idazteko zaletasuna han eta hemen sustatzeko balio izan du urteotan. Sari ematea, ohi bezala, San Balentin egunean izango da, datorren martitzenean, hortaz, kultura etxean, 19:00etan egingo duten ekitaldian. | 31

SINADURAK

Krisi soziala | 6
MIKEL LEZAMIZ

6 | Bizitza bezain gordina
ENEKO AZKARATE

Arriskuak aukera | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

PREST

MUNDU BAT
NAHI BESTE AUKERA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea
Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00
Irun OTSAILAK 23 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena emait!

BIDEO-JOKOAK DIRU ETA BALIO ITURRI BERRIA

- ▶ Gero eta industria indartsuagoa da bideo-jokoena
- ▶ DigiPen-en, programazioa ikasten dabilta bi debagoiendar



LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekonomia-jarduera berpizteko garai hauetan, beste herrialde batzuetan gero eta indartsuagoak diren sektoreak Euskal Herrira zabaltea gakoa da. Sektore horietako bat bideo-jokoena da. Espainiako Entrenimendurako Software Banatzaileen eta Editoreen Elkarteak (ADESE) 2010ean argitaratutako datuen arabera, Hego Euskal Herrian eta Espainian 1.245 milioi euro fakturatu zituen bideo-jokoaren negozioak, Europako laugarren bolumen handiena. ADESEren estimazioen arabera, gainera, mundu osoan gehien haziko den sektorea da: 2010ean mundu osoan 56.000 milioi dolar fakturatu bazituen, 2015erako 82.000 mugituko dituela aurreikusten da.

Ez hori bakarrik; bideo-jokoaren alde onak gero eta pisu handiagoa dute, eta gero eta gehiago erabiltzen dira jokook hezkuntzan. Alemaniako eta Espainiako gobernuek bideo-jokoaren industriarendako babes berezia onartu dute, eta bi herrialdeotan Kultura Batzordean dago orain.

Euskal Herria eta Debagoiena olatu horren barruan daude eta, pixkana-pixkana, pausoak ematen dabilta.

Alde on asko dituzte

- ▶ Elkarlana eta sozializazioa sustatzen dute. Izan ere, gero eta arrakastatsuagoak dira taldean jokatzeko bideo-jokoak.
- ▶ Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzeko balio dute: gero eta joko gehiagotan aukera daiteke gizonezko edo emakumezko pertsonaia izan nahi den; emakumezko pertsonaia gero eta gutxiago jausten dira estereotipoetan.
- ▶ Askotariko trebeziak eta gaitasunak garatzen laguntzen dute.
- ▶ Ume gehienendako, teknologiaren mundura sarrera erakargarria dira.
- ▶ Jokoen edukien gainean gogoeta eginda, baloreak ikasteko tresna dibertigarria dira.

Europako campusa, Zierbenan
DigiPen Teknologia Institutua Zierbenan dago eta arduradunetako bat, Aitziber Azkondo, beragarra da; Komunikazio eta Marketin arduraduna da.

AEBetan sortu zen DigiPen, eta bideo-joko sortzaile izateko prestakuntza ematen du. Zierbenakoa da DigiPen-en Europako campusa bakarra. Aurten bigarren ikasturtea du. Euskal Herrira ekartzeko inizatiba Bilboko Merkataritza Ganberarena izan zen, eta eragile jakin batzuen; talde horretan zegoen Azkondo. Berak honela azaltzen digu euren motibazioa: "Bilboko Merkataritza Ganberan, sektore produktiboen gaineko ikerketa egin genuen. European, sormen industriak eta, horren barruan, bideo-jokoaren indar handia zuela ikusi genuen. Orduan, DigiPen-ekin harremanetan ipini ginen, eta Euskal Herrian egoitza izatea euren dako interesgarria zela konbentzitu genituen. Asmoa da DigiPen-en Europako egoitza Euskal Herriko izatea".

Azkondok azaltzen duenez, "bideo-jokoak taldean egiten dira", eta bi lan mota nagusi daude: "Ingeniariak mugimendua eta interakzioa lantzen ditu, eta artistak, alde bisuala: pertsonaia, inguruak...". Bi adar horien artean aukeratzen dute ikasleek.

Krisiari aurre egiteko tresna


Bideo-jokoetan ez ezik, beste industria askotan lan egin dezakete gero espezialista horiek: "Ingeniariak puntako teknologia ikasten dute, eta softwarean zein inteligentzia artifizialean lan egin dezakete; bestalde, teknologia horrek beste aplikazio asko ditu industrian, hezkuntzan eta beste askotan. Artistek ere lan asko egin dezakete: animaziozko film laburrak zinemarako, telebistarako... Irteera asko dituzte".

Bideo-jokoaren inguruan bestelako lan asko sortzen dira; esaterako, ahotsa bikoiztea. Horren adibide bat ere gertuan dago, izan ere, bi arrasatearrek, Jon Zubiagak eta Aner Narbaezek, *Anarchy Reigns* bideo-jokoari ahotsa ipini diote, gaztelaniazko bertsioan. Biak ere bikoizketa ikasitakoak dira. Narbaezek honela dio: "Nik uste dut bikoiztaileraren lan handia dagoela mundu horretan; uste dut hor dagoela etorkizuna".

DigiPen-en arduradunak bat datoz: Euskal Herria krisitik irteko "erreminta garrantzitsua" izan daiteke bideo-jokoaren jardura. Baina horretarako, "jakina, sektore horrek babesa ere behar du", eskatzen du Azkondok.

"Ikusmin handia dugu"

DigiPen-en bi ikasle debagoiendar daude: Jon Sanchez aretxabale-tarra (22 urte) eta Markel Madina oñatiarra (19 urte). Jonek Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza Informatikoa ikasi du; Markel Batxilergotik dator. Biak bideo-jokoaren zaleak dira eta programazioa ikasten dute DigiPen-en. Euren lan-etorkizuna "urruti" ikusten duten arren, "ikusmin handiarekin" daudela diote: "Euskal Herrian oraindik ez dago bideo-joko enpresa asko; baina pentsatzen dugu orain hasiko dela zerbait mugitzen". Dagoeneko goraldean dagoen jardura bat azpimarratzen dute: "Orain, edozeinek igo ditzake Internetera



Jon Sanchez eta Markel Madina DigiPen-eko ikasleak. | DIGIPEN



DigiPen Europa fakultatea, Zierbenan. | DIGIPEN



IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
Erdi/Goi mailako ezagupena dutenentzako.
Hasiera: Otsailak 29.
Klase eguna: asteazkena
Ordutegia: 18:15 - 20:45
Matrikula epea: Otsailaren 25era arte.

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es



Bideo-jokoek zinemak eta musikak baino diru gehiago fakturatzen dute; krisia kontrolpean hartzeko moduko industria da.

XABIER URTZELAI

DATUAK

%45

HANDIAGOA

Bideo-jokoek industria %45 haziko da munduan 2010-2015 urte artean.

4.

INDARTSUENA

Hego Euskal Herria eta Espainia Europako 4. bideo-joko merkatu handiena dira.

9.500

MILIOI DOLAR

AEBetan, 2007an, 9.500.000 dolar saldu ziren ordenagailurako joko eta bideo-jokoetan.

ESANAK

"Krisian, tresna garrantzitsua da bideo-jokoek industria; baina babesarekin"

AITZIBER AZKONDO | DIGIPEN-EKO ORDEZKARIA

"Euskal Herrian, ea enpresak mugitzen diren; ikusmin handia daukagu"

JON SANCHEZ ETA MARKEL MADINA | DIGIPEN-EN PROGRAMAZIO IKASLEAK

"Xehetasuna, azkartasuna eta egokitzapena garatzen dute bideo-jokoek"

JAVIER ECHEVERRIA | IKERTZAILEA

HUHEZIREN KOMUNIKALDIAK

09:00 Ongietorria.

09:15 Bideo-jokoak, fenomeno unibertsala, baita gurean ere (Jone Zubiaga, Creativity Zentrum).

10:00 Zelan egiten den bideo-joko bat (Asier Quesada, Delirium Studios).

11:15 Zelan txertatu bideo-jokoak hezkuntzan (Carlos González Tardón, Serious Games).

12:00 Demoak.

13:00 Bazkaria.

15:30 Mahai-ingurua: Bideo-jokoak Euskal Herrian. Hiru esperientzia.

► Igor Leturia (moderatzaillea).

► Iruri Knorr (Ideateca).

► Fran Bodego (Ikasplay).

► Juan Luis Laskurain (DigiPen).

► Josu Cobelo (Dada Company).

joko txikiak. Oraingo joera handiena telefono mugikorrerako jokoak egitea da; diru asko ibiliko da horren inguruan".

Hezkuntzarako onak

Garapen ekonomiko hori bideo-jokoei begiratzeko modu berri

batekin dator. HUHEZI fakultateak Bideo-jokoak eta hezkuntza gaia aukeratu du aurtengo Komunikaldietarako, honengatik: "Behin eta berriro aipatzen dugu teknologia berriak zein inportanteak diren, zer betebeharrak interesgarriak duten irakaskuntzan, zelako

garrantzia duten euskararentzat... baina bideo-jokoak erabat ahaztuta ditugu". HUHEZIREn iritzi, "uste dugu bideo-jokoek bakartu egiten dituztela gure seme-alabak, eta biolentziak josita daudela".

Javier Echeverria ikertzailearen hitzak aipatzen ditu HUHEZIK:

"Bideo-jokoek xehetasuna, azkartasuna, egokitzapena, ikasketa eta gaitasun kognitiboak garatzen dituzte. Gainera, hezkuntzarako, berriztapenerako eta sozializazio-rako garrantzitsuak dira".

Begoña Gros pedagogoak asko ikertu du bideo-jokoek gainean.

Bere esanetan, "curriculumeko eduki asko lan daitezke bideo-jokoekin", eta haiek "esplotatu" beharko lituzkete irakasleek. Bere iritzi, bideo-joko gehienak erabil daitezke hezterko; eduki negatiboak dituztenak balioak lantzeko abiapuntu ontzat dauzka.

Zure etxebizitza berria
martxan da

- Eraikuntza-lanak hasi dira dagoeneko.
- Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.
- Ordainketa planifikatzeko denborarekin.
- 2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.

ARRASATE

2 LOGELA: 198.000€*

3 LOGELA: 240.000€*

* Gehi BEZ.



ZURE ETXEBIZITZA ERAIKITZEN ARI GARA



INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59

PROMOZIOAREN
FINANTZAKETA ETA
ABAL EMATEA



UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:



Udal eta ikastetxe gehienek bat egin zuten lanuztearekin

- ▶ Oñati eta Elgetako udaletako langileek grebarik ez egitea erabaki zuten
- ▶ Mankomunitateak eta ospitaleak ere bat egin zuten deialdiarekin

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE
ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek Eusko Jaurlaritzak egin nahi dituen murrizketen aurka atzo egindako lau orduko lanuztearekin bat egin zuten Debagoieneko udal, ikastetxe eta osasun etxe gehienek.

"Langile eta zerbitzu publikoak pairatzen ari diren erasoak" salatu nahi izan dituzte sindikatuek, eta Eusko Jaurlaritzak atzera egin dezala lortu, ezarri nahi dituen murrizketekin.

Udal ia guztiek lanuztea

Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Antzuola, Leintz Gatzaga, Bergara eta Arrasateko udaletako langileek lanuztea egin zuten, 11:00etatik 15:00etara ia guztiek lanuztea beste ordutegi batean egin zuenik ere egon zen. Hori horrela, udaletxeetako jardunaz gainera, kiroldegietakoa ere eten egin zen.

Lanuzteekin batera, elkarretaratzeak ere egin zituzten Arrasate -40 bat lagun batu ziren- eta

Bergarako -80 bat lagun batu ziren- plazetan.

Elgetako Udalarri dagokionez, hango langileek ez zuten lanuzterik egin. Oñatikoek ere, "murrizketen kontra" egon arren, ez zuten lanuzterik egin eta ikastetxeek ere normal jardun zuten. Hala ere, udal langileek eta Herri Eskolako irakasleek 11:00etan elkarretaratzea egin zuten plazan. Eskoriatzako Udalaren kasuan, ez zuten bozketarik egin; hortaz, langile bakoitzaren esku geratu zen erabakia.

Beste sektoreetan ere bai

Ikastetxeei dagokionez, ia guztiek egin zuten lanuztea -Oñatiko Herri Eskolak ez eta Elgetakoan, langileen %85ek.

Osasun arloari dagokionez, herritako osasun etxeetan eta Debagoieneko ospitalean aurrera egin zuen lanuzteak eta zerbitzu minimoekin funtzionatu zuten.

Debagoieneko Mankomunitatearen kasuan, lanuztea egin

zuten langileek.

Debagoieneko LAB eta ELA sindikatuak "oso pozik" azaldu ziren eguerdian egindako aurrebalarazioan. Jaurlaritzak, berriz, lanuzteak "jarraipen txikia" izan zuela azpimarratu zuen.



Arrasaten 11:00etan egindako elkarretaratzea. | JOKIN BEREZIARTUA



Alternatiba, Aralar, EA eta ezker abertzaleko ordezkariak eguaztenean Arrasaten. | TXOMIN MADINA

Eraldaketa sozialalaren alde Donostiarako dei egin dute

Alterbatibak, Aralarrek, EAk eta ezker abertzaleak bihar, otsailak 11, Donostian *Erantzuna gure esku. Erabakia gure esku* leloarekin egingo den manifestaziorako dei egin diete debagoiendarrei.

"Eredu sozioekonomiko alternatiboaren beharra premiazkoa da Euskal Herrian eta nazioartean, eta bide horri helduko diogu tinko, berau gauzatzeko", azaldu zuten Arrasaten egindako agerraldian.



Setemeko kideak gaztetxoei azalpenak ematen. | MONIKA BELASTEGI

Arduratsu kontsumitzeko mezua zabaldu zuten Setemeko kideek

M.B. | ARRASATE

Arduratsu kontsumitzera gonbidatu ditu Setem gobernuz kanpoko erakundeak asteon arrasatearrak, eta eguneroko kontsumo ohiturak kolokan jartzera ere bai. Horretarako, karpa bat ipini zuten Arrasateko Seber Altube plazan, eta hara joan ziren herritarrei gaur egungo kontsumo ohiturek izan ditzaketan zenbait ondorio negatibo azaldu zizkieten, *estoesloqueparece.org* sentsibilizazio kanpainaren barruan.

Kanpaina ibiltari hori EAEko hiri eta herri nagusietan barrena ibili da eta martitzenean egin zuen geldialdia Arrasa-

ten.

Neguko merkealdien tesuingurua aukeratu du erakunde horrek kontsumoaren ondorioei buruz gogoeta egiteko, eta kanpaina hiru ardatzetan oinarritu dute. *Arropa garbia* delako atalean, modaren multinazional handiek ekoizten dituzten arropak gehienetan herri txirotutako emakumeek egiten dituztela azaldu zuten, eta haien lan-baldintzak maiz esklabotzatik gertu daudela; osasun arazoak eragiten dituztela ere bai. Bidezko merkataritza eta finantza etikoaren garrantzia ere azpimarratu zuten.

Abian dira Oñati-Zubillaga bidegorriko lanak, eta urrirako bukatu nahi dituzte

Zubillaga-Epele tartea lizitazioan dago eta lanak irailean hasia espero dute

M.B. | ARRASATE

Dagoeneko hasi dira Oñati eta Zubillaga artean bidegorria egokitze lanak. Abenduaren 13an hasi ziren, eta, Aldundiak aurreikusitakoaren arabera, hamar bat hilabete iraungo dute. Aurrekontuari dagokionez, 1.905.770 euro kostako dira.

Zubillagan hasi dituzte lanok, errepidean, eta, eragindako estutzeta dela eta, semaforo bidez egongo da erregulatuta auzo barruko trafikoa, lanak bukatu arte.

Ia lau kilometro

Bidegorri tarte horrek 3,9 kilometroko luzera du; 3,5 kilometroko zabalera; eta bizikletek eta oinezkoek partekatzea izango da. Bestalde, zenbait tokitan ibilgailuekin ere partekatuko da. Argiteria ere izango du.

Oñatiko erdigunea industrialdearekin eta lantokiekin lotuko du, Arboletako irteeratik Zubillaga auzoraino, hain justu ere. Hori horrela, eguneroko erabilerrarako garrantzitsua izatea espero du Diputazioak.

Zubillaga-Epele, aurten

Zubillagatik Epelera arteko bidegorri zatiari dagokionez, lizitazio



Bidegorria egiteko lanak Zubillaga auzoan. | MIREIA BIKUÑA

prozesuan dago, Aldundiko iturrien esanetan, eta, gehitu dutenez, egindako plangintzaren arabera, lanak irailean hasia aurreikusten dute. Orduetik aurrera, lanak bukatzeko zazpi bat hilabete beharko dira, Aldunditik aurreratutakoa da. Zati horren aurrekontua 1,9 milioi euro da.

Lan txiki batzuk eginda

Zubillagatik Epelera arteko tarte horretan lan batzuk eginda daude. Hain justu ere, Oñatiko ur

zikinak Epeleko araztegiarekin batzeko kolektorea lur azpian sartzeko lanak egin zirenean, bidea txukundu egin zuten, baina oraindik ere lan asko egitea falta da; bidegurutzeko zubiaren azpiko pasabidea, esaterako.

Bizikletaren erabilera bultzatzeko eta bidegorri sare egokia osatzeko politikaren barruan Oñati eta Arrasate lotzea lehen-tasunen artean daukara azaldu du Aldundiak.

Azpitarte eskoriatzarraren aldeko martxa bihar, Poitierseko espetxera

Bestalde, Mikel Askasibar bergararrak 21 urte bete zituen atzo kartzelan

MONIKA BELASTEGI | ESKORIATZA

Gorka Azpitarte Eskoriatzako presoari eta harekin batera Frantziako Poitiers-Vivonneko (Frantzia) kartzelan bizi baldintza duinen alde borrokan diharduten presoek elkartasuna adierazteko martxa deitu dute Frantziako espetxe hartara.

Bihar, zapatua, izango da martxa eta hara iristeko autobusa abiatuko da gaur, egubakoitza, Eskoriatzatik 23:00etan, Abadiñotik abiatuko den autobusarekin bat egiteko. Inkernu tabernan edo irrintzia@gmail.com helbidea eman daiteke izena.

Ezin kirolegia erabili

Eskoriatzako presoaren aldeko taldeak jakinarazi duenez, Azpitartek ezingo du espetxeko kirolegia hilabetez erabili, haren neskalagun Saioarekin -hori ere preso dago espetxe berean- horma baten gainetik berba egiteagatik ezarri dioten zigorra dela eta. Lau eguneko baraualdia ere egin zuen Azpitartek zigorra salatzeke urtarrean.

Eskoriatzarrarekin batera dagoen Eneko Zarrabeitia preso abadiñarrari ere espedientea

ireki diote bisita batean beste preso batekin berba egiteagatik. Zarrabeitia bisitak kristalaren ostetik egitera zigortu dute bi hilabetez, Frantziako ohikoa kristalik gabe egitea den arren. Espetxe horretan daude, baita

ere, Saioa Sanchez eta Maite Aranalde. Hala, Berango eta Hendaian ere egin dira mobilizazioak eta martxa ere egingo dute.

Aipatutako neurriok bertan behera laga ditzaten eta Azpitar-



Gorka Azpitarte. | GOIENA

te zein haren lagunendako bizi baldintza duinak eskatzeko, astean barrena hainbat ekitaldi egin dituzte Eskoriatzan. Batetik, espetxeko zuzendariari eskutitzak bidaltzeko kanpaina egin dute. Gutun horretan, besteak beste, euskal presoek bisitak, bikoitzak izan daitezela eskatzen zaio zuzendariari, izan ere, senideek 1.100 kilometrotik gora egin behar dituztela hara iristeko, horrek dakarren gastu eta arriskuarekin. Horrekin batera, Udalean mozioa aurkezteko da Eskoriatzako presoaren aldeko taldea hurrengo osoko bilkuran.

TXOMIN AZPITARTE | GORKAREN AITA

"Herriak ez baditu presoak espetxetik ateratzen, hantxe geratuko dira"

Zeri erantzuten diote halako zigorrak?

Lehenago Orlyn egon zen. Oraingo espetxea berria da; segurtasun handikoa dela diote eta zuzendaria Bordelen egoten da. Hasiera batean, espetxe berrira iritsi zenean zuzendariaren jarrerak ireki samarra ematen zuen, baina bildots larria zeraman otsoa baino ez zen. Izan ere, tontakeria bategatik zigortu egin zituen Gorka eta Eneko Zarrabeitia. Dena den, eurek ere badiote: arauak urratu badituzte zigorra merezi dutela, baina neurrikoa, ez hain gogorra. Eta horren aurrean hor dabilta, borrokan zuzendariarekin. Abokatuak errekurtsioa ere jarrita dauka... Guk, hemen-



GOIENA

dik, martxa antolatu dugu elkartasun moduan.

Euskal Herrian bizi den aro berria Frantziara iritsi da?

Ez dut uste. Azken boladan espetxe aldaketa nahiko dago Frantziako baina bi preso apur bat hurbildu dituztela ikusi orduko, beste bi urrundin egin dituzte. Dena den, itxaropena badugu.

Zer eskatzen duzue?

Lehenik eta behin Frantziako gauzak alda daitezela. Hau da, Gorkak hiru urte darama espetxean, Eneko ia lau, baina oraindik epaitzeko daude. Izan ere, han dago lege bat prebentibo moduan lautik sei urtera egon ahal izateko. Eta gero, gutxienez, Euskal Herri hurbil ditzatela nahi nuke. Hainbatek pentsa dezake Bildu erakundeetara iritsi delako guztia konpunduta dagoela, baina ez da hala. Herriak ez baditu presoak ateratzen espetxetik, han geratuko direla.

Elikadura ohiturak hobetzeko zerbitzu informatiko berria sortu dute

Fagor Etxetresna Elektrikoak taldeak egin du, eta Innobasqueren Gosasun ekimenaren eskura jarri

M.B. | ARRASATE

Txema Gisasola Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeko presidentea eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko presidentea lan-kidetzaren hitzarmena sinatu dute asteon. Bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen zerbitzu informatiko bat abian jartzeko sinatu dute hitzarmena. Horren arabera, Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak Gosasun mugimenduen eskura jarri du -Innobasquek bultzaturiko bizi-ohitura osasungarriagoak sustatzeko mugimen-

dua- elikadura, jarduera fisiko eta emozioen kudeaketa aldatzen laguntzeko zerbitzu bat.

Diagnosiak lantzen dituen, gomendioak egiten dituen, planifikatzen duen eta ohituren aldaketan jarraipen bat egiten duen plataforma informatiko bat da Fagorrek diseinatutakoa, bizi-modu osasungarriago bat lortzeko asmoarekin.

Zerbitzua adin guztietarako diseinaturik egon arren, hasieran 55 eta 70 urte bitarteko pertsonen eta eskola umeen ezarriko zaie.



Txema Gisasola eta Guillermo Ulacia, hitzarmena sinatzeko ekitaldian. | GOIENA

Helduak eta haurrak

Zahartze Aktiboaren eta Belau-naldien arteko Elkartasunaren Europako Urtean gaude eta horretatik aukeratu dituzte adineko

personak zerbitzua erabiltzen hasteko talde moduan. Europako Batasuneko Zahartze Aktiboaren Liburu Zuriak dioena ere hartu dute aintzat. Liburuak jasotzen

duenez, gaixotasunen %40 eta %70 artean prebenigarriak dira erabat edo neurri batean, baldin eta prebentzio eta arrisku faktoreak egoki kontrolatu eta maneiatuz gero. Gainera, emozioen egoerak ere eragin zuzena du biztanleria talde horren osasunean -gainerakoetan bezala-, eta emozio baikorrek indartu egiten dute osasuna eta ezkorrek okertu.

Bestalde, haurrak hautatu dituzte garrantzitsua delako lehen urteetatik ohitura batzuetan hezte. Izan ere, epe luzera ohitura osasungarri horiek, zahartze osasungarria ahalbidetuko dutelako. Horrekin batera, kontuan hartu dute haurrengan dagoen gizentze indizearen gehitzea eta horrek ekar ditzakeen gaixotasun kronikoak.

Goio Eskibel, Espainiako viatoristen arduradun probintziala

Eskibel 69 urteko viatorista jaiotzez lakuntzara den arren, Eskoriatzara joan zen bizi izatera, oso gazte, familiarekin. Madrilen Irakasle Ikasketak egin eta gero, hainbat ikastetxe viatoristatan jardun du; Arrasatekoan, esaterako. 1996tik 2004ra ere izan zen Espainiako viatoristen arduradun probintziala.

Debagoieneko zortzi udalek 4,5 milioi euro inguru itzuli beharko dituzte Foru Fondora

M.B. | ARRASATE

Udal Foru Fondoari udal bakoitzak zenbat itzuli beharko dion badaki, gutxi gorabehera; izan ere, datua behin-behinekoa da. Behin betiko datua hilaren 14an Finantzen Euskal Kontseilua batzartu eta gero jakingo dute. Baina aldatuko ez den kopurua lehenengo ordainketan, otsailaren 25ean ordaindu behar izango

dutena da. Bailarako zortzi udalek 2.136.100,43 euro ordaindu beharko dituzte: Antzuolak, 72.686,03 euro; Aretxabaletak, 225.487,80 euro; Elgetak, 37.653,85 euro; Eskoriatzak, 137.552,72 euro; Arrasatek, 746.700,40 euro; Oñatik, 368.818,87 euro; Leintz Gatzagak, 13.218,16 euro; Bergarak, 497.310,59 euro; eta EUDELi dago-kion zatia, 36.672,01 euro dira.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardinetan, 3
20600 Eibar

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011/2012
MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 10etik martxoaren 1era
(15:00ak arte)

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net webgunean. **Argibide gehiago:** www.eoieibarheo.net webgunean edo **943 20 06 18** telefonoan.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
http://goiena.net/iritzia/



Krisi soziala

Urtarrilean izandako Davos-eko Foro ekonomikorako txosten asko egiten dituzte, eta bat nahiko berezia da: *2012 Arrisku globalak*. Lan honetan, gobernuetako, industriako, unibertsitateetako eta gizarte sozialeko 469 adituri galdetzen diete ea zeintzuk diren krisi ekonomikoak sor ditzakeen arrisku nagusiak, eta orain arte beti aipatu izan dituzte hauek: luzaroko desoreka fiskalak, berotegi efektuko gasen kutsadura, munduaren gobernanzaren akatsak, demografiaren handitze jasan ezina eta teknologien ahultasuna.

Baina lehen aldiz aipatzen dute ekonomiak sortutako errebolta sozialak izan daitezkeela arriskutsuenak. Arabiar udaberriak, Atenasen eta Londresen izandako kale istilu basatiek, Espainiako M-15ek eta Parisko eta New Yorkeko manifestazioek zer pentsa ematen diete munduko agintariei.

Davoseko Foroan zioten luzaroko desoreka fiskalak eta familien diru sarrera desberdintasunak istilu sortzaile nagusiak direla. Garbi izan behar dugula gure seme-alabak eta ilobak ez direla gu bezain ondo biziko, batez ere herri industrializatuetan. Krisia gazteak gogor jotzen ari dela, etorkizunik gabe utziz, eta jubilatutako askok ezin izango duela bizirik iraun Estatu zorpetuak ematen dion pentsioarekin. Aberatsen eta txiroen arteko desberdintasuna handitzeak ere istiluak sor ditzakeela.

Txostenak distopia kontzeptua ere aipatzen du; hau da, utopia-aren aurkako egoera batera goazela, zailtasun eta itzaropenik gabeko gizarte baterantz. Eta horrek ezegonkortasuna sortuko duela.

Era berean, Porto Alegreko Munduko Foro Soziala eratu zen, Davoseko Foroari aurre egiteko beste mundu bat posible dela oihukatuz eta neo-liberalismoaren aurkako gaiak jorratuz. Eta Brasilek beste bide berri bat hartuko du: orain arteko teoria zen ekonomiak hazi egin behar zuela txiroak laguntzeko, baina orain alderantziz egingo dutela, txiroak lagundu lehenengo, ondoren ekonomia hazteko.

"Itzaropenik gabeko gizarte baterantz goazela dio txostenak"

USTEAK USTE

ENEKO AZKARATE | eazkarate@goiena.com

Bizitza bezain gordina

Txirindularitza asaldatu du Contadorren positiboak eta kiroleko auzitegiaren epaiak: substantzia debekatuak zituen gorputzean; hortaz, erruduna da. Igual dio odolean aurkitu zioten klenbuterol hondar apurra, ahalegin fisikoa hobetzen laguntzeko bestekoa zen edo ez. Contadorrek ezin izan du frogatu ez zuela hartu substantzia hori, ez eta ustezko Irungo okela kutsatuak eragin zion. Pintokoak euskal harakinak kakaztu zituen eta haserre eragin zuen hemen. Han, isilik. Han, Madrilen, haserre orain. Hase-rrer, *frantxute*-ekin, espainiar kirolari txapeldunak barregarri eta susmagarri laga nahian dabilzalako. Tourreko txapeldun destronatuak euskal okela susmoan jarri zuen moduan. *C'est la vie!*

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Zer egin dezaket nik berradiskidetzaren bidean?

Marijo Deogracias
http://goiena.net/blogak/marijo/

Are gehiago, zerbait egin beharra ote daukat?

Horixe buruan izan nintzen abenduan Berradiskidetze sozialerako gune irekian.

Lokarrik antolatu zuen BECen eta 200 bat lagun egon ginen han, goizetik eguerdira bitartean.

Egia esateko ez nekien oso ondo zertara nindoan, baina sentazioa izan nuen hara elkartzeko ginen guztiok bat gontzela herri honetan berradiskidetze prozesuan gutariko bakoitzak inplikatu beharra duela.

Metodologia berezia izan zen eztabaida egiteko Lokarrikoek aukeratu zutena: *open space* deitu zuten.

Lehenengo eztabaida gaiak proposatu zituen jendeak, gero eta eztabaidagai gustukoeneraren arabera taldeka banatu ginen eta amaieran konklusioak atera

eta post it banatan eskegita laga genituen esaldi bana arbelean. Asmoa zen eztabaida taldeetan zehar mugitzea, entzutea, parte-hartzea.

Bitxia izan zen metodologia, eta jarraipena eman behar zaiola uste dut; era horretako "kedada" gehiago behar ditugula uste dut.

Ze, elkarbizitza, biktimak, giza eskubideak, biktimarioak, barkamena, errekonozimendua... gutxiago edo gehiago, guztien ahoetatik atera ziren berbak izan ziren, baina susmoa daukat abiapuntua adostu beharra dugula aurrera egiteko; izan ere, berradiskidetze horrek zer esan nahi duen ba ote dakigu?

Gutariko bakoitzak berradiskidetze prozesu horretan zer ekarpen egin dezakegu?

Baketik-ek esaterako "Berradiskidetzeari buruzko 2012 indarguneak: bost proposamen" aurkeztu ditu. [Sarean dago lotura]

Eta, bizikidetzaren berradiskidetze-prozesu bat bultzatzeko gogoeta horretan aipatzen diren bost proposamenetako bat Gizarte zibilaren eremuan lan egitea da.

Diotenez, "desberdinen arteko elkarbizitza-, topagune- eta formazio-eremuak sortzea proposatzea etika erreferentzia izango duen eremua partekatzeko".

Bada, ados nago horrekin: berradiskidetzea, azken baten, elkarbizitza era normalizatuan egin ahal izatea delako.

Eta, horretarako, gizarte zibilarri antolatzea dagokigu.

Elkarrekin bizi besterik ez dugunez, ahal dela, elkarri errespetatuz egin dezagun.

Horregatik, garrantzitsua deritzot era horretako ekimenetan parte hartzea.

Gizartea beti joaten delako gobernuen, erakundeen, alderdi politikoen, aurretik eta kasu honetan ere, eta politikoki akordioak lortzea gehiegi kostatzen denez, herritarren arteko elkarbizitzarako akordioa adostu behar dugula uste dut.

Berradiskidetzea eremu sozialean kokatzen delako, maila pertsonalean eta hor, barka eskaerak ere erabaki pertsonalak direnez, dagokionean etorriko dira, baina, landu egin behar dira horretarako egoera egokiak eta bai Lokarrik zein Baketik jorratzen dituzten ekimenek lagungarriak izango zaizkigu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza.

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA

ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA

ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale.


Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Gipuzkoako azpiegiturak, ongizatea eta justizia soziala

Ibon Arrupe
Arrasate

Abertzaleon helburua justizia soziala eta aurrerapena gailenduko diren Euskal Herria independentea lortzea da. Hori da gure ametsa.

Baina benetako independentzia lortzeko ez da burujabetza politikoa bakarrik bermatu behar, baita burujabetza ekonomikoa, soziala eta kulturala ere.

Euskal Herri independentea bai, baina beste herrialdeekiko komunikaziorik gabe eta bere buruari begira egongo den Euskal Herririk ez.

Independentzia hori lortzeko jorratu behar den nazio eraikuntzak, nahi eta nahi ez, azpiegitura desberdinen beharrera garamatza:

Industriaguneak. Lanpostuak sortuaz, aberastasuna sortu eta berau banatzeko.

Errepideak. Lurralde ezberdinen artean oreka izateaz gain, elkarren arteko irisgarritasuna baldintza onetan bermatzeko. Euskal Herriko edozein txokotan bizi arren, negurik gogorrean ere, modu seguru eta azkar batean ospitalera heldu ahal izateko. Unibertsitatera joan ahal izateko. Lanera joan ahal izateko. Hiriburuetan eta inguruko beste herrietan antolatutako ekitaldi kulturaletan parte hartu ahal izateko. Gure enpresek, konpetitibitate handiagoa izan dezaten, bideak errazteko. Gure segurtasuna bermatzeko.

Portuak, aireportuak eta trenbideak, bertan ekoiztutako produktuak mundu zabalera modu azkar batean esportatu ahal izateko. Euskaldunok atzerrira egiten ditugun bidaien joan-etorria modu azkar eta erosoagoan egin ahal izateko. Kongresuetara, ferietara, bai makina bat muntatzera edo bai euskaldunok atzerrian dauzkagun (gero eta gehiago, gainera) lantegi eta enpresak kudeatzera errazago joan gaitezten. Nabarmena baita atzerrira gero eta sarriagotan joan beharra daukagula.

Beraz, azpiegitura hauen aurka agertzen direnek, Euskal Herria eta Gipuzkoa desberdin bat aldarrikatzen dutenek, beraien eredu alternatiboa zein den azaldu beharko lukete. Gipuzkoa da Estatuko langabezia tasa baxuena daukan lurraldea. Horretan badu zerikusirik azpiegitura horien guztien eraikuntzak.

Herrigintzak aurrera garamatza. Proiektuak gelditu eta ezer ez egiteak, ordea, atzera.

Deskargan tunela eraiki eta Urretxu eta Bergara artean autobidea burutzea aurrerapena eta herri eraikuntza da.

Kritika iraina?

Unai Aranzabal, Jon Leibar eta Aitzol Gandiaga
Bergara

Pasa den osoko bilkuran azpiegituren aurkako mozioa aurkeztu zenean, gertatutakoaz eta honen harira etorritakoaren inguruan gure haserrea erakutsi nahi dugu Bergarako Gazte Asanbladako kide garen hiru herritarrok.

Gaiaren harira hiru gazteok kartel bana eduki genuen eskuetan, non bertan honakoa irakur zitekeen: *PNV txikitzaile, PNV diruzale eta Euskal Herria ez dago salgai*. Gure ustetan, idatzi hauek kritika politiko hutsak dira.

Ez gaude ados PNVk duen azpiegitura handien inguruko politikarekin; horrenbestez, gure iritzi eta haserrea plazaratu nahi genuen, hau adierazpen askatasunaren oinarritako bat delarik.

Ezin dugu gure ezadostasuna modu honetara erakutsi?

PNVk ezin ahal du kritika politikorik jaso?

Kritikak eta irainak bereizten jakin behar da, eta ez bi hitz hauen arteko jokoa baliatuz alkatearen dimisioa eskatu.

AHT zuen sinadurei esker eraikitzen dagoela salatzea ez da iraintzea, zuen betiko diskurtsoa salatzea ez da iraintzea.

Iraina zuek guri egindakoa da, gure adierazpenak baliatuz Udal Gobernua salatzea.

Laguntza ekonomikoak alde guztietan murrizten doaz, langabeen kopurua etengabe doa gora, gazteok geroz eta

zailtasun gehiago ditugu lana bilatzeko, zer esanik ez etxebizitza duin bat eskuratzeko.

Hala ere, zerbait badoa aurrera, AHTren tunelak eta zubiak, hauek krisia eta herritarren hitzaren gainetik aurrera doaz. Zoritxarrez ez dira bakarrik: Pasaiaiko superportua, errauskailua, espetxea... Guk gure herria asko maite dugu, zuek agian ere bai, baina ziur gaude zuen poltsikoak gehiago maite dituzuela.

Azkenik, zinegotzi bezala kritika politikoak jasotzen ikas ezazu; hau ezin baduzu jasan, zure karguaren inguruan hausnarketa bat egitera gonbidatzen zaitugu.

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko GOIENA paperean (495. zenb.), 19. orrian, esan genuen Selena Lizarburuk margo erakusketa inauguratu zuela Nahikari tabernan. Oker idatzi genuen abizena: Selena Lizaraburu da.

Bada, barkamena eskatzen dugu akats honek eragin dituen arazoengatik.


Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Gremioen gida




Osasun zerbitzuen gida



Jatetxeen gida



Profesional liberalen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKAZU?

Eman ezagutzera zure negozioa
Debagoieneko gidetan.

Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Manu Ugartemendia | Herrira mugimenduko bozeramailea

"Bilboko manifestazioaren ondoren, alderdi politiko guztiek birplanteatu dituzte mezuak"

- ▶ Herrira mugimenduan batu nahi dituzte, herririk herri, "kolore ezberdinetako" herritarrak
- ▶ Egin Dezagun Bidea ekimenaren hausnarketatik sortu da Herrira mugimendua

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Donostiako Kursaaen aurkeztu zuten domekan Herrira mugimendua. Bultzagileek diote ondo joan zela. Oso mezu argia bidali zutela. Jendeari ulerkorra egin zitziola mezua. Egin Dezagun Bidea ekimenetik eratorritako mugimendua da. Manu Ugartemendia da Kursaaen bozeramaile lanetan aritu zenetako bat.

Ze antolakuntza era izango du mugimendu edo plataforma horrek?

Gure helburu nagusia da herritarrak, kolore ezberdinetakoak, batzea ekimenera eta haiek antolatzea modu autonomoan herririk herri. Nazio mailako ekimenak ere egingo ditugu, baina herri eta kanto guztietan taldeak osatzea nahi dugu. Bilboko manifestazio jendetsuaren modukoak ere egin beharko ditugu, hala ere.

Etixerat, Jaiki Hadi... badira presoek aldeko taldeak. Herrira horiek osatzen dator, ordezkatzen...?

Lan eremuak oso ezberdinak dira. Etxerategen ondoren islatzen du egunerokotasuna. Egunero, edo astebururo, doaz presoak bisitatzen haien senide edota lagunak. Senide eta lagunak gora-beheren isla, bozeramaile edo dinamizatzaile da Etixerat. Haiki Hadiren helburua da osasun asistentzia eskaintzea. Hortaz, bi talde horiek ez dira Herrira bilgunekoz kide izango, bakoitzaren helburu edo zereginak zehatzak direlako. Horrek ez du esan nahi, jakina, bateko edo besteok egongo ez direnik Herriran.

Lau helburu zehatz aipatu dituzue: batetik, euskal presoek ezartzen zaizkien salbuespen neurriak indargabetzea.

Preso gaixoak askatzea eskatzen dugu; izan ere, kasu batzuk oso gogorrak eta onartezinak dira. Bestalde, Parot doktrina indargabetzea, bertan behera geratzea; hiru laurdenak beteak dituztenak kaleratzea eta, gehienbat, presoak euskal herriratzea.

Beste helburu bat da Euskal Preso Politikoen Kolektiboa Euskal Herrian batzea. Posible da hori?

Tamalez, kartzela berriak eraikitzen ari dira Euskal Herrian. Borondatea egonez gero, dena da posible.

Era berean, eskatzen duzue iheslari prozesu demokratikoan parte hartzeko aukera irekitzea...

Prozesua aurrera doan heinean eta gurea moduko gatazka politiko armatuak izan dituzten beste herrialde batzuetan gertatu den moduan, hemen ere beharrezkoa da presoak prozesuaren parte izatea.



Manu Ugartemendia, oraingo martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Azken helburua: preso eta iheslari guztiak etxeratzea. Ze eskatzen duzue, zehazki, amnistia preso guztiendako?

Amnistia beste termino batzuetan kokatzen dugu. Preso eta iheslariak gatazka baten ondorio dira, gure ustez. Eta gatazka gainditzen doan heinean, urrats berriak egingo dira eta guztiaren ondorio izango da preso guztiak aske uztea. Konponbide integrala. Aldiz, horretara iritsi aurretik, preso eta iheslariak parte hartu behar dute konponbide

prozesu horretan. Inork ez luke ulertuko konponbide on bat, preso edo iheslariaren parte-hartze barik.

Ze alderdi politikok, ze sindikatuk edo gizarte eragilek egin dute bat Herrira ekimenaren helburuekin?

Lanketa handia izan da aurretik. Ate guztiak jo ditugu. Batzuek ireki dizkigute eta beste batzuek, ez. PP, UPN eta PSE-EE izan ezik, gainerakoek ireki dizkigute. Eta ireki ez dizkigutenen arteko norbanako batzuekin ere izan gara. Bestalde, ateak ireki dizkiguten horietako batzuek ez zuten bat egin urtarrilaren 7ko Bilboko manifestazioarekin, baina elkarlanerako gertu agertu dira.

Ze borondate ikusi duzue Madrilgo Gobernuaren artetik eskari horiekiko?

Ez dago borondaterik egoera politiko berri honek eskatzen dituen erantzunak emateko PPren aldetik. Horregatik sortu dugu Herrira, hein batean, hain justu ere, presio sozialaren bidez, mugiarazteko Madrilgo eta Parisko gobernuak.

Gallardon Justizia ministroak esan du presoek irtenbide indibidualak

edo banan banakoak bultzatuko dituztela.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) bere eztabaidak izan ditu. Kolektibo horrek erantzungo die Gallardonek edo PPK kartzela politikarekiko darabilten politikari. Horrek ez du esan nahi presoek irtenbide bakarkakoak planteatzen ez dituztenik, bakoitzaren egoera ezberdina delako. Kolektiboak onartutako erabakia izanda ere, presoek bakarka eskatu dute Euskal Herrira ekarriak izan daitezela,

"Esan daiteke Justizia frantziarra dela Europako kaskarrenetakoa"

"Euskal preso guztien eskubide ororen alde borroka egingo dugu"

edota hiru laurdenak beteta dituztenak eta preso gaixoak libre utz ditzatela.

Kartzela politikari dagokionez, eta lehen urrats moduan, zer eskatzen diozue Raxoiren Gobernuari?

Preso gaixoen inguruan kokatzen ditugu indar handienak. Azkenaldian gertaera larriak izan dira eta bi presok bihotzekoak pairatu dituzte. Hori da orain lehentasuna, egoera larriean daudenei erantzutea. Beste egoera batean ezarri ziren bengantza politikoa oinarritutako legeak edo taktikak, gaur egungo tesuinguruan ez daukate zerikusirik. Prozesuari abiada emango lioke halako premiazko eta oinarritzko neurriak hartuko balituzte.

Euskal sozialistek eskatu diote Raxoiri malgu dezala kartzela politika...

Urtarrilaren 7ko manifestazioaren ondoren, alderdi politiko guztiek birplanteatu dituzte euren mezuak. Zelanbait esatearren, modulatu egin dute mezua.

Zelan baloratzen duzue Frantziako Asanblada Nazionalak hartutako erabakia, legez, presoek euren etxetatik ahalik eta gertuen egoteko?

Madrilaren irizpideen arabera mugitu izan da Paris kartzela politikari dagokionez. Orain hartu dute neurria baikortasunez hartzen dugu. Baina hitzetatik ekin-tzetara pasatu behar dute.

Etxerategen, bestalde, salatu du Frantziaren dauden hainbat euskal presoek kontrako neurriak hartu dituztela...

Bai, Frantziaren hala gertatzen da: orain, harea; orain, karea. Frantziaren dauden presoek egoera oso larria da. Oso gogor tratatzen dituzte presoak Frantziako espetxeetan. Justizia frantziarra Europako kaskarrenetakoa da. Eskubideen urraketa eguneroko kontua da. Eta sakabanaketa are eta larriagoa da han, preso gutxiago daudelako.

Langraitzen dauden eta Euskal Preso Politikoen Kolektibotik kanpo dauden presoekiko ze jarrera du Herrira ekimenak?

Preso ororen eskubideen alde gaude. Beste gauza bat da nork bere burua non kokatzen duen. Bada, Langraitzeko presoek euren burua kokatu dute EPPK kolektibotik kanpo. Herrira ekimenaren helburuetatik lanpo daude. Baina eskubide ororen aldeko borroka egingo dugu.



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurtzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

DUELA 10 URTE

2002-02-07

Erasoa Arrasateko PSE-EEri

Arrasateko sozialistek Olarte kalean duten egoitzari eraso egin zioten, 01:30 inguruan. Ordu hartan, lehegailu txiki batek eztanda egin zuen egoitzaren sarrerako atean. Atzeko aldean, bestalde, molotov koktel bat bota zuten leiho batera.

Erasoaren ondorioz, ate nagusia eta leiho batzuk kiskalita eta puskatuta geratu ziren eta barruan ere, oso handiak izan ez arren, kalte batzuk eragin zituen lehegailuak.



Erasoaren ondorioak. | GOIENA

2002-02-14

Amodiozko gutunik onena, Zarauztik

Hamargarren edizioa bete zuen Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketaren sari nagusia 26 urteko Bertol Arrieta zarauztarrak irabazi zuen. Estitxu Fernandez, Ainara Elizondo, Arantxa Urretabizkaia eta Jose mari Velez de Mendizabalek osatutako epaimahaiak aho batez hartu zuen erabakia. Eta debagoiendar onenaren saria, berriz, Iraitx Agirre arrasatearrak eroan zuen etxera.

DUELA 5 URTE

2007-02-05

Araztegia eraikitzen hasi

Epeleko araztegia egiteko lanak hasi zituzten Arrasaten Construcciones Especiales eta Dragados enpresak, Espainiako Gobernu Ingurumen Ministerioaren ardurapean. Hasiera baten aurrekusten zen 48 hilabeteren buruan amaitzea lanak, eta GI-627 errepidearen desbideraketa ekarri zuten lanek.

BERGARA

HERRITARRAK

Amaia Velez de Mendizabal Bergarako herribusa hartuz gero, ez da zaila izango gidaria bergarar hau izatea. Baina gidaria baino askoz gehiago da: ama, eta baita pastelgile amorratua ere. | TXOMIN MADINA

"Kalean lan egitea da autobus gidaria izatearen gauzarik onena"

Kasualitatez heldu zen egungo bere ogibidera 83ko uztako bergarar hau; herriko herribuseko gidarietako bat da. Azken hilabeteotan badu beste ardura bat: alabatxoa.

Noiztik eta nolatan autobus gidari?

Bost urte egingo ditut lan honetan. Nolatan hasi nintzen? Langabezian geratu nintzen, eta autoko gidabaimena ateratzen hasi nintzen... Horren segidan atera nituen autobusekoa eta kamioiokoa. Halabeharrez hasi nintzen, zerbait ikas-tearren, eta gustatu egin zitzaidan.

Gaztea eta emakumea; ez da autobus gidari baten ohiko irudia...

Ez dut uste horrela denik... Orain emakume asko daude autobus gidariak direnak. Egia da hasi nintzanean neu nintzela herri barruko autobus zerbitzuko lehenengo neska eta hasi nintzanean umemokoa nintzela; eta hasieran bai, harritzen zuen. Baina nik neuk ez dut ezer berezirik nabaritu.

Zer da zure lanbidearen onena?

Kalean lan egiten dudala, ez nagoela tailer baten sartuta denbora osoan. Jendearekin harremana izateko aukera ere badut, eta egia da Bergaran gidatzen dudala, ez dudala urrutira joan beharrik; alde horretatik, ez da estresagarria.

Beti ibilbide bera egiten duzu?

Bi linea daude; aste baten bat egiten dugu eta hurrengoan bestea, baina biak antzerakoak dira. Aspergarria? Niretzako ez; ez da gidatzea bakarrik, askotariko jendea igotzen da. Gustatzen zait nire lana, baina loteria tokatuz gero, hobeto!

Eta zer moduzko herria da Bergara autobusa gidatzeko?

Herria bera, ona. Kontua da auto asko egoten direla gaizki aparkatuta: leku guztietara joateko autoa hartzen dugu, eta gero ez da apar-



Amaia Velez de Mendizabal, gidatu ohi duen autobusetako baten. | TXOMIN MADINA

"Erabiltzaileekin dagoen tratua tratu familiar bihurtzen da azkenean"

"Pastelak eta horrelakoak egiteak asko erlaxatzen nau"

katzeko lekuri egoten. Baina ez da hainbesteko, ea mania hartu behar didaten! Batzuetan haserretzen gara, eta bestetan ez, baina tira...

Aipatu duzu jendearekin duzun hartu-emana dela zure lanaren alde-rik onenetakoa; nolakoa da hartu-eman hori?

Azkenean, tratu familiar bihurtzen da. Erabiltzaile gehienak, %80-%90, eguneroko erabiltzaileak dira, eta, azkenean, eurei buruz dena dakit: zenbat ume dituzten, zeinek dauden ezkontuta, non bizi diren... Batez ere, adineko jendeak erabiltzen du herri barruko autobusa, baina, herribusa jarri dene-tik, erabiltzaile mota zabaltzen joan da; umeak eta Boluko jendea, esaterako.

Urtea hastearrekin herribusa estreinatzen zenuten. Aldaketa handia izan da?

Oso ondo dago. Batetik, jende gehiago ari da animatzen auto-

buse erabiltzera. Bestetik, hainbat onura ere baditu: oso zarrak txikia ateratzen du, eta, hain da isila, semaforoetan badirudi gelditu egiten dela! Gainera, gasolinaren partez gasa erabiltzen denez, diru aldetik gastua erdia da, eta botatzen dituen partikulak kutsatuta ez daudenez, apenas kutsatzen du. Gidatzeko orduan ere erosoak dira: martxa automatikoa du, bergailua, estua da, eta horrek kale artean ibiltzea errazten du. Jendeak komentatzen du orain zerbitzua hobea dela.

Autobus gidaria bai, baina ama ere bazara duela ez askotik. Nola uztartzen dituzu biak?

Gu ondo konpondu gara, senarrak jardunaldi erdia hartu du-eta. Eskerrak horri: hark egiten ditu etxeko lanak eta hark zaintzen du umea. Pena ematen du umea uzteak, baina, behintzat, aitarekin. Gure kasua ohikoaren kon-

NIRE HERRIAN

MENDI ASKO DITU

Bergararik gehien gustatzen zaidana da mendi asko dituela; mendiz inguratuta dagoen herria da gurea. Ez dago urrutira joan beharrik, etxetik irten eta bertan dugu mendia, esku-eskura. Gainera, ez mendiak bakarrik; izan ere, azken finean, hondartzak oso gertu geratzen zaizkigu.

AHT-REN KALTEAK

Ni neu gidari lanetan ibiltzen naizela ikusita kontraesankorra iruditu ahal den arren, Abiadura Handiko Trenak eta era horretako gainerako azpiegitura handiek eragindako kalteak pena handia ematen didate. Mendi puntara igotzean dena apurtuta ikusteak sekulako pena ematen dit, ez zait batere gustatzen.

trakoa da; normalean, aita da lanean egoten dena eta ama etxean. Baina pozik gaude, sistemak ondo funtzionatzen du. Egia da, baina, goizeko txandan nagoanean gogorrago egiten zaidala; ostirala heldu orduko, leher eginda egoten naiz.

Eta bolante aurrean edo umearekin ez bada, zertan aurkituko zaitugu?

Asko gustatzen zait pastelak eta horrelakoak egitea. Aspaldi ez dut egin, baina tira... Joan den astean San Blas opila egiteko egon nintzen, baina alde guztietakoa jan nuen... Asko erlaxatzen nau, ordubetarako bada ere! Zertan naizen bereziki ona? Hori ez dizut nik esan behar! Eskiatzea ere oso gustuko dut; dena den, haurdunaldiarekin eta erditzearekin, bi urte daramatzat eskiatu gabe. Ea aurten edo datorren urtean ihesalditxoren bat egiten dugun...

HERRIAK

ESKORIATZA

Ziria eskuan, Urdelardero

- ▶ Eguenean, Aratusteen iragarle, Urdelardero eguna ospatuko dute Eskoriatzan
- ▶ Herriko neska-mutikoak ziria eskuan dutela ibiliko dira kalerik kale abesten

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Badatoz Aratustek; gain-gainean ditugu dagoeneko. Egun horietan printzesak, indiarrak, piratak eta pailazoak ikusiko ditugu gure artean; baita gaurkotasanari lotutako mozorroak ere. Eskoriatzan, baina, neska-mutikoek baseritar jantzita hasiko dituzte Aratustek; baseritar jantzi-ta eta ziri berezia, makila, sagarra eta txorizoaz osatutakoa eskuetan dutela. Baina nondik dator Urdelardero eguna? Zer esan gura du izen berezi horrek? Lehen berdin ospatzen zen?

Aspaldiko ohitura

Gipuzkoan, Eskoriatzan bakarrik ospatzen da Urdelardero eguna, baina Araban eta Nafarroan ere ospatzen dute zenbait tokitan, baita Errioxan, Katalunian, Andaluzian eta beste zenbait lekutan ere. Aspaldiko ohitura da, eta hitzaren beraren esanahia ere aspaldiko garaietan topatu dugu: *Lardero* hitza latinetik dator, eta *koipea* esan gura du. Egun hori ospatzen den garaia txerri-hilketa garaia da, eta jaiaren oinarria bera txerrikoa jatean datza. Ez da ahaztu behar Aratusteen ostean garizuma datorrela, eta garizumarekin batera haragia jan edo gehiegikeriak egiteko debekua.

Lehen, Eskoriatzako haurrak etxerik etxe ibiltzen ziren janari eske kantuan, eta jasotzen zuten janari hori eroan ahal izateko makila edo ziri bat erabiltzen zuten. Zenbait urtean utzita egon zen arren, duela 30 urte inguru berriz ere hasi ziren Urdelardero ospatzen. Aldaketekin, hori bai: orain, haurrek aurrez eroaten dute ziria beteta, sagar batekin eta txorizo zati batekin.



Neska-mutikoek ziria etxetik eroaten dute beteta; goxokiak botatzen dizkiete abestearen truke. | GOIENA

DATUA

300

UME

Herriko ikastetxeetako 2 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoak irtengo dira kalera Urdelardero egunean.

Kalerik kale abesten

Aldatu ez dena goizean zehar herriko kaleetan abesten irteteko ohitura da, eta horrelaxe egingo dute hurrengo egunean ere. Ziria eskuetan dutela, 300 neska-mutiko inguru ibiliko dira Urdelardero eguneko kantu eza-

guna abesten: *Urdelardero/ urdaixa jan ta garbaixa gero/ hor goian iturri bat/ haren gainean txoria/ ura pil-pil etorri/ etxeko andre zabala/ etxe honeko alaba.*

Abesten ibiltzeak, gainera, izango du saririk, ohitura bihurtu da-eta etxeetatik goxokiak botatzea umeei. Behin kalejira amaitutakoan, Herriko Plazan elkartuko dira guztiak, eta, indarrak berreskuratzeke, ikastetxetako gurasoek prestatutako txistorra jango dute. Eguraldi txarra eginez gero, neska-mutikoak ez dira kaleetan ibiliko. Hatzak gurutzatzea komeni, beraz.

Egunari amaiera emateko, etxeko txikitxoendako Hipo eta Tomax pailazoen ikuskizuna egingo da kiroldegian eta ondoren txokolatea banatuko dute.

Aratusteetako zapateria

Urdelardero eguna Aratusteetako egun nagusiaren, Eskoriatzaren kasuan zapatuaren, atarikoia izaten da. Aurten, gainera, zapatuan hainbat berrikuntza egingo dira. Hala, Udaletik esan digutenez, apustu handia egin dute Aratusteei begira, eta mozorroen lehiaketako sarietan, esaterako, banatuko den diru kopuruak ia bikoiztu egingo du iaizkoa: 800 euro banatu beharrean, 1.500 euro banatuko dituzte.

Herri bazkariak ere ez du hutsik egingo aurten, baina, Udaletik esan dutenez, aurreko bi urteetako *catering*-ak utzitako zapate txarra ahazteko beste enpresa bati eskatu diote aurten bazkaria prestatzea. Eta hirugarren berrikuntza bat ere izango da zapatuan: aurreko urteetan

ARATUSTEAK ESKORIATZAN
OTSAILAK 16
EGUENA
10:30 Umen kalejira.

11:30 Txistor-jana.

17:00 Hipo eta Tomax pailazoak kiroldegian.

18:30 Txokolatea plazan.

OTSAILAK 18
ZAPATUA
13:00 Egan taldea plazan.

13:00 Trikitlarien kalejira.

14:30 Herri bazkaria frontoian.

16:00 Zezentxo eta poneyak Luis Ezeizan.

17:30 Mozorroen desfilea.

18:30-21:30 Egan taldea plazan. Biltartean, sari banaketa egingo da.


OTSAILAK 21
MARTITZENA
10:30 Umeen jaialdia plazan eta ondoren txistor-jana.

17:15 Kukumarroak.

18:00 Mikel Egiluz DJa plazan.

mozorroen desfilea motz geratzen zela eta, aurten ibilbide luzeagoa egingo dute.

Eta martitzenean umeak izango dira berriro protagonistak: goizean jaialdia izango dute eta arratsaldean kukumarroen bisita izango dute.


IparProject

www.iparproject.com
info@iparproject.com

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak


BERGARA

Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44


AZPEITIA

Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

Postuz beteta egongo da Seber Altubeko azoka bihar, zapatua

Aratusteak direla-eta, oraingo zapatua aurreratu dute berez hurrengoan tokatzen zen azoka

UBANE MADERA | ARRASATE

Ezohiko eguna izan arren, azokaren hitzordua, hori bai, betiko bera izango da: 09:00etatik 14:00ak arte. Eta izango da zer ikusi eta zer erosi, 15 bat saltoki eta stand etorriko dira-eta, baita berriak ere.

Errioxako olioia eta beste

Berri horien artean, Errioxatik olioia ekarriko dute, sagardo ekologikoa iritsiko da Aramaioko Ozetatik, ogia Aretxabaletatik, ardoa Villabuenatik (Eskuernaga, Araba) eta, "arbolak sartzeko sasoia denez, lau arbola mintegi etorriko dira koniferekin, fruta arbolekin...", jakinarazi du Marga Garmendiak, udal teknikariak.

Horiekin batera, jakina, baserritarrek hartuko dute protagonismoa.

Otarrea BAZen ikusgai

Bestelako saltokien artean, berriz, sukaldarako egurrezko tresnaduna izango da Seberren, eta baita pintxo postua ere, Jesus Romeroren eskutik: "Erosketa bakoitzeko sasoiko produktuekin egindako pintxo hartzeko balea ematen segituko du, harrera ona izaten du-eta horrek. Eta azokaren amaieran, otarrea zozkatuko dugu parte hartu dutenen artean. Gainera, aurrerantzean otarre hori Biztanleen Arreta Zerbitzuan ipiniko dugu ikusgai", jakinarazi du Garmendia teknikariak.

Azoka biziberritzeko plana

Bagara Herrigintzak azoka biziberritzeko lantzen diharduen egitasmoa aurkeztuko du biharko azokan. Etorkizunean azokak izan ditzakeen esparruak irudikatzen hainbat elkarte eta eragile gonbidatu dituzte: Harreman gobernuz kanpoko erakundea, gaztetxea, Emaus Sin-Desperdicio proiektuarekin, Jakion bailarako kalitatezko kontserba naturalen ekoizlea, Amaia Albes diseinatzailea, aisialdia eta jolasa lantzeko Txatxilipurdi elkarte izango da (umeendako talo postuak eta hazi tailerra egingo dute) eta zuzeneko musika eskainiko du Andoain-Kubako La Jodedera taldeak. Horiekin batera, udal ordezkariak ere izango dira, Arrasateko Udala ere buru-belarri dabil-eta azoka biziberritzeko egitasmoa lantzen.

Egitasmoa azaltzeko informazio postua ipiniko dute. "Ideia gaur egungo azokaren egoera ikusita irten zen. Horrez gain, uztartu gura dugu kontsumitzeko eta aisialdiaz gozatzeko beste modu batzuk ere badaudela. Uste dugu azokaren lehen ardatza baserritarrak eta gaur egungo saltzaileak direla, eta, hori oinarri, herritarrei beste modu batean kontsumitzeko aukerak zabaltu gura dizkiegu", adierazi du Nagore Iraolak, Bagarako kideak.

Hobera egin eta gela arruntera pasa dute martitzenean autoak harrapatu zuen mutikoa

Azken ordukoaren arabera (eguna), Donostiako Ospitalean segitzen du, baina dagoeneko gela arruntera igo dute autoak harrapatu zuen 8 urteko mutikoa. Otolara Lizentziaduna kalean gertatu zen ezbeharrak, Uarkape parean, martitzen iluntzean. Traumatismo ugariarekin ospitaleratu zuten umea. Udaltzaingoak esan duenez, alkoholaren eta drogen probak egin zizkieten gidariari eta bietan negatiboa eman zuen. Lekukoaren arabera, berriz, umeak bi zehrabideren artean gurutzatu zuen errepeidea.



Gurasoa umea uzten, ikastetxe aurrean, Gazteluondon. Halakoak ezin izango dira egin aurrerantzean. | U.M.

Alde zaharrean zirkulatzeko ordutegi berria onartu arren, oraindik ez dute aplikatuko

Garaje-jabeendako giltzak banatu eta xehetasunak lotu arte ez dute aplikatuko

UBANE MADERA | ARRASATE

Udalerriko alde zaharrean autoz ibiltzeko ordutegia aldatu egingo du Arrasateko Udalak. Oraingo astean onartu du berria Udala Gobernuak. Labur esanda, zamalanak egiteko ordutegian bakarrik zabalduko dituzte alde zaharreko kaleak.

Gune gehiagotan

Ordutegi hori orain arteko oinezkoen gune guztietan aplikatzeaz gainera, alde zaharreko gune berri batzuetara ere zabalduko da: Gazteluondo-Olarte (goiko aldea) eta Mitarte guneetara.

Udalaren helburua da gune horiei ere alde zaharreko gainontzekoek duten izaera ematea. Bestela esanda, oinezkoen lehentasuna izango duten gune bilakatu gura dituzte.

Hain justu ere, Gazteluondo eta Olarte kalearen goiko aldearen kasuan, dagoeneko pibotea gertu dago Gazteluondo kale hasieran, kale horretan ibilgailuen joan-etorria mugatzeko.

Oraindik ez dute aplikatuko

Edozelan ere, oraindik ez dute aplikatuko ordutegi berria. Izan ere, zirkulazioa mugatzen duten kasuetan bertako garajeen jabeak, larrialdietakoak eta bestelako zerbitzuei (Arizmendi Ikastolako langileei, Gazteluondo-Olarte gunearen kasuan) pibotea zabalteko giltzak banatzen dizkiete.

Bada, Udaletik azpimarratu dute hori eta bestelako xehetasun guztiak lotu arte ez dutela ordutegi berririk aplikatuko.

Ordutegi orokorra

Kontuak kontu, alde zaharreko zirkulazioaren ordutegia aldatu, eta orokorrean honakoa aplikatuko dute: astelehenean egubakoitzera, 09:15ean zabalduko dute eta 12:00etan, itxi. Arratsaldean, astean behin zabalduko dute: martitzenetan 19:30etik 21:00ak arte. Gainontzeko egunetan ibilgailuek ezin izango dute zirkulatu arratsaldean.

Bestalde, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan itxita izango da.

Gazteluondo-Olarte guneak (goiko aldea), berriz, goizez orokorraren ordutegi bera izango du, baina arratsaldean sarriago zabalduko dute: astelehenean, martitzen, eguztaren eta domeketan, 19:30etik 21:00ak arte.

Eta San Frantzisko-Olarte (beheko aldea) guneari dagokionez, Zerkaostetaren ordutegi berezia aplikatuko diote: goizez astelehenean zapatua 07:30ean-12:00ak arte zabalduko dute eta arratsaldean, martitzenetan zabalduko dute, 19:30etik 21:00ak arte.

Ordutegi kanpoko aparkatzeak

Zirkulazioaz gainera, aparkatze kontuak ere zaindu gura dituzte alde zaharrean. Kasu horretan, ezin izango da aparkatu Iturriotz, Erdiko, Ferrerías, Maala, San Frantzisko eta Olarte (beheko aldea), Zerkaosteta (beheko aldea) eta Mitarte kaleetan. Gazteluondon eta Olarteko goiko aldean, berriz, markatuta dauden guneetan aparkatu ahal da.

ZIRKULAZIOAREN ORDUTEGIA

AUTOENDAKO ERABILERA BAIMENDUA, OROKORRA.

Goizez

Astelehenean egubakoitzera:

► Zabaldu: 09:15.

► Itxi: 12:00.

Zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, itxita.

Arratsaldean

Asteartetan:

► Zabaldu: 19:30.

► Itxi: 21:00.

Gainontzekoetan, itxita.

APARKATZEA ORDUZ KANPO

Galarazita

Iturriotz, Erdiko eta Ferrerías kaleetan, Maalako Errabalean, San Frantzisko eta Olarteko beheko aldean eta Zerkaosteta (beheko aldea) eta Mitarte kaleetan.

Markatutako lekuetan

Gazteluondon eta Olarte kalearen goiko aldean bakarrik aparkatu ahal izango da markatuta dauden aparkalekuetan.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Dorleta Martinez | Hematologoa

"Wi-fi eta mugikorren uhinek kantzerra eragin dezakete"

- ▶ Elikadurak osasunarekin duen harremana aztertzen dihardute Arrasaten
- ▶ Gaixotasun asko ingurumenarekin lotuta daudela adierazi dute

UBANE MADERA | ARRASATE

Osasunak elikaduran duen eraginak gero eta kezka handiagoa eragiten du herritarrengan. Horren erakusle da Dorleta Martinez hematologoa (Arrasate, 1963) Arrasaten egiten diharduen hitzaldietan parte hartzen duen jendetza. Hitzaldiak Kulturateko areto nagusitik Amaia Udal Antzokira pasa behar izan dituzte. Asteon fibromialgiari buruz jardun du, eta ehunka lagun izan da bertan. Martxoan (7an, 18:30ean) da azken hitzordua. Elikaduraren eta minbiziaren arteko harremana landuko ditu orduan.

Hortaz, minbizia eta elikadura lotuta daude?

Gaur egungo gaixotasun gehienak elikadura txarraren ondorio dira. Adibidez, diabetesa, bihotzekoak, gaixotasun kardiobaskularrak, kantzerra, alzheimerra, parkinsona... horiek guztiak elikadurarekin daude lotuta, baita kutsaduraren bitartez hartzen gabiltzan toxiko guztiak. Arazoa ez da eztabaidatzea esnea ona den edo ez, baizik eta jakin beharko genuke zer den supermerkatuan saltzen duten hori. Ze berez esnea oso ona baita, baina mendian dabilen behi batena. Tetra-brikean saltzen duten hori ez da esnea, eta hobe ez hartzeara. Jakien desnaturalizazioa da gaur egun ditugun gaixotasun askoren iturria.

Hala, elikadura zainduta gaixotasun asko saihestuko genituzke?

Bai. Kantzer mota asko saihestu ahal izango genituzke. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) esan du kantzerra eragiten duten arrazoen %80 ingurumen arrazoiak direla: zelan elikatzen garen jakin desnaturalizatu eta airearekin, urarekin eta abarrekin hartzen ditugun toxiko guztiak. **Zail samarra izango da, baina, hori guztia saihestea...**

Bai, baina aldatzen hasi behar dugu. Onkologoak urte askoan ibili dira esaten ez dagoela kantzer gehiago, bizi iraupena handitu egin dela edo gehiago diagnostikatzen direla. 2004an, berriz, OMEk



Dorleta Martinez. | U.M.

"Zientzialari batzuek esan dute buruko tumoreak %2.000 handituko direla"

onartu zuen kantzer kasu gehiago daudela. Kezkarriena, gainera, da kantzerra gehien handitu den esparrua ume eta nerabeena dela.

Aldiz, ematen du umeak eta nerabeak hobeto elikatzen direla, ez?

Ez, oso gaizki elikatuta daude. Elikagai desnaturalizatuarekin elikatuta daude: ogi zuria, findutako zerealak, gehigarri mordoa duten litxarreriekin... Nagusiagoak garenok hasierako urteetan ondo elikatu ginen; guk ezagutu genuen, adibidez, behietatik zuzenean etorritako esnea edatea zer den. Umeek, berriz, ez dakite zer den behi-esnea, tetra-brika bakarrik ezagutzen dute.

Baina, adibidez, altuagoak dira...

Bai. Esnea txahalendako da eta txahalek lehen urtean asko hazi behar dute; eta umeek asko hartzen dutenez, asko hazten dira.

Bizi-esperantza handitu egin da...

Bai, baina ikusi behar dena da zein osasun egoeratan iristen

garen. Telebistan aurrekoan komentatzen zuten Espainian bizi-esperantza osasuntsua dela 32 urtera artekoa gizezkoendako eta 27 urtera artekoa emakumezkoendako. Hau da, gizek batez beste 32 urterekin eta emakumeek 27 urterekin dagoeneko gaixotasun kronikoak dituzte.

Kantzerrarena horren deigarria da?

Kantzerra mende hasieran ia ez zen existitzen, are gutxiago umeengan. II. Mundu Gerrarekin batera handitzen hasi zen, produktu toxikoen produkzioaren eta jakien desnaturalizazioaren eraginez, eta 1975ean izugarri handitu zen. Linfomak, adibidez, azken 50 urteotan %250 handitu dira. Prostata, melanoma edo tiroideetako kantzerrak ere %200 bat hazi dira. Une honetan, titietako, biriketako, buruko, azaleko eta linfomako kantzerraren epidemia dago, OME-ren definizioen arabera. Oso-oso kezkarria da. Esaterako, erradiazio elektromagnetikoen eraginez, wi-fi, mugikor eta halakoen eraginez, zenbait zientzialarik esan dute buruko tumoreak %2.000 handituko direla; buruko tumoreen epidemia izango da.

Baina hori demostratuta dago?

OMEk iaz esan zuen mugikorren eta wi-fien uhinek litekeena dela minbizia sortzea. Eta zenbat jende hil behar du zientifikoki demostratzeko? Bada beste aukera bat: aurretik neurriak hartzeko printzipioa. Wi-fia, adibidez, ez da beharrezkoa, kable bidezko konexioa dugulako. Are gehiago, Ingalaterra, Alemania, Frantzia, Austria eta Suitzak esan dute berehala aldatu behar dela wi-fi sistema kable bidezkoarengatik leku publiko guztietan. Europako Batzordeak iaz esan zuen gutxitu egin behar dela wi-fi uhinekiko esposizioa, bereziki umeena, eta hortik aurrera, Frantzian, adibidez, eskola, liburutegi eta leku publikoetatik kentzen dabilta. Oso gai larria da. Horrez gainera, interes handiak daude halako gauzak ez esateko.



Jose Maria Gomez eta Fernando Cristobal ginekologoak.

Ginekologiako behar berriei aurre egiteko zentro medikoa: Edersalud

38 urtean Arrasaten ginekologia alorrean zerbitzua eskaini duen Consultorio Ginecologikok zentro berria zabaldu du, Nafarroa etorbidean: Edersalud. Zerbitzu osoa eskaini gura dute.

Consultorio Ginecologikok handitzea behar zuela eta, zerbitzu berriak sortu dituzte: kirurgia orokorra, dietetika eta gernu-inkontinentzia. Hori dela eta, Edersalud izeneko osasun zentroa sortu eta instalazio berriak estreinatu dituzte. "Ginekologia oso arlo konplexua bilakatu da. Bikoteek, adibidez, laguntza eskatzen dute antzutasun arazoendako; era berean, seme-alaba osasuntsuak gura dituzte. Hori dela eta, jaio aurreko diagnostikoa eskaintzen duen zerbitzua sortu dugu", adierazi du Fernando Cristobalek, Edersalud zentroko ginekologo-buruak.

INKONTINENTZIA

Cristobalek gaineratu du oraingo beste kezketako bat dela baldintza gizatiarretan erditu gura izatea, epidurala eta halako zerbitzuen erabilerarekin. "Baina, gainera, emakumeak erditu baino lehenagoko egoerara buel-

tatu gura du, gernu-inkontinentzia moduko ondorioak jasan behar barik", azaldu du mediku ezagunak.

BESTELAKO KEZKAK

Gaur egungo bestelako behar batzuk asetzeko egokituta daudela ere nabarmendu du Cristobalek, esaterako patologia berriei aurre egitea ezinbesteko ikusi dutela: "Kezka handien eragiten dutenak Giza Papilomaren Birusa, titietako kantzerra eta uteroko kantzerra dira".

Bada, esandako kezka, patologia eta bestelako behar guztiei aurre egiteko material eta pertsonal kualifikatuena-ekin dihardute lanean Nafarroa etorbidean, urtetan Arrasaten ematen ibili diren zerbitzu ginekologiko osatu eta gaurkotuz. "Ni orain 38 urte hasi nintzen Arrasaten lanean. Hona etorri nintzenez ginekologiaren gaineko jakin beharreko guztia nekien. Orain hori ezinezkoa da eta diziplina anitzeko zerbitzuetan lan egitea derrigorrezkoa da".

Zirugia orokorra, dietetika eta gernu-inkontinentziari aurre egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu Edersalud zentroak



Txomin Murgiondo ginekologoa mamografiak ikusten.

OHARRAK

DANBORRADAREN GAINKO DVD-A SALGAI

Danborradaren 50. urteurrena gogora ekartzeko San Juanetan egindako DVDa salgai ipini du SUDC elkarteak. Interesa duenak martitzenean edo eguenean eskura dezake elkartearen lokalean, 18:00etatik 20:00ak arte. Prezioa da zortzi euro. 50 urte 50 gau eder izenburuarekin 1961etik 2011ra bitarteko danborradaren gainekoak batzen ditu DVDak.

ERDIGUNEKO GAZTEGUNA 21:00AK ARTE, BARIKUTAN

Egubakoitzetan ordutegia luzatu eta 21:00ak arte izango da zabalik Erdiguneko Gazteguna. Hori horrela, egubakoitzetan 18:00-21:00ak arteko ordutegia izango du; zapa-tuetan 17:00etatik 21:00ak artekoa eta domeketan 16:30etik 20:30ak arte. Gainontzeko gaztetxokoei dagokienez, 17:00etatik 20:00ak arte zabalduko dituzte ateak Musakolan, Erguinen eta San Andresen.

ANGULAK ETA BISIGUAK

AGT Pilota Taldeak jakinarazi du zeintzuk diren angula kiloaren eta bixigu biren zozketaren zenbaki irabazleak, honako hauek hain justu: angulena, 1326. zenbakia, eta bisigu birena 3269. zenbakia. Bietako txartelen bat izanez gero, Uarkapetik pasa behar da 19:00etatik 20:00ak arte; edo bestela, mezua idatzi honako helbide honetara: arrasate.pilota@gmail.com.

Behin-behineko batzorde berria ahaleginduko da Mondra zuzentzen

Mondrak ia 80.000 euroko zorra duela erakutsi du auditoriak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondrak ezohiko batzar orokorra egin zuen martitzenean, eta taldearen etorkizunari begira batzar emankorra izan zen. Presidente moduan egin dituen bi urte eta erdian kudeaketa onena egin ez duela onartuta, Patxi de Andres presidentek gutun bidez aurkeztu zuen dimisioa –ez zen batzarrean egon–, eta azken bi hilabeteotan klubeko auditoria egiten ibili diren batzordeko kideek "kaotikotzat" jo zuten arlo ekonomikoan kluba kudeatu den modua. Hala, batzordeko ordezkariak erakutsitako zifrak ez datoz bat abenduan De Andresen erakutsitakoekin; orduan Mondrako presidentek adierazi zuen Mondrak 36.212 euro zor zituela; auditoriaren arabera, zorra ia 80.000 euro da (79.861).

Ia bi orduko batzarra

Ia bi orduko batzarrean hainbat erabaki hartu zituzten Kulturaten batu ziren bazkideek. Mondrako kontuak erreparatzeko abenduan sortu zen batzordeak gogotik egin



Gallastegik, Lorenzok eta Urangak erreparatu dituzte Mondrako kontuak. | XU.

du lan azken bi hilabeteotan, eta batzarrean, Fernando Urangak, Ainhoa Gallastegik eta Lorenzo Gonzalezek hartu zuten auditoriak eman dituen zifrak azaltzeko ardura (abenduan 5era arteko kontaketa da). Hirukoak azaldu zuten auditoria egiteko presidentek berak emandako datuak erabili dituztela, baina adierazi zuten, bestalde, arratsaldean ber-

ESANAK

"Oso kudeaketa ekonomiko txarra dago honen atzean"

FERNANDO URANGA | BATZORDEKO KIDEA

tan presidentearen eskutik datu gehiago jaso zituztela, azken orduan.

Zifra dantza handia egon zen batzarrean; auditorian azaldutako zifrak abenduan presidentek erakutsitakoekin alderatu zituzten, eta zorra uste baino 43.648 euro handiagoa da. Alde handia AUKEAtik jaso ez den diru kopuruan dago (21.428 euro), eta abenduan presidentek ez zuen horren berri eman. Horrekin batera, Mondrak zorra du, esaterako, Araba garraio enpresarekin (25.656), Athlon enpresarekin (1.576), Astorerekin (8.999) eta baita klubeko hainbat entrenatzaileekin ere (12.200). Zor horiei dagokienez, arlo batzuetan kudeaketa txarraren ondorioa da, eta beste batzuetan utzikeria. Esaterako, AUKEAren zuloaren kasuan, AUKEA diru kopuru bat kobratzen dio klubari bertako jokalariek Mojategiko instalazioak erabil ditzaten, eta, aldi berean, klubeko ordezkari kopuruaren arabera (jokalaria, entrenatzaile...) dirulaguntza bat ematen dio AUKEA Mondrari –eta gainontzeko kirol klubei-. Bada, Mondrak ez zituen aurkeztu diru-laguntza hori jasotzeko beharrezkoak diren dokumentuak, eta hortik dator zuloa.

Mondrako arlo ekonomiko erreparatzen ibili den lan-taldeak nahasmen galanta aurkitu du: "Espero dugu datozen hilabeteotan zor gehiagorik ez azaltzea". Alde horretatik, hainbat bazkide De Andresen gainean gaizki esaka hasi zirenean, batzordeko ordezkariak garbi egin zuten berba: "Guk ez dugu uste Mondraren kontura inor abersten ahalegindu denik; beste barik, kudeaketa txarra egin da".

Behin-behineko batzordea

Batzarrean hurrengo pausoa aurrera zelan egin erabakitzea izan zen. Zuzendaritza talde ezberdinetan egondako lagun batzuek euren burua aurkeztu zuten behin-behineko klubaren ardura hartzeko, eta gestio plan bat osatzeko [ez da zuzendaritza talde bat izango]. Bazkideek onartu egin zuten proposamen hori; gainera, batzorde berriak bazkideen babesa jaso zuen etor daitezkeen sorpresen aurrean "bestelako neurri batzuk hartu ahal izateko". Hauek osatuko dute batzordea: Lorenzo Gonzalez (auditoria egiteaz arduratu da), Fernando Uranga (lehenengo zuzendaritzako kidea), Fernando Laspiur, Ramon Azkarate (Gipuzkoako Federazioko ordezkaria), Jesus Mari Heriz, Jose Luis Ezkurra (Mondrako presidente ohia), Jesus Mari Iregi, Roberto Zazo, Bittor Arriaran, Enrique Loiti eta Ander Garai.

ZALDIBAR

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dribling	25	10
2 McAwen	24	11
3 Iriztu	22	10
4 Dublin	22	11
5 Sonografos	21	10
6 Abokajarro	21	10
7 Aldatz	20	10
8 AT Betrayer	19	11
9 Lasagabaster	14	11
10 Fidel&Discipulos	12	10
11 Iluntz	9	10
12 Iluna	9	10
13 Ekaitz	4	10
14 Aston Birra	3	10
15 Portaboleiros 2.0	0	10

PARTIDUAK

OTSAILAK 11, ZAPATUA

09:30 Portaboleiros-Sonografos / AT Betra.

10:30 Aldatz-AT Betrayer / Sonografos

11:30 Lasagabaster-Iluntz / Aldatz

12:30 Fidel & Disci-Aston Birra / Lasagaba.

13:30 Iriztu-Iluna / Fidel & Discipulos

15:30 Dublin-Ekaitz / Abokajarro

16:30 Abokajarro-Dribling / Ekaitz

OTSAILAK 12, DOMEKA

10:30 Fidel & Disci-Iriztu / Iluntz

11:30 Iluna-Iluntz / Iriztu

12:30 Sonografos-Abokajarro / Iluna

13:30 Lasagabaster-McAwen / Sonogra.

14:30 Ekaitz-Portaboleiros / McAwen.

15:30 Dribling-Aston Birra / Portaboleiro.

16:30 Dublin-Aldatz / Dribling

Jardunaldi bikoitza jokatu dute asteburuan

Joan den asteburuan bota zuen elurtea tarteko, antolatzaileek erabaki zuten bertan behera uztea hamabigarren jardunaldia. Hala, oraingo asteburuan taldeek lan bikoitza izango dute, bi jardunaldi jokatu beharko dituzte-eta jarraian.

Joan den astean McAwen taldeak atsedena zuenez, partidu bakarra jokatu du, domekan, 13:30ean, Lasagabasterren kontra. Hala ere, salbuespena izango da, gainontzekoek lau puntu izango dituzte-eta jokoan. Hori bai, inork ez ditu egun berean bi partidu jokatu. Eta, bestalde, domekan amaituko da hurrengo jardunaldian ordu aldatuta eskatzeko epea.

Arrasate Errugbi Taldeak Santanderren jokatu du

CRS taldearen zelaira, Santanderrera, joango dira Kanpanzar Arrasate Errugbi Taldeko mutilak domekan (12:00). Gazte eta kadete mailakoek, berriz, atsedena izango dute. Infantil mailako eskolarrek Ordizian jokatu dute domekan (10:30) eta alebinek eta benjaminek, Heranin (10:30ean).

CITROËNen RENOVE PLANA

Zure auto zaharraren truke
3.000
euro arteko etekina atera.

CITROËN C3

- CONNECTING BOX (BLUETOOTH, USB ETA AUDIO-HARTUNEA)
- AIRE-GIROGAILU ERREGULAGARRI AUTOMATIKOA
- ZENITH HAIZETAKOAK
- NABIGATZAILEA 7"-KO KOLOREDUN PANTAILAREKIN
- E-HDI MOTORRAK TEKNOLOGIA MIKRO-HIBRIDOAREKIN

CITROËN C4 PICASSO

- CITROËN E-TOUCH (LARRIALDI DEI AUTOMATIKOA GPS LOKALIZATZAILEAREKIN)
- CORNERING LIGHT
- AURREALDEKO ESERLEKUAK DOIKUNTZA ELEKTRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN.
- ABIADURAREN MUGATZAILE ETA ERREGULATZAILE PROGRAMAGARRIA
- ANGELU HILA ZAINTEKO SISTEMA
- E-HDI MOTORRAK TEKNOLOGIA MIKRO-HIBRIDOAREKIN

CITROËN C4

- CITROËN E-TOUCH (LARRIALDI DEI AUTOMATIKOA GPS LOKALIZATZAILEAREKIN)
- CORNERING LIGHT
- AURREALDEKO ESERLEKUAK DOIKUNTZA ELEKTRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN.
- ABIADURAREN MUGATZAILE ETA ERREGULATZAILE PROGRAMAGARRIA
- ANGELU HILA ZAINTEKO SISTEMA
- E-HDI MOTORRAK TEKNOLOGIA MIKRO-HIBRIDOAREKIN

Hemen gaude:

CITROËNek nahiago du TOTAL

Horrelako Renove Plan bat ez da egunero ikusten. Teknologia onena batzen duten hiru modelo: Citroën C3 Visiodrive, Zenith haizetakoekin, bere kategoriako handiena; Citroën C4 berria, e-HDI motorrak teknologia mikro-hibridoarekin eta Stop&Start sistemarekin; eta Citroën C4 Picasso Visiospace monobolumena, beirako sabaiarekin, kanpoaldea barnean sentiarazteko. Orain, zure ametsak egia bihurtzea gutxiago kostatuko zaizu.

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO2 IGORPENA (G/KM): CITROËN C3: 3,4-6,6 / 87-153. CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148, CITROËN C4 PICASSO: 4,8-7,0 / 125-177

* Deskontua autoen salneurriarekiko, modeloen arabera (otsailan gomendatua), zergak barne, trukean beste auto bat utzita –gutxienez 3 hilabeteko jabetzarekin– eta Banque PSA Financeren bidez gutxienez 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko (Citroën C4 eta Citroën C4 Picasso autoentzat) eta 48 hilabeteko (Citroën C3) finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako. Hilabetea amaitu arte, eskaintza dagoen salmenta-puntuetan. Eskaintza ez da bateragarria. Baldintzak www.citroen.es webgunean kontsultatu. Bertsioen araberrako ekipamendua.C4 Exclusive.

TALLERES CHAPIME, S.C.L. San Andrés Auzoa 5 • ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22 • Fax: 943 77 10 47

Ainara Sarasketa | Batukada feminista tailerraren irakaslea

"Batukada tailerreen hasieratik hasiko gara tresnak jotzen"

- ▶ Batukada feminista tailerra antolatu dute martxotik ekainera bitartean
- ▶ Musika edo perkusio maila berezirik ez da izan behar, gogoia bakarrik

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Beste tailer bat jarriko dute abian martxoan: batukada feminista tailerra. Ikastaroa 30 ordukoa izango da eta Emakume Txokoan egingo dute. Ainara Sarasketa ibiliko da irakasle, eta, hain zuzen, tailer horren nondik norakoak azaldu dizkigu datozen leerroetan.

Nolatan irten da tailerra egiteko ideia?

Jabetza Eskolatik beste hainbat herritan egin izan dute batukada ikastarorik, eta interesgarria iruditzen zitzaigun Arrasaten ere horrelako zerbait eskaintzea.

Nori dago zuzenduta?

Edozein emakumeri. Ez dago zertan musika edo perkusio maila berezirik izan; ikasteko eta ondo pasatzeko gogoia besterik ez. Hasieratik hasiko gara, talde-lanean, tresnak ezagutu eta probatuz ikasten joango gara.

Noiz hasiko da ikastaroa?

Martxoaren 3an hasiko da, Emakume Txokoan. Otsailaren 18an hasteko asmoa genuen, baina, Arrasaten Aratusteak direnez,



Ainara Sarasketa perkusio-jole amorratua da. | AINARA SARASKETA

atzeratzea pentsatu dugu. Hasierako saio hori beste egunen batean erreperatzea da asmoa. Ikastaroaren iraupena 30 ordu da; hain justu ere, hamar saio honako egunotan: martxoaren 3an, 17an eta 31n; apirilaren 21ean;

maiatzaren 5ean eta 19an, eta ekainaren 2an, 16an eta 23an. Azken egun horretan, sanjuantetan, jendea animatzen bada, ikastakoa kalera ateratzeko asmoa dugu, batukada taldearekin kale-jiratxo bat eginda.

Zu ibiliko zara irakasle lanetan...

Bai, Arantxa Vicedorekin batera. Arantxa musikari eta konpositorea da eta Sabur taldeko abeslari eta gitarra-jolea. Horretaz aparte, Donostiako Taupada batukada taldean dabil tresna ezberdinak jotzen, baita gidaritzalanean ere. Ni perkusio-jole edo zale amorratua naiz... aspaldi hasi nintzen perkusio afrikarra ikasten, eta gero, batukadan sartu nintzen, orain bateriarekin ere ari naiz... Pare bat urte eman nituen Donostiako La Tribu taldean eta azkenaldian Azkoitiko BoTaPa taldean jotzen dut.

Nolakoak izango dira eskolak?

Praktikoak. Hasieratik hasiko gara tresnak ezagutzen eta jotzen, erritmoak osatzen. Lehenengo egunean sarreratxo bat egingo dugu. Asmoa talde-lanean ikastea da, tresna bakoitzak duen garrantziaz eta taldearen osotasunaz jabetzea, elkar entzunez. Bizpahiru erritmo ikasiko ditugu, baita erritmoek dituzten korteak ere. Horrez gain, ikastaroan parte hartzen dugunon artean beste erritmo berri bat sortzen saiatuko gara.

Interesatuak nora jo behar dute?

Izena Emakume Txokoan eman behar da, inprimaki bat betez. Astelehenetik eguenera dago hori zabalik, 11:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; eta egubakoitzean, 10:00etatik 14:00etara. Bestalde, 943 79 41 39 telefono zenbakira deitzea edo emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net helbidera idaztea ere badago.


Goikobaluk 20 urteko ibilbideko lana aurkeztuko du gaur

Goikobalu abesbatzako kideek 20 urtez kantuan izeneko DVD-CDa kaleratu zuten urte hasieran, eta asteon aurkezpen ofiziala egingo dute. Gaur, egubakoitza, izango da hori, 19:00etan, Kulturaten.

Artemanek egin du DVDA eta lau atal ditu: bideoklipa, Goikobaluren historia, Santiago bidea eta argazki galeria. Diskoak, ostera, 20 abesti ditu, denak euskaraz abestuak, eta Goikobaluk egin du grabazio-lan hori. Kantuak Bedoñako elizan grabatu zituzten.

Askotariko ikastaroak eskaintzen dituzte gaztetxean

Arrasateko gaztetxean eguero egiten dituzten ikastaroetan izena eman daiteke. Astelehenetan, djembe eta zirku eskolak egiten dituzte, 19:00etan; eta martitzenetan, euskal dantzak, ordu berean. Eguazteneko eskaintza hirukoitza da: 18:00etatik 20:00etara eskalada dago eta 19:00etan, berriz, soinu teknikari eta gomaespuma tailerrak. Azkenik, egubakoitzean, 17:00etan alboka eta 21:00etan bertso eskola dute. Debalde dira ikastaro guztiak.



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

EAJri "oposizio destruktiboa" egitea leporatu dio ezker abertzaleak

- ▶ EAJk "iraingarrizat" jo dituen pankartak baimentzearen alkatearen dimisioa eskatu zuten
- ▶ Konponbide prozesuan inplikatzeko eskatu dio ezker abertzaleak EAJri

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko asteleheneko osoko bilkuran EAJren kontra hiru gaztek erakutsitako pankartek *-EAJ diruzaliak, EH ez dago salgai eta EAJ txikitzaile* zioten- ika mika eragin du Bilduko zinegotzien eta jeltzaleen artean. EAJk Jesus Elortza alkatearen jarrera gogor kritikatu zuen: "Ez luke karguan jarraitu behar horrelako gertakariak onartzen baditu", adierazi zuen Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak. Gipuzkoako hainbat azpiegituratako lanak geldiaraztea eskatzen zuen mozioa eztabaidatzen ari zirela, erakutsi zituzten pankartok. EAJk iraingarrizat jo zituen parkarok.

"Oposizioa destruktiboa"

Orain, Bergarako Ezker Abertzalearen erantzuna etorri da: "EAJ oposizio destruktiboa egiten ari da. Bergaran eta Euskal Herrian bizi dugun krisi egoera larriak guztion arteko elkarlana eskatzen du, baina EAJren aldetik ez dugu horrelako jarrerarik ikusten, gobernuaren inizatibekiko boikota eta Udaleko giroa gaiztotzeko ahalegin batean ikusten dugu. Abian den konponbide prozesuak bergarar guztien eta haien ordezkari politikoen konpromisioa eskatzen du. Zoritxarrez, Bergarako EAJko udal taldeak ez du gatazkaren ondorioak konponitzeko konpromisorik agertzen. Horren erakusgarri da euskal preso politikoen alde konpromisoak hartzeko borondatearik eza: Bilboko mobilizaziora joateari



Jesus Elortza alkatea, osoko bilkura bateko artxiboko irudian. | GOIENA

ez; azken egubakoitzetako kontzentrazioetan ez ditugu inoiz ikusi; udaletxeko balkoian presoan aldeko ikurra jartzeari ez...".

Alkateari babes

Era berean, Elortza alkateari egindako dimisio eskaria oso larritzat jotzen dute: "Ekimen baketsu bat abian den konponbide prozesua erasotzeko erabili du EAJk. Alkateari gure babes osoa eskaini nahi diogu, eta gazteek beraien iritziak emateko duten eskubidea aldarrikatu.

Isilik eta zinegotziengandik oso urruti zeuden aulki batzuetatik egin zuten aldarrikapena. Errespetu osoz eta modu baketsuan egindako aldarrikapena iruditzen zaigu. Gazteok iritziak emateko eskubide guztia dute, adierazpen askatasuna errespetatuz".

Elkarlana

Oposizio eraikitzailea egiteko eta konponbide prozesuan inplikatzeko eskatu dio ezker abertzaleak EAJri: "Prozesuak EAJren babesa behar du, baita Bergarako

jeltzaleena ere. Egoera ekonomikoa delikatu".

Ezker abertzaleak bere konpromiso osoa azaldu nahi du "abian den konponbide prozesua bururaino eramateko". Alderdi politikoko guzti-guztiekin hitz egin eta konponbide prozesua indartuko duten adostasunetara heltzeko gertu azaldu da Bergarako Ezker Abertzalea. Era berean, Euskal Herriarentzat independentzia lortzeko bidean bi oinarri aldarrikatzen dituzte: indar metaketa, helburu horrekin bat egiten

duten guztien arteko elkarlana, batetik, eta, bestetik, parametro demokratikoetan soilik oinarritzen den konfrontazioa. "Kontestu politiko honetan gerta litekeen edonolako bortxazko ekintzaren aurrean gure desadostasuna adieraziko genuke". Azkenik, krisi egoera larri honetatik ateratzeko, eragile politiko, sindikal eta sozioekonomiko guztiekin elkarlana ezinbestekotzat jo dute Ezker Abertzaleko kideek.

Bilduk ere babesa alkateari

Bergarako Bilduko zinegotziek, beste ohar batean, bat egiten dute Alkateak Udal Pleno ekitaldian egindako adierazpenekin, eta "gehigikeria" deritzote bere "kudeaketa ahalmena zalantzan" jartzeari.

"Udal Gobernu taldeak herritar eta herri ordezkarien Adierazpen Askatasuna eskubidea errespetatu eta babesten du; hala ere, Udal Pleno aretoan horretarako aukerak ematen direnez gero, ahoz eta aurrez aurre, eta tonu eta bolumen egokian egindako adierazpenak lehenesten ditu" diote oharrean Bildukoek.

Hau guztia kontuan izanda, herritarrei euren iritzia emateko "aukera babesten jarraitu behar zaielakoan" daude, beti ere "irain eta indarrezko jokaeretan jaus-teke".

Bukatzeko Bilduko zinegotziek herritarrei eskatzen diete "beraien adierazpenak edo iritziak errespetuz egin ditzatela".

Mikel Askasibar preso askatzearen aldeko ekimenak abian gaurtik

E.M. | BERGARA

Atzo, eguna, 21 urte kartzelan bete zituen Mikel Askasibar bergararrak. *21 aski dira* lelopean haren aldeko ekimenak antolatu dituzte. Hain zuzen, atzo iluntzean egitekoa zen prestatutako egitararen aurkezpena, Askasibarren senideen eta lagunaren eskutik.

Aurten kaleratzeko zain

Mikel Askasibar Herrerrako espetxean dago gaur eta dagoeneko jasotako zigorraren hiru laurdenak beteta ditu. Hori dela eta, aurten kalera atera beharko luke 3/4 legea errespetatzen badiote, eta Parot dotrina ezartzen ez badiote behinik behin. Horixe

azpimarratu dute *21 aski dira* plataformako kideek. Egunotan kanpainako kartelak ikusi ahal izan ditugu herriko toki askotan.

Elkarretaratzea gaur

Gaur, egubakoitza, Mikel Askasibarren aldeko elkarretaratzea egingo dute Artatse elkartearen ondoan, 20:00etan hasita, eta herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin diete. Besteak beste, kartzelan egondako bergararrek hartuko dute parte. Era berean, Mikel Olabarria sukaldari bergararrak galiziar erara prestatutako olagarroa dastatzeko aukera izango da.



Mikel Askasibar.

Bestalde, datorren otsailaren 25erako jaialdia antolatu dute Udal Pilotalekuan. Datozen egunotan itxiko dute jaialdiko egitaraua eta bestelako xehetasnen berri emango dute.

San Joxepe: bazkaria Aratusteetan eta sagardotegira irteera

San Joxepe erretiratuen elkar-teak sagardotegira irteera iragarri du datorren martxoaren 7rako. Goizeko 11:00etan aterako dira autobus geltokitik Donostiara eta bazkaria, berriz, Aginaga sagardotegian izango da. Prezioa 32 eurokoa da eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko.

Era berean, azken urteotako ohiturari eutsiz, Aratusteetako martitzenean, hilaren 21ean, bazkaria egingo dute erretiratuen egoitzan. Ohikoa den bezala, sorpresak ez dira faltatuko bazkalostean. Izenematea bertan egin daiteke. Argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

Mozorroren afaria Aratuste-zapatuan, Oxirondo azokan

Aratuste-zapatuan, otsailaren 18an, mozorroen afaria izango da Oxirondo azokan, 21:30ean. Berogailuak jarriko dituzte azokan eta Gurrpil txarangak alaituko du afal aurreko giroa eta ondorengo dantzaldia.

Txartelak 15 euroren truke daude eskuragarri ondorengo tokietan: Depor tabernan, Ariznoan eta kultura etxean. Izena emateko epea astelehenera arte, otsailaren 13ra arte, izango da zabalik. Aratusteei begira, Bergarako Udalak mozorrotzeko gonbidapena luzatzen die tabernari, komertzio eta oro har herritar guztiei.

'Nutrizioa haurtzaroan' ikastaroa eskainiko dute

2 urteko haurrak dituzten gurasoei zuzenduta dago eta martxoan izango da

AMAI TXINTXURRETA | BERGARA

Nutrizioa haurtzaroan izeneko ikastaroa emango du Mireia Alberdi dietista nutrizionistak martxoan. 2 urteko haurrak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroa izango da eta astean behin eskainiko ditu saioak, eguaztetenan. Hiru saio teoriko eta saio praktikoa bat egongo dira; saio bakoitzak ordu eta erdi iraungo du.

Helburua da gurasoen beldurrrak kentzea eta elikadurak adin horretan duen garrantziaz jabetzea.

Elikaduraren garrantzia

"Elikadura egokia eramateko, garrantzitsua da 2 urteko umei jateko orduan ohitura batzuk finkatzea; horrela, epe luzera ohitura horiek mantendu ahal izateko eta oinarri sendoa izateko. Modu horretan, gero gauzak errazago egiten dira", dio Alberdi nutrizionistak.

Eta zer gertatuko litzateke elikadura ezegokia eramanda? "Umeen loditasuna goraka doa, eta hori izan daiteke ondorioetako bat. Loditasuna ez da arazo

estetikoa, arazo fisikoa da eta epe luzera ondorio larriak ekarzen dituena".

Hori ez gertatzeko, Alberdik piramide bat zer den irakatsiko die gurasoei, eta piramide desberdinak ezagutuko dituzte. Menu bat nola egin jakitea ere oso inportantea dela dio Alberdik: "Inprobisazioa ez da ona, aste osoko jatorduak gutxi gorabehera antolatuta izan behar dira, elikadura ahalik eta osasuntsuena eraman ahal izateko". Gurasoen galdera, zalantza eta beldurrei

ere erantzungo die Alberdik ikastaroan, eta haren gomendioa da jaki freskoak erabiltzea.

Izen-ematea

Izena astelehenerdik aurrera eman ahal izango da, hilaren 24ra arte, kultura etxean edota 943 77 91 60 telefonon. Izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte; zaintza zerbitzua erabili nahi dutenek, berriz, 25. Ikastaro egunak izango dira martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 18:00etatik 19:30era.



Mireia Alberdi dietista nutrizionistak emango du ikastaroa. | A.T.

Bizikleta Astea: hainbat ekitaldi martxoan zehar

Martxoaren 6tik 25era bitartean ospatuko da; besteak beste, ikastaroak eta hitzaldiak egongo dira

A.T. | BERGARA

Bergarako Udalak, Lokatzak eta Basque Adventurek antolatuta dute Bizikleta Astea. Ekimenari izen hori jarri baldin badiote ere, hiru astean zehar egongo da bizikleta munduaz gozatzeko aukera.

Bi ikastaro

Lehenengo ikastaroan, bizikleta konponketa basikoa landuko dute. Bizikletan nor bere kabuz ibiltzeko gai izateko gutxieneko eza-gutzak emango dituzte.

Bigarrena, berriz, martxoaren 13tik 15era bitartean izango da eta bertan landuko dute GPSaren erabilera ordenagailuan. Hori erabiltzen jakiteak asko laguntzen du ziklistak ezagutzen ez dituen tokietan lasai ibiltzeko.

Bada, edozein herritarri daude zuzenduta bi ikastaro horiek eta izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Ikastaroak Irizar jauregian izango dira, 19:00etatik 21:00etara, hain zuzen ere.

Hitzaldiak

Hirugarren astean, bizikleta bidaiei buruzko hainbat hitzaldi egongo dituzte. Martxoaren 20an, Serbia eta Montenegro 2008ri buruz egongo dute berba Edu Morenok eta Iker Osak; 21ean, Frankfurt-Varsovia 2011 izango dute hizpide Estebe Olartuak eta Aitor Gabilondok; 22an, *100Milla2007-2011* izeneko hitzaldia egongo dute; eta azkena 23an izango da, *Ulambaatar-etik Beijing-era 2009*, eta Edu Morenok, Ander Garitanok eta Iker Osak egongo dute. Edonor joan daiteke horietara eta Irizar jauregian izango dira, 19:00etan.

Martxoaren 24an, zapatuan, haurren ekintzak egongo dituzte eta hurrengo egunean Gorlako igoera jokatu da afizionatu mailakoekin.

BEHEKO KONTSULTATIK

Saioa Etxabarri | Fisioterapeuta

"Pertsonaren osasun eta ongizate orokorra hobetzea da helburua"

A.T. | BERGARA

Felsinee fisioterapia zentroa duela hiru urte eta lau hilabete inguru zabaldu zuten Bergaran. Krisi garaian ireki arren, osasun arloa lantzen dutenez, pozik daude orain arte lortutakoarekin.

Zer eskaintzen duzue?

Hainbat tratamendu eta zerbitzu eskaintzen ditugu; fisioterapia arlo guztietan, orokorra, kirol mundukoa, lesio traumatologikoak lantzen ditugu, haurdun dauden pertsonen laguntzen diegu erditze aurre-

ko prestaketekin, baita erditu osteko errekupeazioan ere, osteopatiarekin lan egiten dugu eta inkontinentzia eta idorria ere tratatzen ditugu.

Tratamenduak pertsonalizatuak dira?

Bai. Pertsona bakoitzak dituen beharrei egokitutakoak dira.

Zein da zuen helburua?

Gure helburua da eskaintzen dugun zerbitzuarekin pertsonaren osasun eta ongizate orokorra hobetzea. Horrez gain, gaixotasun eta lesioen prebentzioa hobetzea ere bada gure nahia. Guretako, gainera, prebentzioa da edozein tratamendu baino hobea;

orduan, saiatzen gara pertsonaren arlo desberdinetan osasuna hobetzen.

Zenbat profesional egiten duzue lan Felsinee zentroan?

Zazpi pertsona inguruk egiten dugu lan: hiruzpalau fisioterapeuta, podologo, dietista eta mediku errehabilitatzaileak. Taldeko lana egiten dugu eta harremanetan jartzen gara kanpoko profesionalekin, baita ospitaleekin ere, beharra baldin badago.



Saioa Etxabarri, kontsultan. | A.T.

Haurren elikaduraren gaineko berbaldia eguaztenean kultura etxean

E.M. | BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoendako antolatutako hitzaldi sorta amaitzeko, otsailaren 15ean *La importancia de los hábitos de alimentación en la infancia* izenburuko hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan. Umeak zaintzeko zerbitzua jartzeko gertu azaldu

da Udala, gurasoek hitzaldira joateko aukera izan dezaten. Hala ere, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dira zerbitzua jartzeko; tartean, umeen gutxieneko eta gehieneko kopuruari eta umeen adinari begiratuta. Argibideetarako, deitu 943 77 91 26ra edo idatzi aloidi@bergara.net-era.



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



Gozogintzan nahi duzuna eskatu
Artisautza eta tradizioa

Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com



ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

"Aluminiozko botak hartu, eta gerrarako gertu"

Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute bihar Agorrosinen; zelaiaren egoerak baldintzatuko du jokia

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute bihar, zapatua, Agorrosinen (16:30). Azkeneko derbian –duela pare bat aste– Bergarak Aretxabalearen kontra erakutsi zuen Agorrosingo berdegunea bigun dagoenean borroka ondoen egiten duenak batzen dituela hiru puntuak. Biharko derbian ez espero joko onik; bata bestearen ostean egindako pasez osatutako jokaldiak. Ez. Hau oherrezko erregionala da –errespetu guztiarekin– eta futbol zelaia bigun-bigun egongo da. Borrokarako ordua da, eta Mondrako entrenatzaile Iban Rodriguezek eman du abisua: "Jokalariei esan diet aluminiozko botak jantzi eta gerrarako prest egoteko", esan digu brometan.

Broma bai, baina Bergarako entrenatzaile Neka Galanek baieztatu digu zapatuan zaleek zerekin egingo duten topo: "Aretxabalearen kontra egin genuen joko bera errepikatzen ahaleginduko gara: "Azkar jokatu, adi bigarren



Bergararen eta Mondraren arteko partidua une bat, iaz. | JULIO CALLEJA

jokaldiekin, hegalak aprobetxatu eta borrokarako gertu egon". Alde horretatik, partidua prestatzeko Galan ez da sailkapenera begira egon: "Mondra oso talde arriskutsua da, taularen aurrealdean egon daitezkeen talde batzuek baino beldur handiagoa ematen didate. Errespetu osoz prestatu dugu partidua, ez goaz ezer opa-

ritzera, guk ere puntuak behar ditugulako".

Mondrak beste garaipen bat behar du kategoriari eusteko erabateko borrokan sartzeko: "Min hartuta geneukan jokalaria bat edo beste errekuperatu dugu, eta azken emaitzek moralki mesede egin digute. Baina borroka luzea geratzen zaigu oraindik".

ESANAK

"Partidua prestatzeko ez gara sailkapenari begira egon"

"Aurrealdean dabilzan askok baino arrisku handiagoa du Mondrak"

NEGA GALAN | BERGARAKO ENTRE.

ESANAK

"Garaipen bat behar dugu erabateko borrokan sartzeko"

"Ez da joko onik egongo, berdegunea bigun egongo delako"

IBAN RODRIGUEZ | MONDRAKO ENTR.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

La Rosa-Alytis	2-6
Lonja Team-Betigorri	1-8
UD Akabaok-Hinkas	8-6
Irish Pub-Komando Piperrak	3-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
01 Desastre Team	24	13
02 Betigorri	33	14
03 La12	31	13
04 UD Akabaok	31	14
05 Alytis	28	14
06 Usabiaga	23	13
07 Hinkas	22	14
08 Komando Piperrak	18	14
09 La Rosa	17	14
10 Diego Valor	13	13
11 Irish Pub	12	14
12 Local Crew	10	13
13 Bety Friend	6	13
14 Lonja Team	3	14

PARTIDUAK

ZAPATUA, OTSAILAK 11
16:00 Bety Friend-La12 / Diego Valor
17:00 Diego Valor-Usabiaga / Local Cr.
18:00 Local Crew-Desastre / Usabiaga
KOPAKO FINALA: ZAPATUA, OTSAILAK 11
19:00 Bety Friend-Alytis / Federazioa

Kopako finala jokatu dute bihar, 19:00etan

Aurten errebelazio taldea izan den Indar Gorrik eta iazko ligako txapeldun Alytisek kopako finala jokatu dute zapatu arratsaldean, ligako 14. jardunaldiko partidua amaitu eta berehala (19:00). Bietako inor ez dago ligan agintzen, eta kopa poltsikoratzea sari ederra izango litzateke txapelketaren sasoi honetarako. Partidua ostean lancha izango da, eta federazioko ordezkariak epaituko dute norgehiagoka.

Asteburu honetarako zigorrak

Aurreratu moduan, kopako finalaren aurretik ligako 14. jardunaldia jokatu dute. Hala, joan den asteburuan txartel gorria ikusi zutelako Igor Maniegak (Desastre Team) eta Carlos Alberto Leonek (La12) ezin izango dute jokatu.

Desastre Team, Gabonetako txapeldun

Lehenengo itzulia jokatu ostean, Desastre Team izango da Gabonetako txapeldun bir-tuala. Partidu bakarra galdu dute, baina oso gertu daude La12 eta Bety Friend taldeak, biak nobedade aurten. Liga erregularrean lehenengo geratzen denak saria izango du, eta ondoren hasiko dituzte *play-off* kanporaketak.

Jakak eta Peñasek egin zuten aurrera martitzenean

Soraluce lau terdiko pilota txapelketako kanporaketak jokatu zituzten martitzenean. Bi partidu izan ziren: lehenean Jakak 22-19 irabazi zion Etcheverri eta bigarren partiduan Peñasek 22-12 hartu zuen mendean Garralda.

Datorren martitzenean kanporaketa gehiago jokatu dituzte, 19:00etan hasita. Lehenengo partiduan Etxaniz eta Yoldi izango dira nor baino nor gehiago eta bigarrenean Albaradok eta Ojuelek jokatu dute.

Kirol Elkarteak Gabonetako saskia berriro zozketatuko da

Bergarako Kirol Elkarteak Gabonetan egindako zozketako irabazlea ez da azaldu –ezta erreserba moduan atera zuten zenbakidun jabea ere–, eta kirol elkarteak ordezkariak erabaki dute zozketa hori berriro ere egitea. Bigarren eta hirugarren sariak badute jabea, baina sari potoloa Aste Santuan zozketatuko dute berriro ere. Urtero moduan, Realeko gazte mailako torneoko partidu bat Agorrosinen jokatu dute, eta orduan izango da zozketa.

Bergarakoek kontzentrazioan hobetzeko asmoz egingo dute Donostiara bidaiia

Azken partiduetan ez dituzte emaitza onak batu, motibo horrengatik

XABIER URTZELAI | BERGARA

Soraluce BKE taldeak Beiztinberri taldearen kantxan jokatu du bihar (19:30) Donostian. Eta, azken boladan lortutako emaitza txarrak eteteko asmoz, jokoan izaten duten kontzentrazio maila hobetzeko asmoz joango dira. Klubetik adierazi moduan, azken partiduetan gertatutakoaren arabera taldeak benetan larri dagoenean erreakzionatzen du, eta gehienetan berandu izaten da partiduari buelta emateko. Hala, joan den asteko partidua izan zen horren adibide garbia.

Internacional taldearen kontra jokatu dute partidua txarra izan zen (46-57). Lehenengo minutuetako jokia ez zen ona izan, kasu askotan lehenago aipatutako kontzentrazio faltagatik; hala ere indarrak parean egon ziren. "Egia da joko estatikoan aspaldian taldeak zailtasunak dituela, eta hori dela-eta gogor defendatzearekin batera kontrarioari min egiteko taldeak kontraeraso azkarrak jo behar duela". Hala, taldeak ondo asmatu zuen Internacional taldekoen eraso geratzen, baina kontrara, saskira begira mahoneroak ez ziren fin ibili. Bigarren zatia ez zen hobea



Bergarak Allerruren kontra jokatu dute partidua irudia. | SORALUCE BKE

izan, kontrara, taldea lo kantxaratu zen. Kontrarioak asmatu zuen Bergarakoen kontraerasoak moztu eta segidan saskiratzeak egiten, eta alde galanta lortu zuten markagailuan (30-48). Sentsazioak ez ziren batere onak. Hala, laugarren laurdena tramite hutsa izan zen.

Kadeteak igoera fasean

Liga erregularrean lan oso ona eginda Bergarako kadeteek lortu dute igoera fasea sailkatzea. Eta hori bakarrik ez, igoera faseko

lehenengo partidua irabazi egin zuten, etxetik kanpora. Garaipen estua izan zen, Ordiziaren kontra (56-55) baina fase berria moralaz hasteko puntu garrantzitsuak batu zituzten bergarrek.

Lehenengo zati oso ona egin ostean –defentsan sendo eta erasoan azkar– atsedendira markagailuan aurretik erretiratu ziren bergararrak. Bigarren zatian, baina, ordiziarrek esnatu egin ziren, eta luzapenean erabaki behar izan zen partidua, Bergarakoen alde.



Humilidade taldeak gaur gauean joko du. | HUMILIDADE

Hardcore doinuak oinarri dituen musikaldi berria

Gaur eta bihar hardcore kontzertuak egingo dituzte gaztetxean, 22:30ean hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak* irratsaioko kideek antolatuta, *Tapoi fest* musikaldi berria izango da aste bukaeran gaztetxean. Gaur hasi eta domeka goizaldera arte hardcore doinuak nagusitu dira gaztetxean. Izan ere, *Jar itzazu tapoiak* irratsaioa hardcore doinuetan oinarritzen da.

Eurek dioten moduan, "zarata aste bukaera" gaur bertan estreinatuko dute. Kontzertua 22:30ean hasiko da, 3 euroren truke. Humilidade, Vitesse, Diskoira eta Yaw taldeak igoko dira taula gainera. Humilidade Zarauzko hardcore-thrash talde gogorra da, bi ahotsetan oinarritzen diren kantu azkar ilunak

jorratzen dituen. Diskoiraak finlandiar hardcore punka jorratzen du, garrasiz beteriko pilula intentsu motz eta sentimenduz beteak. Vitesse taldea Elfo Negroko errautsetatik eratutako hardcore talde berria da. Hardcoretik haratago, rock zertzeladekin aberasten dute euren musika. Yaw, ostera, metala eta hardcorea nahasten dituen Donostiko talde gaztea da.

Gaua borobiltzeko, DJ Zarata disko-jartzaileak jarriko du musika goizaldera arte.

Zapatuan bi emanaldi

Zapatuan, 18:00etan, doako kontzertua eskainiko dute Bergarako Fly Shit eta Zaragozako Necesidad de Luchar taldeek. Fly Shit taldea 1996an sortu zuten, Bergaran. Hiru lan argitaratu dituzte urteotan: *Fly Shit* 2001ean, *Bizitza.. baina nola bizi?* 2006an eta *Arnas bakoitzeko ernetzen* 2010ean. Musikaldian parte hartuko duen etxeko talde bakarra izango da Fly Shit. Disko berriko abestiak eta betikoak eskainiko dituzte. Entzuleek, duda barik, gustura ikusiko dituzte bergararrak taula gainean.

Gauean beste kontzertu bat egingo dute Alonsotegiko JAN, Castelloko Garganboig, Donostiako Adrenalized, Lasarteko Keep Digging eta DJ 90seg taldeek. Kontzertua 22:30ean hasiko da, 5 euroren truke.

Hardcorea gustuko dutenendako musikaldi aparta antolatuko dute Txapa Irratiko lagunek.

Lolas Club talde donostiarrak joko du gaur Laino skate parkean

A.E. | BERGARA

Rock-and-roll doinuak izango dituzte gaur gauean Laino skate parkean, 22:30ean. Donostiako Lolas Club taldeak berotuko du gaua. Sarrera doan izango da.

Taula gainean hainbat urte-tako esperientzia duen taldea da Lolas Club. Euskal Herrian eta

Estatuan hainbat urtez ibili dira kontzertuak eskaintzen. Rock-and-roll izaerari beti etsi izan diote. Bada, urteetako esperientzia izan arren, iaz argitaratu zuten lehenengo diskoa: *Uno*. Erritmo sendo eta abesti gozoak dituen diskoa da. Sakona, energi handikoa eta emozioetan abera-

tsa dena. Hamar abestik osatzen dute lana. Guztiek karisma, indar, kalitate eta sasoi bikaina dute, eta, era berean, umoretsu eta bihurriak dira, bai hitzetan eta baita musikan ere.

70eko hamarkada gogoan

Jon Lolas (ahotsa eta gitarra), Berny (bateria), Luiyi (gitarra) eta Daf-ek (baxua) osatzen dute taldea. Ikuskizun indartsua egingo dute, 70eko hamarkadako talde handien moduan.

Hotzari aurre egiteko bihotzak berotuko dituen txotxongilo lana

A.E. | BERGARA

Txotxongilo taldeak *Elurrezko panpina* haurrentako antzez-lana eskainiko du Zabalotegin zapatuan, 18:00etan. 3 eta 7 urte arteko haurrei zuzenduta dago lana; sarrera 3 euro izango da.

Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osatzen dute txotxongilo taldea. Ipuin hori prestatzerakoan 3 eta 7 urte arteko haurrak zituztela buruan azaldu dute. Horregatik, hain zuzen, "maitagarri jaio da, sehaska-kantu edo elur malutak bezala". Lanaren helburua etxeko txikienei poza ematea eta helduengan barrea piztea izan da. Ipuin xumea da, magiaz eta argiz beterikoa. Gertakizunak

hotz handia egiten duen egun baten gertatzen dira, baina ipuinak berak bihotzak berotzen ditu.

Elurra mara-mara

Elurrezko panpina bat da protagonista. Neska-mutilek, eskolatik irten ondoren, elurrezko panpina egin dute. Baina panpina ez dago pozik: hotzak dago. Hala, neska-mutilek lagundu egin gurako diote panpinari eta eginahalak egingo dituzte arazoa konpontzeko. Arazoa, baina, ez da hain samur konponduko eta denen laguntza beharrezkoa izango dute.

1971n sortu zuten txotxongilo taldea eta ordutik hona 22 lan sortu dituzte.



Elurrezko panpina laneko irudia. | TXOTXONGILO

'El tercer hombre' eskainiko dute domekan gaztetxean

Gaztetxeko zineklubean *El tercer hombre* filma eskainiko dute domekan, 18:00etan. Etenaldiaren ondoren, joan den astean hasi ziren filmak eskaintzen berriro ere. Astean behin izan beharrean, hama-bostean behin izango dira emanaldiak egun eta ordu berean.

Patxi Garateren lanak hilaren 19ra arte egongo dira ikusgai

Egubakoitzean zabaldu zuten erakusketa eta hilaren 19ra arte egongo da zabalik. Patxi Garatek zeinuz eta sinboloz betetako margolanak jarri ditu ikusgai Aroztegin. 30 bat margolan dira, bi materialez egindakoak: paperezkoak batzuk eta olioak beste batzuk.

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

26 urtez zuen artean

Bidekurutzeta 7, 1a • BERGARA
943 76 31 71 • www.lilura.com

Informa
zaitez
ditugun
promozio
bereziez.

Orain da momentua! Hasi udarako gertatzen!

LASER DEPILAZIOA eta ELEKTROLOGIA
Gizonendako eta emakumeendako

Profesionaltasuna - Bermea - Segurtasuna

Gorputz tratamenduak
(zelulitisa, biguntasunak, formen birmoldaketa, zirkulazio alterazioa)

Aurpegi tratamenduak
(zimurak, biguntasunak, orbanak...)

Mikropigmentazioa

Manikura eta pedikura

Solariuma

Intolerantzia test-a

Test energetikoa (indargarria)

Babes sozialaren eta lehen sektorearen aldeko aurrekontua

- ▶ 16 milioi euro ditu Udalak proiektuak garatzeko
- ▶ Inbertsio nagusia: Larrañako kirolgunea berritzea

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

"2012rako aurrekontuen eztabaida prozesuan esandako moduan, saiakera berezia egin dugu babes sozialak bermatzearen alde. Bizi dugun krisia kontuan hartuta, gizarte zerbitzuetan ez dugu murrizketarik egingo". Horixe azpimarratu zuen Bildu Udal Taldeak udal aurrekontuak aurkezteko orduan. Hori, eta lehen sektorea indartzeko egingo duten ahalegina: "Herriko produktuen ekoizpenarekin zerikusia duen erabilerarako lehenetsiko dugun lokal bat erosiko dugu". Ongizate batzordeak %5,11ko igoera izan du eta Auzoak eta Landa Garapen batzordeak, %43,62koa. Sokaren beste aldean Hirigintza batzordea dago: %16 jaitsiko da, "bereziki inbertsioak jaitsi" egingo direlako.

Oñatiko Udalak ia 16 milioi euro izango ditu esku artean, eta inoiz osatu diren aurrekontu "parte-hartzaileenak" direla dioite. "Aurrekontuak Herrijoan egitasmoan ia 200 herritarrek parte hartu dute. Posta bidez ere hainbat proposamen jaso ditugu", esan zuten.

Era berean, EAJko kideek egindako ekarpenak eta *Aurrekontuak Herrijoan* egitasmoan izandako parte-hartzea "eskertu" egin zituzten.

Jarraian dituzue aurtengo udal aurrekontuak batzordeka.

Ongizate Zerbitzuak

1.820.015 euro izango dituzte esku artean. "Zaindu beharreko" batzordea dela uste du Bildu Udal Taldeak. Hori horrela, pobrezia zuzendutako partida 68.000 eurotik 80.000 eurora igo dute. Gainera, desbabes egoeran daudenei laguntzeko 60.000 euro bideratuko dituzte. Batzorde horretako igoera nabarmena Udalaren jabetzakoak diren etxebizitza sozialak egokitzeko partidak izan du: 1.000 eurotik 30.000ra. Bestalde, garapen bidean dauden herrialdeendako laguntzen partida KPIa beste igo da. Azkenik, zahartzaroa dinamizatze programa garatzeko 6.000 euro izango dituzte.

Auzo-bideen inbentarioa

Bildu Udal Taldeak duen beste erronka nagusietako bat lehen sektoreari laguntza ematea da. Hori horrela, hainbat egitasmo ditu esku artean Auzoak eta Lan-



da Garapen batzordeak: lehen sektorearen erabilerarako lokal bat erosiko dute Berezoa industrialdean, eta esnea gordetzeko zisterna bat ipiniko dute. 70.000 euro dituzte horretarako, eta Landa Garapen elkarteak 65.000 euro emango ditu. Bestalde, auzoe-

tako bide eta azpiegituren egoera ezagutzeko, auzo-bideen inbentarioa egingo dute. 20.000 euroko bideratuko dituzte (erdia Landa Garapen elkarteak diruz lagunduko du). Batzorde horrek duen gainerako dirua (38.000 euro arte soberan dagoena), beste egitasmo batzuetarako gordeko dute; besteak beste, baso-hondakinak erabiliz biomasa egiteko aukeren inguruko azterlana egiteko (13.000 euro). Azkenik, auzo-bideak asfaltatzeko 66.000 euro erabiliko dituzte.

Zero zabor filosofia

Ingurumenak batzorde propioa eta partida propioa izango ditu aurtengoa: 215.898 euro. Diru hori erabiliko dute zero zabor filosofia ardatz hartuta sentsibilizazio kanpainak abian ipintzeko: eredu zirkularra bultzatu; zaborraren murrizketa, berrerailepena eta birziklapena sustatu; kontsumo arduratsuen aldeko kanpainak egin...

Bildu Udal Taldeak "garrantzi handia" eman dio Ingurumenari, eta, gainera, batzordeetan hartzen diren erabakietan "presente" egongo dela aipatu zuten oso-koan.



Zañartuko auzoko ortuetako bat, martitzenean egindako erretratuan. | MIREIA BIKUÑA

Berdintasun Plana

Oñatiko emakumeen egoeraren diagnostia (12.000 euro) eta Berdintasun Planaren diseinua eta garapena (8.000 euro) dira Berdintasun batzordeak –batzorde berria da– aurtengoa izango dituen egitasmo nagusiak. 42.000 euro izango dituzte. Batzorde horren hirugarren ezaugarri nagusia (10.000 euro) sentsibilizazio izango da: eskoletan, administrazioan eta guraso eskoletan, besteak beste. Emakumeendako ikastaroek jarraipena izango dute: martxoan hasiko da autoestimua ikastaroa.

Udala, Uemako kide

Euskararen alorrean hiru egitasmo nagusi ditu Udalak: euskararen plan estrategikoaren diagnostia eta diseinua (18.000 euro), Oñatiko euskara sustatzeko ekimenak (5.000 euro) eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko eskae-

ra (15.000 euro). Azken hori dagoneko egin dute. Euskara egunero jardunetan normal erabiltzeko bideak zabaltzea da helburua.

Hezkuntzari dagokionez, herriko ikastetxeei ematen zaizkien dirulaguntzek izango dute igoera nabarmena (%10). Partida horretan sartuko dira abian ipini gura duten *Hezkuntza Mahaia*-n ados daitezkeenak: bizikidetasuna, bide-segurtasuna, integrazioa, ingurumena... Bestalde, Errekalde Herri Eskolako galdara aldatzeko 75.000 euro erabiliko dituzte (Eusko Jaurlaritzak %60 itzuliko du).

Sozioekonomia

Bildu Udal Taldeak garbi utzi du hasieratik zuzeneko laguntzak ematearen kontra dagoela. Hori antzeman daiteke Sozioekonomia batzordean: enpresa mikro eta txikiei zuzendutako laguntza programa kendu egin du, erabilera txikia zuelako. Horren ordez, eta egungo egoerak eraldaketa sozial eta enpresarialaren beharra duela ikusita, Eraldaketa Sozialerako Plana eta Enpresa Eraldaketa-rako Plana ipiniko dituzte abian. Negozio berrien sorkuntza eta daudenen berbizitza bultzatzeko helburua dauka, eta Debagoieneko Mankomunitateak kudeatuko du eskualde osorako: 600.000 euro. Bestalde, langabeziari aurre egiteko, askotariko lanak egiteko langabeak kontratatze-ko 160.000 euro izango ditu Udalak.

Azkenik, merkataritzara zuzendutako laguntzak mantendu egingo dira eta pertsona nagusiendako etxez etxekako *catering* zerbitzu baten bideragarritasun azterketa egingo dute.

Hirigintzan jaitsiera handiena

Hirigintza eta Zerbitzu batzordeak izan du jaitsiera nabarmenena: %16. "Hainbat faktore hartu ditugu aintzat, baina jaitsiera erabaki politikoa izan da. Azpiegiturretan inbertsioak egin baino gehiago, gastu soziala lehenetsi dugu", esan zuten.

Beste gai batzuk

BAKETIK zentroaren 12.000 euroko laguntza Oñatin eragina izango duen proiektu batekin lotu nahi du Bilduk.

ARANTZAZU GAUR Fundazioari 60.000 euroko laguntza emango zaio, bi helbururekin: dinamizatzailea kontratatu eta aterpetzea egokitu.

ENERGIA AURREZTEKO bi aukera aztertuko dituzte: baso hondakinekin biomasa egin eta Cegasako ur beroa aprobetxatu.

EROSKETA arduratsua sustatuko du Udalak.

BIZIKLETA foroa dinamizatuko du Udalak.

AURREKONTUAK BATZORDEKA

BATZORDEAK	2012	2011-12 ALDEA
Ogasuna	1.873.678,66	%5,75
Euskara eta Hezkuntza	600.109,69	%18,99
Berdintasuna	42.000,00	-
Auzoak eta Landa Garapena	475.368,99	% 43,62
Ongizate Zerbitzuak	1.820.015,18	% 5,11
Ingurumena	215.897,79	% 22,84
Kirolak	1.167.206,89	% 20,36
Kultura	833.061,89	% 1,25
Partaidetza eta Komunikaz.	4.526.665,58	% 9,05
Sozioekonomia	545.999,01	-%7,62
Hirigintza eta Zerbitzuak	3.441.065,48	-%16,26
Gazteria	275.080,00	%18,93
GUZTIRA	15.816.149,16	%2,7

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



Herriko jaiendako diru gehiago

Kultura batzordeak izango duen aurrekontuaren (833.061 euro) zati handiena (%43ko igoserarekin) argitalpen eta sorkuntzari dagokion partidarendako izango da. Bestalde, herriko jai bultzada emateko, bai auzoetako jaiendako, bai eta herriko jai nagusiendako diru gehiago gordeko dute: auzoetako-rako %15 gehiago eta nagusiendako %9. Krisian egon arren, kulturari "merezitako" lekua egin behar zaiola esan zuten.

Partaidetza eta Komunikazioa

Batzorde horretako igoera bi kontzeptuengatik izan da: parte-hartzean oinarrituko den kultura politikoa-rengatik eta udal langileekin lortutako hitzarmenarengatik (2011n izoztutako soldatak %2,82 igotzea adostu zuten). Komunikazioan, aldiz, Udalaren barne eta kanpo komunikazio beharrak jasoko dituen azterlana egitea aurreikusten dute. Bestalde, pertsonen harremanetan oinarritutako kudeaketa eredua ezarri gura dute.

Kirolak eta Gaztedia

Larrañako kirolgunea berritzea erabiliko dute Kirolak batzordeak duen partidaren ia %21 (243.000 euro). Futbol zelaia txukundu eta skate parkea ipiniko dute, besteak beste. Azken hori, Gaztedia batzordeko aurrekontuetatik egingo dute: 30.000 euro. Bestalde, Gaztedia batzordean igo dira jarduera sozio-kulturalerako partida (%8) eta gazte taldeen-dako dirulaguntzena (%9).

Dena den, herriko hiru gune egokituko dituzte: hango bizilagunen lehentasuna izaki, San Lorentzoko perimetroa berritu; anbulatorioko irisgarritasun lanak egin; eta Errekalde eta Bakardade kalearen arteko gunea egokitu. Gainera, herrian dauden umeendako bi jolasleku estaliko dituzte (60.000 euro) eta Olakuan, autobus geltokian, komun publikoa (60.000 euro) ipiniko dute.

EAJ: "Partiden %80 aurreko agintaldiko jarraipena dira"

"Positiboki baloratzen dugu Bildu Udal Taldeak egindako lana, baina kontra bozkatu dugu ez dutelako onartu Errekalde eta San Lorentzoko berrikuntzekin jarraitzeko partidak eta batez ere, udal langileen soladaren igoerarekin ez gatzelako bat. Ez dugu aukerarik izan hitzarmenaren negoziaketan parte hartzeko. Udal langileen lana ondo baloratzen dugu, baina Udala herritarren zerbitzurako enpresa da, beraz egoera soziaekonomikoaren ispilu izan behar du. Hainbat herritarrek soldata murrizketa izan dute, beste batzuek langabezia... Igoerarekin (2011n %1,71 eta 2012an %2,82) ez gaude ados. Uste dugu ez dela solidarioa herritarren egoerarekin. Bestelakoan, esan behar dugu guk utzitako egoera ekonomikoa, beste udaletxe batzuetakoa baino hobea dela: 2010ean eta 2011n onartutako bi kreditu erabili gabe daude eta Udalaren zorpetze maila batz bestekoa baino txikiagoa da".

Ekarpen batzuk onartuta eta beste batzuk ez

"Bilduk aurkeztutako aurrekontuetako partiden %80 aurreko agintaldiko jarraipena direla uste dugu. Guk ekarpen batzuk egin ditugu, eta batzuk onartu egin dituzte: beste erakunde batzuetatik dirulaguntzak topatzeko bideak, 230.000 euro gehiago lortuz eta horrela diru-sarrerak hobetuz. Gastuetan berriz, Arantzazu Gaur Fundazioarendako dirulaguntza mantentzea, baina baldintza batzuekin; eguneko zentrorako bost plaza gehiago sortzea; pobreziarako partida igotzea; nagusiendako su-detektatagailuekin jarraitzea; txirrindulari itzulia Oñatin bukatzeko laguntza; eta, erosketa arduratsua (etikoa, soziala eta berdea) bultzatzea. Beste batzuk, ez dituzte onartu: Baketik zentroaren laguntza 12.000 eurotan uztea; bosgarren edukiontzia martxan ipintzea; Errekalde auzorako 200.000 euroko eta; San Lorentzorako 250.000..."

Agintaldian "jarraitu" beharrekoak

"Bilduren proposamen batzuekin ados gaude, gure agintalditik jasotakoak direlako: enplegu planarekin jarraitu eta gazteena sustatu, jolaslekuak estali... Gure *Legealdiko Planean* jasotako hainbat arlotan jarraipena egingo dugu: kudeaketan, sarrera eta gastuen oreka eta zorraren bilakaera ikusteko; nagusien zahartzaro aktiborako planean eta, pobrezian; gazteen eta oinarritzko errentatik hurbil daudenen enpleguaren sustapenean; lehen sektorea indartzeko ekimenetan; energia berriztagarrien aldekoetan; mugikortasunean, bidegorri sarea gehitu eta garraio publikoa indartu..."

Ugarkaldeko lapurretekin zerikusia izan dezakeen furgoneta bat identifikatu dute

Ertzainak Azkoitian antzeman zuen ibilgailua lapurreten egunean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Martitzenean Ugarkaldeko gara-jeetan izandako lapurretekin zerikusia izan dezakeen furgoneta bat identifikatu du Ertzaintzak. Azkoitian antzeman zuten lapurretekin izan ziren egunean bertan. "Furgoneta bera ikusi zuten lekukoek Oñatin lapurreten egunean. Poliziak gelditu eta barruan hainbat objektu zituen: tablet bat, TDT aparailua, mando bat, erremintak...", esan digute Ertzaintzan. Hori horrela, eta Ugarkaldeko lapurretekin zerikusia izan dezakeelakoan, oharrak ipini dituzte Ugarkaldeko bebarrietan. "Furgonetan topatu genituen objektuak bat faltan duten bizilagunei eskatzen diegu identifikatzera joatea. Zehaztu gura dugu objektu horiek Ugarkalden lapurtutakoak diren edo ez", esan digu poliziak.

Identifikazio horrek ematen duenarekin, pauso berriak emango ditu Ertzaintzak. Oraingoz, ez dute inor atxilotu, ezta furgonetan zihoazen lagunak.

Bizilagunaren abisua

Martitzenean, Ugarkalde 1, 2, 3 eta 4. zenbakietako 50 garajetan eta 15 bat autotan lapurreta egin zuten. Ez zituzten balio handiko



Garaje baten zegoen autoa, aurreko kristala apurtuta. | MIREIA BIKUÑA



Sarraila apurtuta. | M.B.

objektuak lapurtu, baina kalte materialak handiak izan ziren.

Garaje-jabeetako batek eman zuten abisua Bergarako Ertzaintzaren komisarian, martitzenean,

05:15ean. Ertzainek eta udaltzainek Ugarkaldeko etxeetara joan eta ikerketa hasi zuten. Hara heldu orduko bizilagunek bazekiten gertatutakoa. Poliziak hainbat argazki egin zituen garajeen kanpoaldean eta barruan, kaltetutako autoei, eta garajetako sarrailari. Kaltetutako bizilagunekin berba egin zuten egoera ezagutzeko, eta salaketa ipintzeko jarraitu beharreko bideak azaldu zizkieten.

Lapurreta izan zen egunetik dozena bat salaketa ipini dituzte Ugarkaldeko kaltetuek udaltzaingoan eta Bergarako komisarian.

Kiroldegiko tabernaren ustiaketa lehiaketara atera du Udalak

M.B. | OÑATI

Zubikoa kiroldegiko tabernakafetegi-jangelaren ustiaketa lehiaketara atera du Udalak. Azken osokoa onartu zen deialdia eta baldintzak hilaren 1eko Gipuzkoako Aldizkarian publikatu ziren. Hori horrela, interesatuek hilaren 16ra arte dute eskaerak udal bulegoetan aurkezteko (astelehenetik egubakoitzera).

Esleipena egiteko orduan lau ezaugarri baloratuko ditu epaimahaiak: eskaintza ekonomikoa, proposamen teknikoa, hobekuntzak eta elkarrizketa pertsonala.

Gutxieneko lizitazio prezioa 390 euro gehi BEZA izango da.

Gehienez lau urte

Udalak bi urteko alokairu kontratua egingo dio eskaintza onena egiten duenari, baina beste bi urtez luza dezake. Gehienez, lau urteko kontratua izango da orain dagoen pertsonari 2007an egin zion kontratua Udalak. 2016an berriro lehiaketara atera beharko dute kiroldegiko zerbitzua.

Zubikoako tabernaren ordutegia kiroldegikoarenaren antzekoa izango da urte osoan zehar.

Brand New Sinclairs taldearen kontzertua Antton tabernan

Barakaldoko Brand New Sinclairs taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 20:00etan, Antton tabernan. Soul, garage, funk eta rhythm and-blues zaporeko giroa ipiniko dute bizkaitarrek. Taldea 2007an sortu zuten, eta bi disko grabatu dituzte: *Ten Blue Pills* (2009) eta *Healing Souls* (2011).

Elkar Heziko ikasleek tapoiak eta elikagaiak batzen dihardute

Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetako ikasleek egingo dute bilketa, hilaren 13tik 23ra. Egun horietan, elikagaiak, higie-ne pertsonalerako gaiak eta beste batuko dituzte. Materiala Beninera bidaliko dute. Bestalde, ikasturtean zehar tapoiak biltzen dihardute Elkar Heziko Santa Marinako eraikinean. Herritarren laguntza eskatu dute.

'Herio heroi': bi anai umezurtzen istorioa kontatzen duen lana

Kultura Herrijorran ekime-nean, Metrokuadroka taldeak *Herio heroi* antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Santa Anan. Oier Guillanek idatzitako lana da, eta Zprist eta Gelnst anai umezurtzen istorioa kontatzen du. Sekula ezagutu ez duten aitaren gorpuaz arduratu beharko dute.

OHARRAK

ODOL-ATERATZEA

Gaur, egubakoitza, egingo dute urteko bigarren odol-ateratzea Txantxiku Ikastolan, 18:00etatik 20:00etara arte. Hurrengoa martxoaren 9an egingo dute.

AFARIA

Eguen-gizen afaria egingo dute hilaren 16an Antton tabernan. Menua: arraultzak, txorizoa, txerri-hankak, patata frijituak eta pellak. Izena emateko: 943 78 21 61. Prezioa, 10 euro.

DEIALDIA

Hilaren 28an batuko dituzte baserrietan pilatutako plastikozko zuriak eta beltzak.



Argiñe Larrea –Enplegu teknikaria– Udalak egindako ikerketaren berri ematen herriko merkatariei, martitzenean. | M.A.

Merkataritza sustatzeko pausoak emateko gertu

Udalak ikerketa egin du eta etorkizuneko lan ildoak zehazten hasiko dira orain

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herriko merkataritza eta ostalaritzaren gaineko ikerketa egin zuen 2010-2011 bitartean Lara Bautista MUko ikasleak, Udalak eskatuta. Eta orain emaitzen berri eman dute. Komertzioetako uga zabekin elkartu zen Argiñe Larrea Udaleko Enplegu teknikaria martitzenean, haien iritzia jaso eta etorkizuneko lan ildoak finkatzen hasteko.

Tratu eta kalitate onak

Ikerketa horrek jaso du Aretxabaleko merkataritza zerbitzuen egoera batetik, eta herritarren erosketa ohiturak, bestetik. Horretarako 400 inkesta egin zituen Bautista ikasleak herritarren artean. Inkesta horren arabera kanpoko merkataritza gune handietara joateko arrazoirik nagusienak dira: eskaintza zabalagoa, prezio hobea eta ordutegi egokia.

goa. Herrian bertan, osteran, batez ere elikagaiak eta drogeriako produktuak erosten dituzte herritarrek. Eta herriko komertzioetan baloratzen dutena da: tratua eta zerbitzua; erosotasuna; eta kalitatea. Martitzenean elkartutako merkatariek ez ziren bat etorri iritzi guztiekin: "Prezioa gehietan etxeek eurek zehazten dituzte, eta han edo hemen, ez da aldatzen; hor ez dugu zer eginik".

Hori guztia jakinik, ahulguenak zuzendu, mehatxuak ekidin, indarguneak indartu eta aukerak aprobetxatzeko proposamenak egin ditu Bautistak. Horien artean daude: Aretxarte merkatarien elkarteak bazkide kanpainak egitea; Udalaren eta Aretxarteren arteko lankidetzak bultzatzea; herritarrendako aisialdi jarduerak antolatzea; gazteak erakartzeko moduak aztertzea –Facebook...–; bezeroek poltsak gordezko takilak jartzea Mitarte edo Durana kaleetan... Eta kiroldegi berriaren eta unibertsitatearen irekierak aprobetxatzeko proposatu zien Larrea Enplegu teknikariak.

Bestalde, bai Larrea, bai merkatariek kezkatuta agertu ziren hainbat komertzio itxi dituztelako erretiroagatik eta erreleborik ez dagoelako, eta "komertzioak itxita, herria hil egingo da".

ESANAK

"Kiroldegi eta unibertsitatearen irekierak aukera politikak dira"

ARGIÑE LARREA | ENPLEGU TEKNIKARIA

TXALOAK ETA TXISTUAK

Zebra-bide beharra Loramendin



Loramendi kalean zirkulazio handia dagoela diote auzokideek, tartean autobusak, eta autoen abiadura motelduko duen zebra-bidearen bat gura dute: "Astehenean gizon bat harrapatu zuen auto batek, eta hurrengoan umeren bat izango da", diote. Erabaki "potoloagoren" bat ere gurako lukete, "noranzko bakarra izatea kaleak, adibidez".



Euskarari lehentasuna emanda segituko dute lanean Udalean

Udalaren hizkuntza politika onartu berri dute eta agintaldi osoan izango da indarrean

M.A. | ARETXABALETA

Udaletxean zein hizkuntzatan lan egin behar den zehazten duen dokumentua ez da berria, baina hori aztertu eta hobetu dute urritik hona, eta orain onartu. Urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuten –PSE-EEko zinegotziak bakarrik azaldu zituen kezka batzuk eta abstenitu–, eta astelehenean bilerak egin zituzten Udal langileekin onartutakoaren berri eman eta lanean zelan eragingo dien jakinarazteko.

Herritarrengan eraginik ez

Maje Umerez Hizkuntza Normalizatzaileak egingo dio jarraitzea Udaleko hizkuntza politikari, eta langile zein politikariei lagunduko die dituzten zalantzak argituta. Lau ataletan banatu

dute onartutako dokumentua: batzordeetan euskaraz jarduteko proposamenak; hizkuntza ofizialari lehentasuna emateko irizpideak; Udal langileak kontratatzean jarraitu beharreko irizpideak; eta azpikontratatzeko jarraitu beharreko irizpideak.

Herritarrengan, baina, ez du izango eraginik: "Herritarrek euskaraz eginez gero eskaeraren bat euskaraz bakarrik erantzungo diote, hori da aldaketa bakarra", dio Umerezek.

Langileek jarrera ona erakutsi dutela jakinarazi du, eta "betetzeko ahalegina egingo dute". Tomas Fernandez zinegotziak, bestalde, batzar eta osoko bilkuretan jasotako akten lerro bakarrek itzulpenak egingo onartu du.



Udal idazkaria urtarrilaren 30eko osoko bilkurako akta jasotzen. | M.A.

'Gizonak eta zaintza' berbetagai Basotxon

M.A. | ARETXABALETA

Adineko gizonak eta zaintza: nork bere burua eta gainera-koak zaintzea berbaldia dute martitzenean, hilak 14, Basotxo erretiratuen elkartearen (17:00). Eusko Jaurlaritzako Gizonduz taldeko Josetxu Riviere aditua izango da erretiratuekin.

Gizonak kontzientziatzea

Emakundek bultzatuta jaiotako ekimena da Gizonduz, eta haren helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientziatzea. Rivierek jardungo duen gaien artean honakoak daude: emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren jatorria; adineko gizonen konpromisoa norbera eta gainera-koak zaintzeko; erretirora egokitze mekanismoak, berdintasunaren ikuspegitik; balioen transmisioa...

OHARRAK

'KONKISTAK 500 URTE' BERBALDIA

Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroimena berbaldia egingo du Patxi Abasolo adituak martitzenean, hilak 14, Kurtzebarri eskolan (18:00). Eskolako guraso, irakasle eta interesa duten herritarrei dago zabalik.

'ALKOHOLAREN KONTSUMOAK' SAIOA

Gurasoendako saioa antolatu dute Kurtzebarri institutuko Batera guraso elkarteak eta Prebentzio Sailak hilaren 15erako (18:00-19:30), Arkupen. Cristina Saez de Arregi psikiatra eta Akoholiko Anonimoak elkarteko bi kide etorriko dira.

SAHARAREN GAINEKO ERAKUSKETA

MUko hainbat ikaslek iaz Saharako errefuxiatuen kanpaleketan ateratako argazkiak izango dira ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan astelehenean hilaren 29ra.

Aratusteen berri eman eta jaia aldarrikatzera dator Txapel Txin

Torrada onenen egileek eta txapel dotoreena daramanak saria jasoko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aratusteetarako astebete geratzen dela gogoraziko die herritarrei Txapel Txinek bihar, eta jaietarako gertatzeko dei egin, umore ona lagun duela: "Krisi garai honetan Aratusteak topera disfrutatzeke gomendiotxo batzuk prestatu ditut", aurreratu du. Otsailaren 19aren zain dauden herritarrek jai gogoz hurbilduko dira bihar ilunkeran plazara, eta ez diete hutsik egingo Karnabalen Lagunek eta Kultura Saileko kideek.

Zirkuko pertsonaien kalejira

Biribil Zirkuko taldeak hasiko du jai giroa bihar (19:00). *Pasapayasos* ikuskizuna eskainiko du talde bilbotarrak, eta pailazo, akrobata, malabarista, orekari eta hankaluzeeekin beteko dira herriko kaleak; hona egingo duten ibilbidea: Arkupe, Herriko Plaza, Durana eta Mitarte kaleak, eta buelta. Plazan borobilduko dute, hain zuzen, ekitaldia.

Ondoren (20:00), aurtengo Aratusteen berri emango du Txapel Txinek plazan, eta torrada lehiaketako sariak banatuko ditu. Txapel dotoreena daramanari



Txapel Txin iazko torrada txapeldunarekin, Maria Corralekin. | M.A.

ere emango dio saria (50 euro). Eta jai giroarekin jarraitzeko txistorra mokadutxo eta sagardoa eskainiko dituzte, lehiaketako torradekin batera.

Torrada lehiaketa

Aurten ere egingo dute torrada lehiaketa, eta plazan jasoko dituzte herritarrek etxean egindako postre goxoa (16:30-18:30). Bakoi-tzak zortzi torrada eroango ditu,

gutxienez, eta gutun-azal itxi batean norberaren datuak. Sariak Txapel Txinek banatuko ditu gero (20:00), eta banatzerakoan bertan egon beharko dute derri-gorrez irabazleek; bestela, sari barik geratuko direla jakinarazi dute antolatzaileek. Hona hemen onenek jasoko dituzten sariak: lehenengoak, 100 euro eta Torratxin txapela; bigarrenak, 50 euro; eta hirugarrenak, 30 euro.

Drogen gainean jardun dute futbol jokalariekin

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkartek abian jarritako Eskua Proiektuko kideek gonbidatuta, Aita Menni ospitaleko Vicente Hueso Corral psikologoaren berbal-dia izan zuten 14 eta 18 urte arteko futbol jokalariek -haurrak, kadeteak eta gazteak- astelehenean. Drogen eraginaren gainean egin zuten berba.

eragina ere aipatu zien: anfetaminak, estasia...

Bukatzeko, futbol jokalarizandako gazte batek, drogen munduan ibilitakoak, UDAko jokalariei idatzitako gutuna irakurri zien. Hunkitu egin ziren asko eta txalo zaparrada eskaini zioten gutuna idatzita-koari.

Hurrengo lan saioak

Eskura dauden drogak

Aita Menni ospitaleko klinika-burua da Vicente Hueso eta Beasaingo errehabilitazio egoitzako arduraduna, eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu drogen ondorioak. Horregatik, gazteak ondo informatuta egotea garrantzitsua dela esan zuen, "gero norberak hauta dezan".

Tabakoaren, alkoholaren eta kalamuaren eta horien ondorioen berri eman zien, eta esan: "Hiru horiek dira zuen adinekoek esku-eskura dituzuenak orain". Eta ondoren beste droga batzuen

Eskua Proiektua jokalaria, entrenatzaile eta gurasoekin dabil lanean eta hainbat saio egingo dituzte otsailean. Adimen emozionala landuko dute gaur hasi eta hiru egubakoitzetan 2001 eta 2003 artean jaiotako jokalariekin. Taktika landuko dute 2000koekin martitzenean, eta hilaren 23an eta martxoaren lehen hurrekin, Peta eta Gotzon entrenatzaileekin gidaritzapean. Eta entrenatzaileek ere izango dituzte lan saioak; hilaren 28an haur eta gazteenak elkartuko dira eta 29an, kadeteenak.



Aita Menni ospitaleko Vicente Hueso eta UDAko Igor Arenatza. | M.A.

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari!



9. Zein da Aretxabaletan sortu zen lehen elkarte gastronomikoa?
a) Uratzalde Elkartea b) Ibaigain Elkartea c) Murualde Elkartea
d) San Kristobal Elkartea
10. Zer esan nahi du esamolde honek?
"Han geratu zan goixan zerua eta behian lurra".

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaleta 96 posta-kutxa edo lehiaketatxabalta@gmail.com.

9: _____ 10: _____
Izen-abizenak: _____ Tel.: _____

Azken eguna: Otsailaren 17a.

Aurreko galderen erantzunak:

7: Joakin Arana Ezpeleta.

8: d) loratu.

Bertso afaria gaur Uratz-Alden, Egaña eta Elortzarekin

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi Elkartek antolatuta, bertso afaria izango da gaur Uratz-Alde elkartearen. Eta punta-puntako bertsolariak gonbidatu dituzte afalostea girotzeko: Andoni Egaña eta Igor Elortza. Txartel guztiak saldu dituzte astean, hortaz, 70 bat lagun elkartuko dira Durana kalean egoitza duen elkartearen.

Urtero antolatzen du bertso afaria Loramendik, eta herritarrek harrera beroa egin izan diote; iaz, esaterako, Hiba Gain elkartearen egin zuten afari hori, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi lagun hartuta.

Sare sozialen gaineko hiru ikastaro antolatu ditu Loramendik otsail bukaerarako KZgunearekin

KZgunearekin elkarlanean sare sozialen gaineko hiru ikastaro antolatu ditu Loramendi Elkartek herritarrendako. Bi orduko hiru saio izango dira, eta KZgunean egingo dituzte otsail bukaeran. Hona ikastaroak: Skype, otsailaren 20an (16:00-18:00); Facebook, otsailaren 21ean (18:00-20:00); eta Twitter, otsailaren 28an (16:00-18:00).

Debalde dira hiru ikastaroak, baina izena aurrez eman behar da KZgunean -943 25 23 51 edo tutor.aretxabaleta@kzgunea.net. Argibide gehiagorako KZgunera jo edo Loramendi Elkartera deitu -943 77 09 70 edo 685 75 67 29- edo idatzi loramendielkartea@gmail.com.

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jou Díaz
Harakiua

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aratusteetako bazkariko txartelak salgai daude

Martitzenera arte, hilak 14, eros daitezke Inkernu, Goxotxiki eta Aldatz tabernetan

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko salgai daude Aratusteetako bazkarirako txartelak. Inkernu, Goxotxiki eta Aldatz tabernetan erosi ahal izango dira hilaren 14a baino lehen. Helduenak 15 euro balio du, eta 14 urtetik beherakoena, oster, 10 euro.

Ohikoa den moduan, bi menu eskainiko dituzte. Helduenak honakoa izango du: patatak errioxar erara gertatuta, txahal gisatua eta tarta. Udaletik gogorazi dute prezio horren barruan sartuta dagoela ura, ardoa, sagardoa, kafea eta pattarra. Umeeek zukua, makarroiak tomatearekin, txixi-burruntzia, jogurta, ogia, ura eta freskagarriak izango dituzte.

Aurten Trikipupela enpresak eskainiko du Aratuste-za-

patuko herri bazkaria. Udaletik jakinarazi gura izan dute sektorean izena duen enpresa kontratatu dutela, eta bazkariaren prezioaren zati bat lagundu dutela.

Mahaiak erreserbatu

Horrekin batera, gogorazi dute mahaiak aurretik erreserbatzeko aukera egongo dela 943 71 46 88 telefono zenbakian edo kultura@eskoriatza.net helbide elektronikoan. Bazkaria otsailaren 18an, zapatua, izango da udal pilotalekuan, 14:30ean.

Bestalde, Debagoieneko Industrialdeak lagata, Udalak herriko koadrilen esku jarri du Torrebason pabiloi industrial bat Aratusteetako karrozak prestatu ahal izateko. Interesatuak kultura etxera jo behar dute.

Metal eta rock doinuak gaur gauean Inkernun

M.B. | ESKORIATZA

Oraingo astean ere kontzertua izango da Eskoriatzako Inkernu tabernan. Metala eta rocka nahasten dituen Eratu taldea igoko da agertoki gainera, 22:30ean. Betiko moduan, debalde da kontzertu horretarako sarrera.

Ondarroa, Gasteiz eta Aguraindik datozen hiru musikarik osatzen dute banda. Hain justu ere, Aitor Agirre bateria-joleak (Laia, Joxpa, Garden, Tuboskapi, Kemen Lertxundi eta Axular 3.0), Joseba Luzuriaga baxu-joleak (Xasta) eta Unai Olalde gitarrista eta aberaslariak (Laia eta Sortuz) sortu zuten duela urtebete. Dagoeneko kalean dute lehen diskoa, eta horixe aurkeztuko dute gaur.

OHARRAK

UMEEN DESFILEA

Ludotekan desfilea izango dute gaur.

FIMOA ETA ALANBREA

Gaztelekuan fimo eta alanbre tailerra dute gaurtik domekara bitartean, 18:00etan.

DORLETAKO AMA

Bihar, denboraldiko talde eta babesleen aurkezpena Dorletako Ama Txirringuluri eskolak plazan, 11:30ean.

ARETO FUTBOLA

Bihar, areto futboleko, Euskal Ligan, Uxo taldea hartuko dute etxekoek, 16:00etan.

UMEENDAKO FILMA

Etzi, *Tximista lapurra* filma ikusi ahal izango dute umeei Ibarraundin, 17:00etan. Sarre-ak euro bat balio du.

UMEEN DESFILEA

Santa Ageda neska-mutilen dantza izango da etzi, plazan, 19:00etan.

Andoni Tostonekin mendi irteera egingo dute etzi

Bizikletan eta oinez egiteko ibilbideak gertatu ditu

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Andoni Toston eskoriatzarraren eskutik, mendi irteera gidatua egingo dute etzi, domeka. 09:00etarako egin dute hitzordua, Herriko Plazan. Handik Atxorrotz aldera doan bidea hartuko dute, eta Makatz gainetik pasatuz Leixargaratera igoko dira. Azkenik, Mandobidetik Letera jaitsita herri-ira itzuliko dira mendizaleak. Tostonek azaldu digu hiru ordu inguruko irteera izango dela; horrekin batera, gaineratu du zailtasun ertainekoa dela eta etxeko edozeinendako aproposa.

Talde Gidaritza Natur Inguruen izeneko modulua egiten dihardu gazte eskoriatzarrak Oñatiko Larraña institutuan, eta modulu horretarako praktikak Ibarraundi museoan egiten dihardu. Hiru hilabete eman ditu han, herritarrei eskaintzeko hainbat mendi ibilbide prestatzen, eta praktikei amaiera emateko antolatatu du domekan egingo duten irteera.

"Polita eta erraza"

Eskoriatzarrak jakinarazi digu "korrika egiten askotan" egiten duen ibilbidea dela domekakoa, eta, "polita" eta "erraza" iruditzen zaionez, hori egitea erabaki duela. Honakoa aipatu du: "Praktikei amaiera emateko, irteera bat egitea proposatu zidaten, eta ideia ona iruditu zitzaidan".



Andoni Toston eskoriatzarra irteera iragartzeko kartelarekin. | MIRIAN BITERI

Hori bai, gogorazi du domekan hotza iragarrita dagoela, eta, hortaz, neguko arropa aproposa erateko dei egin die eskoriatzarrari. "Ondo prestatuta joan beharra dago, mendi bota eta guzti. Goian hotz handia egingo du", esan du.

Bizikletan eta oinez egitekoak

Amaitzera doan praktiken gainean ere egin digu berba. Ibarraundin eman dituen hiru hilabeteetan "oso gustura" egon dela dio. Horren harira, honakoa esan digu: "Esko-

riatzen zehar ibilbideak prestatzen egon naiz ordenagailuarekin; gero, horiek mendian berrikusi behar izan ditut. Denak Eskoriatzatik irteten dira eta elizateetatik pasatzen dira. Ibilbideetan hartu beharreko bideak oso ondo azalduta daude. Oraindik argitaratu barik badaude ere, asmoa da eskoriatzar guztien eskura jartzea". Horrekin batera, jakinarazi digu bizikletan eta oinez egiteko irteerak gertatu dituela; hain justu, launa modalitate bakoitzetik.



MIRIAN BITERI

Behin-behineko aparkalekua Intxaurtxuetan

San Pedro auzo berritzeko lanek irauten duten bitartean, Intxaurtxueta auzoan behin-behineko aparkalekua zabalduko dute hemendik gutxira. Promociones Eskoriatzarena da lur-sail hori, eta Udalak auzo horretako autoak aparkatzeko lekua egokitzeko adostasuna lortu du enpresa horrekin; dena, 20 bat ibilgailuendako tokia egokitzeko dute. Horren harira, Udaletik dei egin die oster ere garajea duten eskoriatzarrei horiek erabili ditzatela.

Frutería MARTIN Frutería

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

Julian Gezalaga | Bizargina

"Nor bait ilea labanaz ondo moztuta ikusteak poztu egiten nau"

- ▶ Aitak erakutsi zion Juliani bizarra mozteko teknika
- ▶ 13 urte zituenetik bizargin jardun du antzuolarrak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Julian Gezalaga Larrea antzuolarrak 53 urte egin ditu bizargin moduan lanean. Bizargin ona izateko esku mugimendu ona eta azkarra beharrezkoa dela kontatu digu Gezalagak. Pena handiz, baina erretiroa noizbait hartu behar, eta orain aukera aparta izan duela esan digu. Egun gutxi barru hutsik egongo den bere ile-apaindegian egin digu hitzordua Gezalagarekin.

Mende erdia bizarra mozten.

Orain, 66 urte ditut eta 13 urterekin hasi nintzen ikasten. Hasieran, Arrasateko Santa Agedara joaten nintzen hangoei ilea mozttera, han zeudenak ez ziren-eta kezkatzen. Han sei hilabete egin nituen eta gero Eibarren urtebete egin nuen ile-apaindegi baten. Gero, Antzuolara etorri nintzen. Bi tokitan batera aritzen nintzen: goizetan tailerlean eta gero, handik irtetean, ile-apaindegian aritzen nintzen.

Norengandik datorkizu bizargin izateko grina?

Familian 14 anai-arreba izanda, hiru izan gara bizarginak. Aitak irakatsi zigun, maisu ona izan dugu etxean. Baina orain, inork ez du tradizioa jarraitu gura izan, eta ez zait inor etorri ofizioa ikas-teko gogoz. Semeak ere bere ikasketak ditu eta beste lanbide batean dihardu.

Eta orain bizarra eramatea moda!

Orain, ez da bizarririk mozten. Lehen, asko ziren domekero baserritik jaisten zirenak eta bizarra txukuntzen zutenak meztara joateko. Ilea ere asko apaintzen zen, kokotea ere garbitzen zuten; hamabostean behin egiten zuten hori. Orain, gauzak asko aldatu dira, bizarra modan dago eta apaintzera agian, baina kentzera ez da inor etortzen, pentsa! Orain dela 30 urte ilea moztu eta listo! Egun, "moztu horrela eta beste hau txukundu...", esaten dute.

Herrian zenbat bizargin ibili dira lanean?

Nik gogoratzen dudanez, lau ginen. Esaten da gehiago ere

bazeudela garai batean. Gu, hiru anai ibiltzen ginen bizargin lanetan; gero, ordea, ni bakarrik gelditu nintzen herrian.

Jendea kontuak esatera ere etorriko zen, ezta?

"Bai, bai, noski! Jendearekin sortzen den harreman hori faltan izango dut, gainera, aurrerantzean. Herriko kontuak, futbola, pilota, emakume kontuak... denetarik izaten genuen hizpide. "Herriko barberoak jakingo du hori", esaten zuten askok garai hartan.

Ze teknika erabiltzen du bizargin on batek? Badago sekreturik?

Labanarekin ahal den ondoen egindako lana gustatzen zait, oso



ESKUZKO MAKINA Ilea mozteko lehenengo eskuzko makinak, neurri askotarikoak. Esku eta pultsu ona izatea ezinbestekoa da.



LABANA Bizarra kentzeko eta kokotea eskuz garbitzeko tresna. Teknika ona eta abilezia behar da lan txukuna egiteko.



Julian Gezalaga, erdigunean duen ile-apaindegian. | MAIDER ARREGI

txukun geratzen da. Norbait ilea ondo moztuta ikusten badut, poza hartzen dut. Donostian ikastaroren bat egindakoa naiz: teknika nola hobetu ikusten joaten zara. Lehiaketak ere izaten ziren, eta

ikustera joaten nintzen. Frantziatik eta Bartzelonatik etorritakoen lana ikusten nuen; nik ikusi eta ikasi egiten nuen.

Guraizeekin, makinarekin ala labanarekin moldatzen zara ondoen?

Makina oso gutxitan erabili dut, behar-beharrezkoa denean soilik; kokotea txukuntzeko edo dena kentzeko eta garbitzeko eskatzen dutenekin soilik. Bestela, labanarekin edo guraizearekin ibili naiz lanean.

Pena hartuko duenik izango da herrian...

"Bai, kalean komentatu eta galdetzen didate: "Eta orain zer? Norengana jo behar dugu?". Pena handia ematen dit, baina noizbait erretiroa ere hartu behar nuen, eta orain izan dut aukera bikaina; pena ematen dit, baina... Eskerrak eman nahi dizkiet horrenbeste urtean bezero izan ditudan herritarrei!"



MAKINA Gerora etorri da neurri askotariko orrazi-haginak dituen ilea mozteko makina elektriko modernoa.

Oihulari Clownek antolatutako ikastaroa hilaren 26an izango da

M.A | ANTZUOLA

Elurraren eta eguraldi txarraren ondorioz, atzeratu egin zuen Oihulari Clownek hasiera batean ikastaroari jarritako data. Hala, eta eguraldiak laguntzen badu, hilaren 26an, domekan, izango da ikastaroa, Lizarragako Lascurain Haundi baserrian.

Izena emateko aukera zabalik

Tailerra 15 lagun inguruko taldeak osatuko du. Interesa duen orondako dago zabalik deialdia. Debagoienetik kanpokoa den jendeak ere izena eman duela aurreratu digute Oihulari Clownetik. Ikastaroan izena emateko aukera badago. Interesa dutenek

e-maila idatz dezakete oihulariklown.org helbidera; edo, bestela, 943 76 97 90 telefonora ere dei dezakete. Ikastaroaren irupena 10:30etik 21:00etara izango da, gutxi gorabehera. Matrikula 80 euro da, bazkaria barne. Tailerra Virginia Imaz eskarmentu handiko antzezleak emango du.

Tailerlean, ipuinak kontatzeko teknikak azalduko ditu Imazek: ipuinaren denbora nola banatu, metaforen erabilera, narrazioaren egitura, ametsetan oinarritutako ipuinak, arnasketa egokia ipuinak kontatzerakoan, zein hitz erabili eta zein ez erabili, ipuin klasi-koen analisisa...

'Ez dot moztuko bizarra' ekimena aurkeztuko dute

M.A | ANTZUOLA

Eskubide zibil eta politikoen alde egiteko herritar talde batek sortu duen *Ez dot moztuko bizarra!* ekimena aurkeztuko dute hilaren 24an, Olalden, 21:00etan. Deialdia ohiko jendearendako eta, bereziki, ohikoa ez den jendearendako da. "Betikoa ez den jendea etortzeko ahalegin berezia egin gura dugu", azaldu dute. Aurkezpen afarian izena emateko epea hilaren 19ra arte da, Arin tabernan; prezioa 6 euro da. Gosea eta umorea eramateko eskatu dute antolatzaileek.

Gaztetxearen etorkizuna berbagai gaur

M.A | ANTZUOLA

Gaztetxe lanen gorabeherak eta aurrera begira eman gura dituzten pausoak landuko dituzte gaurko deitu duten batzar orokorrean. 22:30ean hasiko da batzarra.

Antzuolako gaztetxearen etorkizunaz hausnartzeko aukera ere izango da gaurko batzarrean. Bestalde, gogorarazi nahi dute gaztetxe ateak herritar guztiei duedela zabalik eta helburua dela guztien parte-hartzea bultzatzea; hala, askotariko asmoak eta iritziak batu gura dituzte.

OHARRAK

PILOTA

Udaberriko txapelketa. Larruzko paleta partidua: Olalde-Altzaterra, gaur, 20:00etan, pilotalekuan.

FUTBOLA

Antzuolak Mutriku hartuko du zapatuan etxean, 16:00etan, Eztalako futbol zelaian.

DIANA

Txistularien diana herrian zehar; domekan izango da, 10:00etan.

TORRADA-JANA

Gazte txokoan, otsailaren 11n eta 12an, torradak egingo dituzte, eta ondoren, noski, horiek dastatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Ekitaldi berezia aramaioarren eskubide berezi bat azaltzeko

Hilaren 17an da hitzordua; Patxi Uribarren eta Andres Urrutia etorriko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskal foru-zuzenbidea eta haren eragina Aramaion. Hori izango da otsailaren 17an kultura etxean egingo den ekitaldi berezian landuko den gaia. Berezia izango da, besteak beste, luxuzko gonbidatuak izango direlako askorentako arrotza izan daitekeen terminoa azaltzeko. Izan ere, Patxi Uribarren Aramaion jaiotako euskal karmeldar, idazle eta euskaltzaina eta Andres Urrutia notarioa, ekonomialaria, idazlea eta euskaltzainburua izango dira

herritarren aurrean gaia jorratuko dutenak. Esandako moduan, datorren egubakoitzean izango da ekitaldia, 18:30ean hasita.

Ekitaldiari hasiera emateko Bizente Goikoetxea abesbatzak saio labur bat eskainiko du eta gero Ramon Ajuria alkateak aurkezpen txiki bat egingo du.

Jatorria eta egungo eragina

Patxi Uribarren izango da gaia era sakonean azaltzen hasiko dena. Labur esanda, euskal foru-zuzenbidearen jatorria eta Ara-

maion historikoki izan duen garrantziaz arituko da berbetan. Uribarrenen azalpenen ostean, Andres Urrutia hartuko du hitza. Euskal foru zuzenbidea egun nola uler daitekeen eta zuzenbidean duen eragina azalduko du Urrutia. Amaitzeko, noski, herritarren galderak eta kezak erantzun dituzte hizlariak.

Antolatzaileek nabarmendu dute herritar ororendako deialdia dela. Egunerokotasunean eragina duten adibide praktikoekin emango dira azalpenak.

RAMON AJURIA | ARAMAIOKO ALKATEA

"Gurean ematen den kasuistika berezi hori azaltzea da ekitaldiaren helburua"

Alkateak labur-labur azaldu dizkigu hilaren 17ko ekitaldiaren nondik-norakoak. **Zer dela-eta halako ekitaldi bat Aramaion?**

Iñaki Berriozabal abokatuak proposatu zigun ekitaldi bat egitea herritarrek eskatzen zuten euskal foru-zuzenbideko eskubideak azaltzeko. Bereizitasun kuriosoak ditu, Aramaion ematen direnak. Askotan zalantza sortzen dira lursailen herentziak-eta banatzean etagurean



Ajuria, asteon. | J.B.

ematen den kasuistika berezi hori azaltzea da ekitaldiaren helburua. Adibide praktikoaren bitartez eta modu errazean azalduko da.

Zeintzuk izango dira adituak?

Euskal foru-zuzenbidean aditua den Andres Urrutia eus-

kaltzainburua etorriko da, besteak beste. Berriozabalekin harreman estua du eta oso gogotsu ei dago Aramaioa etortzeko. Patxi Uribarrenek ere egingo du berba.



Aramaioko Marixeka taldeko partaideak. Domekan lehiatuko dira, Aramaioko Izarra elkartearen (20:30). | GOIENA

Aramaioako bi taldeak aste bukaeran hasiko dira koadrila arteko txapelketan

Bihar, Aramaioko Izarrak taldearen saioa eta etzi, Aramaioko Marixekarena

J.B. | ARAMAIO

Hastear da Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren bigarren asteburua, eta bat-bateko modalitatean arituko diren Aramaioako bi taldeak aste bukaera honetan estreinatuko dira. Izan

ere, Aramaioko Marixeka taldeak aurreko asteburuan estreinatu behar zuen, baina aramaioarren aurkariak, Urkabustaizko Izarrak taldeak, ez zuten Aramaioa helterik izan elurra zela-eta. Hala, saio hori domekan, otsailak 12,

jokatuko da Aramaioko Izarrak elkarte gastronomikoan. Saio hori antolatzen diharduen Xabi Igoa bertsolari aramaioarrak azaldu digu ez dela bertso afaria izango, edonor gonbidatuta dagoen doako merienda baizik.

"Ondo pasatzea da helburua"

Igoak dioenez, "gogotsu" daude txapelketa hasteko: "Kanporaketa irabaztea baino gehiago, ondo pasatzea da helburua. Izan ere, halako txapelketek oraindik hasiberriak diren bertsolariendako saioak antolatu eta herritarren artean bertso-zalatasuna sustatzea dute helburu". Talde bakoitzean 12 bat pertsona daude, eta, bertsolarietaz gain, gai-jartzailea ere badute, besteak beste. Igoaz gain, honako partaideak daude Aramaioko Marixekan: Andere Arriolabengoa, Maria Izaga, Beñat Burgi, Sabin Aranburu, Garazi Eriz, Iker Elempuru, Xabier Agirre, Izar Elorza, Nerea Asurmendi, Miren Eriz, Markel Arriolabengoa eta Gillen Agirre.

Aramaioko Izarrak taldea, bestalde, bihar estreinatuko da, Izarrako Frontoia jatetxean (20:30). Honakoek osatzen dute taldea: Manex Agirre, Paula Amilburu, Beñat Zalakain, Iker Agirre, Ana Martiarena, Jon Ugarte, Mikel Muñoz, Amaia Lopez de Bergara, Maitane Uribe, Eider Ballina, Txomin Elorza eta Endika Ruiz de Samaniego.

Garona ixtea eskatu dute Udaleko talde guztiek

J.B. | ARAMAIO

Joan den egubakoitzeko bilkura martitzenean egin zen idazkariak baja hartu zuelako. Haren ordez egun kontu-hartzailea den Amagoia Zubillaga arituko da, behin-behinean. Bilkurako gaien artean, Etxaguen auzoko hiri-azpiegiturak eraberritzeko lanen esleipena izan zen mahaiaren gainean. Hala ere, aurrerapausorik ez, Udala Mecuma SLU enpresaren aukera atzera bota zuelako. Bestalde, bi mozio aurkeztu ziren. Lehena, Garona zentral nuklearra ixtea eskatzekoa, Bildu eta Aramaio Alkartasunak aurkeztu zuten, baina EAJko Iñaki Nafarrate zinegotziak bat egin eta hiruren izenean aurkeztu zuten.

Bigarren mozioa Bilduk aurkeztu zuen, Gipuzkoako azpiegitura lan handiak geldiaraztearen aldekoa, hain justu: "Gipuzkoarekin dugun gertutasunagatik eta lan horietako batek zuzenean eragiten digulako aurkeztu dugu", adierazi zuen Bilduko bozeramaile Lierni Altunak. EAJk eta Aramaio Alkartasunak aurka bozkatu zuten.

EAJk kexa ugari

Amaitzeko, EAJko Nafarratek hainbat kexa agertu zituen. Horien artean aipatu zuen Hirigintza arloko lanak "berandu" heltzen direla: "Atzerapen handiak izaten dira, adibidez, herritarrek konponketa bat egitea eskatzen dutenean". Hirigintza Saileko zinegotzi Andoni Solupek honakoa erantzun zion: "Orain bertan hainbat gai ditugu mahai gainean, eta lehentasunak markatu behar dira".

Memoria lantzeko tailerra 60 urtetik gorakoendako

Aramaioko Udala memoria lantzeko tailerra antolatzeko asmotan dabil. Leire Espinosa Zuiako Koadrilako eta Aramaioko Gizarte langileak jakinarazi duenez, herriko adinekoendako "ikastaro interesgarria" da. Lurgorri eguneko zentroan lanean diharduen KL kooperatibak emango du tailer hori: orimena, arreta, oreka eta gorputz jarrera landuko dira, besteak beste.

Izen-ematea zabalik dago otsailaren 15era arte dute; udaltxeko bulegoan eman behar da izena. Antolatzaileek aurreratu dute taldea mugatua izango dela.

Elurra berriro: kalte handirik ez eta gatza aste osorako

Bigarren elurtea heldu da asteon Aramaioa. Jose Ramon Uribe Zerbitzuetako zinegotziaren arabera, kalte handirik ez da izan eta gatza aste osorako egongo da: "Datozen orduetan sekulakoa botatzen ez badu, gatza badago; 8.000 kilo inguru". Elurrari aurre egiteko protokoloa zehatz-mehatz bete dutela jakinarazi du Uribe.



JUDITH ARRIOLABENGOA

ELGETA

Diru Fondoa aurten ordaintzeak murrizketa batzuk ekar ditzake

Udalak aurreikusita zituen ordainketa gehienak; 13.070 euroko defizita dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalen finantzaketa fondoa den Foru Aldundiaren Diru Fondoa zeresan handia ematen ari da azken asteotan. Elgetaren kasura etorrita, Diputazioak 130.202 euro berreskuratu nahi ditu; 50.844 euro 2012ari dagozkionak eta 79.358 euro 2011tik datozenak. Hala, 2012an Elgetari egin beharreko lau ordainketetatik diru kopuru hori deskontatzea proposatzen du Aldundiak.

Elgetako Udala ordainketa horiei aurre egiteko moduan dagoela esan du Oxel Erostarbe alkateak. 2012. urteari dagokion kopurua —50.844 euro— Elgetako aurrekontuan aurreikusita zegoela esan du, baita Diputazioak horrela erabakita otsaileko ordainketatik deskontatuko diren 39.680 euroak ere —2011tik datorren Diru Fondoaren %50—. Gainerako 39.680 euroen zati bat ere aurreikusita zegoela esan du: 26.600 euro, hain zuzen ere. Defizita, hortaz, 13.070 euro da. "Udalaren egoera ez da aurrekontua Diputazioarekin batera konpartitzeko besteko larria", esan du Erostarbek, Aldundiak udalei proposatutako hirugarren formulari erreferentzia eginda.

Bi formula aukeran

Hala eta guztiz ere, Ogasun batzordeak erabaki bat hartu behar du otsailaren 15erako, eta erabaki horrek herritarrengan eragina izan dezaketen murrizketak ekar ditzake. Aukeran dauden bi formulen artean lehenengoa da

NOLA ORDAINDU

Ogasun batzordeak egunotan erabaki behar duena da koadro zurian jasotako hiru kopuruak Diputaziori nola ordaindu. Aukera bat da emandako epeak errespetatzea; bestea, ordainketa horiek kreditu bidez atzeratzea.

	2011-KOA	2012-KOA
Otsaila, 2012	39.680	12.711
Maiatza, 2012	13.226	12.711
Abuztua, 2012	13.226	12.711
Azaroa, 2012	13.226	12.711
GUZTIRA	79.358	50.844

maiatzean, abuztuan eta azaroan Diputazioak Elgetari egin behar dizkion ordainketa bakoitzetik 13.226 euro deskontatzea. Kasu honetan, kontuak ateratzeko Udalak 13.070 euroko murrizketak egin beharko lituzke 2012ko aurrekontuan, eta alkateak ez du murrizketak non egingo lituzkeen aurreratu.

Bigarren aukera da ordainketa kreditu bidez atzeratzea, eta kontuak 2013an eta 2014an kintatzea. Formula egokiena aukeratu behar du orain Udalak.

Murrizketak

"Egoera ez da txarra, baina argi dagoena da 2012-2013rako egoera ekonomiko latza datorrela", esan du Erostarbek. "Hori kontuan hartuta herritarrek konturatu behar dira Elgetan ere Udalak erabaki batzuk hartu beharko dituela", eta 2012ko aurrekontutik hainbat diru-lerro ukitzeko aukera erreala dela esan du.

Foru Aldundiaren erantzukizuna ere azpimarratu du. "Espero duguna da Foru Aldundiak 2012rako egin dituen aurreikuspenak betetzea, eta 2012aren bukaeran desfase egoera honetan berriz ez egotea".

FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi	25-09
Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Iban Retolaza-Xabier Ubera	25-24
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Adrian Gorostiza-Asier Osoro	25-16
Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / June Dosuna-Xanti Dosuna	25-19
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Idoia Serna-Asier Osoro	25-11
Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	atzerratua

PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 10, 20:30EAN

Iban Retolaza-Xabier Ubera / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / June Dosuna-Xanti Dosuna

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi

PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 11, 17:30EAN

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / June Dosuna-Xanti Dosuna

PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 12, 12:30EAN

Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Adrian Gorostiza-Asier Osoro

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea

Kantsatzeke mendi taldeak bazkietza kanpaina abiaraziko du otsailaren 15ean

L.Z. | ELGETA

Bazkietza kanpaina eta lehenengo mendi irteera iragarri ditu asteon Kantsatzeke mendi taldeak.

Bazkietza kuota bost euro da, eta interesatuek kultura etxeko bigarren solairutik pasa besterik ez dute hilaren 15ean, 22an edo 29an, 19:00etatik 20:00e-

tara. Nahi izanez gero, federatzeko tramiteak ere bertan egingo dituzte.

Eta talde berriaren lehenengo irteera hilaren 25erako iragarri dute. Arrazolatik abiatu eta Anboto inguratzea proposatzen dute lauzpabost orduko irteeran. Ibilbideak Larranotik eta Zabalaunditik egingo du.

Beiraren karpa, 'Bodologuak' antzezlan eta frontenisko norgehiagokak aste bukaeran

Mankomunitateak beiraren karpa ipiniko du gaur, barikua, Herriko Plazan, 16:30etik 18:30era. Espaloian, berriz, 22:30ean *Bodologuak* antzezlan komikoa egingo dute Txintxeta taldeko Mikel Pagadi, Nagore Aranburu eta Egoitz Lasa aktoreek. Sarrera 12 euro da; 10 euro, bazkideendako. Frontenis txapelketako partiduak ere jokatuko dira gaur (20:30), bihar (17:30) eta etzi (12:30) pilotalekuan. Bestalde, erretiratuek podologo zerbitzua iragarri dute: hilaren 16an izango da. Txanda hartu beharra dago.

Inauterietako mozerroak prestatzeko egunak ere badatoz, eta aurten gai librea dute Herri Eskolan

Datorren barikuan, otsailak 17, ospatuko ditugu Inauteriak Elgetan. Herri Eskolatik, aurten, ez dute gairik proposatu eta haur bakoitzak bere gustuko mozerroa aukeratu ahal izango du. Asmoa da, baina, urtero moduan haurrekin herrian kalejira egitea. Gainerako herritarrek iluntze partean erakutsi dituzte aurten landutako mozerroak. Egun horretarako Jorghino taldearen kontzertua iragarri du Udalak Espaloian. Sarrera doan izango da.



Sektore publikoko murrizketak salatzen

Kezkatuta daude sektore publikoan dauden murrizketekin, eta Elgetako Herri Eskolako irakasleen %85ek zein Haurreskolako langileek bat egin zuten atzo, eguna, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek deitutako lanuztearekin. 11:00etan elkarretaratzea egin zuten Herriko plazan. Sektore publikoan diharduten herritar batzuk ere bat egin zuten deialdiarekin. Udaletxean eta osasun etxean ez zuten lanuzterik egin.

LEINTZ GATZAGA

Udalaren traktorea lan eta lan ibili da egunotan bideak garbitzen

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Elurra eta izotza joan den astean bakarrik ez, oraingoan ere izan ditugu, eta eguaztenean alerta laranja ezarri zuten. Halaxe jakinarazi zieten Gatzagako udal arduradunei ere, eta traktoreak, elurra kentzeko pala duenak, lanean ibili behar izan zuten berriro bide eta kaleak garbitzen.

Joan den astean eguen eta egubakoitzean izan zuen lan handien traktoreak, orduantxe egin zuelako elurra sendo. Hala ere, aste bukaerarako antolatutako ekitaldiekin aurrera egin zuten, bertso afaria egubakoitzean eta Santa Ageda bezperako kalejira zapatuan. "Izan ere, errepidea ondo zegoen ordurako; herriko

kaleak ziren arriskutsu zeudenak izotzagatik", argitu dute.

Traktorea gatza botatzen

Astean, ostera, eguaztana izan da egunik okerrera; goizaldean egindako elurraren ondorioz, Gatzagatik pasatzen diren bi errepideak, Arlaban eta GI-627, itxita izan ziren ordu askoan, eta herrira eta baserrietara joan-etorrian ibilitako bizilagunek "ez zeudela batere egoera onean" jakinarazi zuten. Elurra baino gehiago izotza izan da arazoak

sortu dituen: "Pala erabili ahal izateko elur apur bat pilatuta egon behar da errepidean, eta izotzarekin bakarrik ezin da erabili". Hori horrela, traktorea gatza botatzen ibili da baserrietara doazen bide askotan: "Baserritarrek eskatuz gero eman ere egiten diegu gatza, gero eurek bota dezaten", diote udal langileek.

Lan handia izan du traktoreak, baina ondo egin duen seinale, Udalean ez dute-eta jaso bizilagunen kezarik. Gainera, istripu larrikeria ere ez da izan.

Kartel lehiaketara aurkezteko azken eguna hilaren 21a da

Bideberri mankomunitateak antolatutako kartel lehiaketara aurkezteko epea otsailaren 21ean bukatuko da. Martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Eguna begira antolatu dute eta Antzuola, Elgeta eta Gatzagako herritarrek har dezakete parte. Argibideak Udalaren webgunean daude.

TRIATLOIA

Euskal Herriko talde onenaren saria jaso du Antxintxika Triatloi Taldeak

- ▶ Alex Altuna bigarren izan da gazte mailan eta Mikel Muxika 23 urtez azpikoetan
- ▶ Donostian banatu zituzten sariak; Antxintxikak lehenengoz lortu du lehen postua

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Hamaika urte igaro dira Arrasateko eta Bergarako triatloi taldeak batu eta Antxintxika Triatloi Taldea sortu zutenetik. Urte horietan guztietan, triatloietan edo duatloietan, Antxintxika Euskal Herriko hiru talde onenen artean egon da, baina inoiz ez dute jaso triatloi mailan talde onenaren saria. Joan den asteburura arte.

Taldearen helburu nagusia emaitzak lortzea izan barik, Antxintxika beste talde indartsu batzuen aurretik sailkatu da; SVC -Eneko Llanosen taldea- Zarautz edo Atletiko San Sebastian moduko taldeen aurretik, alegia: "Gure asmoa ez da taldeko kideak aurreko postuetan ikustea, inoiz ez dugu helburu hori izan, eta babeslerik ez dugunez ez dugu emaitza onak lortzeko inongo konpromisorik, inongo beharrik. Gure filosofia gehiago da bailarako herritarrak kirola egitera animatzea, triatloi eta duatloiak barrutik ezagutu nahi dituztenei aukera ematea. Baina noski, emaitza onak lortzen ditugunean poztu egiten gara, eta talde onenaren saria jasotzea garrantzitsua izan da", adierazi du taldeko zuzendarietako batek, Aitor Rementeriak.

Euskadiko Txapelketa, Oñatin

Antxintxikako atletak bakarkako lanean azpimarratzeko moduko emaitzak lortu dituzte 2011n, batez ere gazteek. Baina esanguratsua izan da taldean emakumezkoen alde egindako apustua, eta jaso dituzten emaitzak: "Oñatin egindako Euskadiko Txapelketa, esaterako, emakumezkoen gure ordezkariak lehenengo postuan sailkatu ziren, eta guretako oso pozgarria izan zen hori".

Aurtengo denboraldira begira, Rementeriak onartu du 2011n lortutako lehenengo postu hori



Antxintxika Triatloi Taldearen aurkezpen erretratu, 2011n. Taldeko atleta kopurua, baina, bikoitza da, 65 lagun inguru dira-eta. | ANTIXINTXIKA



Alex Altuna eta taldeko presidente Jose Mari Barrena, sariak batzen. | ANTIXINTXIKA

ESANAK

"Antxintxikak lehenengoz lortu du talde onena izatea"

AITOR REMENTERIA | ANTIXINTXIKA

defendatzea ez dela taldeak izango duen lehenetasuna: "Esango nuke hainbat talderendako erreferentzia garelara, baina ez emaitza onak lortzen ditugulako. Gehiago nabarmenduko nuke taldeko kideek harrera oso ona izan duen lasterketa bat antolatzeke egiten duten lana, esaterako. Antxintxika krosak dagoeneko zazpi urte egin ditu, eta gure taldeko

inork ez du bertan parte hartzen, antolatzaile lanetan ibiltzen gara denok. Iaz Bergarako 110 herritar animatu ziren lasterketan parte hartzera, eta guztira 509 korrikalari izan ziren, horietako erdiak debagoiendarrak -gainera, azken edizioan eguraldiak ez zuen bate-re lagundu".


Horrekin batera, parte-hartzearen aldeko apustua egingo

dute aurten ere: "Oñatiko duatloian edo Zarauzko triatloian taldeko ordezkari mordoia egon ziren lehian. Esango nuke bi proba horietan izan genituela ordezkari gehien, eta poztetokoa da".

Iazko garaipenak atzean utzita, Antxintxikako eta Oñati Triatloi Taldeko ordezkariak domekan hasiko dute duatloi denboraldia, Barakaldon.

Mikel Muxika eta Alex Altuna, protagonistak

2011n atleta gazteak nabarmendu ziren Antxintxika taldean. Iaz Alex Altunak lehenengo postua eskuratu zuen Espainiako Neguko Triatloi Txapelketan, eta Arrasatekoa aurten ere podiumean egon da, Jakan egin zuten lasterketan. Hala, Donostiako sari banaketa ekitaldian Altunak bigarren gazte onenaren saria jaso zuen. Aipatzekoa da, baita ere, Mikel Muxikak sailkapen orokorrean lortutako laugarren postua eta 23 urtez azpikoaren kategorian lortutako bigarren postua.



Alex Altuna. | J. ARANTZABAL



Mikel Muxika. | J. IRIIONDO

ESKUBALOIA

Hirugarren postuan dagoen Askartza zapatuan bisitari

Euskadiko Txapelketa hirugarren postuan dagoen Quiron Askartza taldearen bisita izango dute Ford Mugarrikoek zapatu arratsaldean Iturripen (17:15). Bigarren postuan dagoen Elgoibarrek bederatzi puntura jarraitzen du. Bestalde, etxean partidu garrantzitsua irabazita Soraluec BKEk Romoren kantxan jokatu du bihar (18:00).

FUTBOLA

Derbia Agorrosinen, Aloñak Lesakan eta UDAk Oiartzunen

Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute zapatuan (16:30) Agorrosinen [ikus 18. orria]. Mahoneroak eroso daude, sailkapenaren erdian, baina Mondra puntu beharrean joango da Agorrosinera. Aretxabaletak eta Aloña Mendik kanpoan jokatu dute; zapatuan UDAk (16:15) eta domekan Aloñak (16:30).

TXIRRINDULARITZA

Zapatuan aurkeztuko du Dorletako Ama afizionatuetako taldea

Bihar, zapatua, aurkeztuko ditu Dorletako Ama ziklismo eskolak 2012ko denboraldira begira izango dituen taldeak. Aurtengoan, baina, afizionatu mailan lehiatzeko sortu duten taldea izango da begirada guztien jomuga, azken urteotan Debagoienean ez delako egon kategoriatan horretan talderik.

PILOTA

Partiduak, gaur, Eskoriatzan, Antzuolan eta Aretxabaletan

Eskoriatzan 19:00etan hasiko dituzte partiduak, Allerruren eta Arrasateren kontra. Antzuolan, berriz, 20:00etan hasita Olaldekoek Bergarako eta Altxatarrako pilotariak izango dituzte kontrario. Aretxabaletan (19:30) partidu bakarra jokatu dute, Aurreraren kontra. Bihar (18:30) Oñatin bi partidu izango dira.

MENDIA

Glaziarreko alpinismo ikastaroa egingo dute martxoaren 17 eta 18an

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta, glaziarreko alpinismo ikastaroa egingo dute martxoaren hirugarren asteburuan. Federatuei dagokienez, hastapeneko egiteko 120 euro ordaindu beharko dira eta trebakuntzako saioa egiteko, 175 euro. Tena bailaran egingo dute, Teleran. (www.gmf-fgm.org).

ATLETISMOA

Sergio Gartzia eta Jonathan Perez, atleta erreferente

Kros lasterketetan eta pertika saltoan goi mailako emaitzak eskuratu dituzte

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Bi atleta horiek albiste izan dira asteburuan lortu dituzten emaitza onengatik. Oñatikoa bata, Arrasatekoa bestea, atletismoko modalitate ezberdinetan gailendu dira.

Sergio Gartzia joan den asteburuan korritutako bi probak irabazi zituen, dobletea, beraz: Lazkaon jokaturako kros motzeko Euskadiko Txapelketan lehenengo izan zen, eta baita Anoetako belodromoan jokaturako Gipuzkoako pista estaliko proban ere, 1.500 metroko distantzian.

Lazkaon jokatu zen probak 4.000 metro zituen eta Gartzia hasieratik menderatu zuen lasterketa. Kilometro baten falta erritmoa aldatu eta bakarrik heldu zen helmugara (Beteranoen mailan Aloñako atletek urrezko hiru domina lortu zituzten: Marisol Ramosek (50 urte arte); Ramon Varelak (55 urte arte) eta David Huebrak (40 urte arte).

Pista estalian ere ondo

Anoetan Sergio Gartzia 1.500 metroan lortutako garaipenare-



Jonathan Perez. | X.U.

kin batera, azpimarratzekoa da Unai Hernandezek 800 metroko distantzian lortutako garaipena -Aloña Mendiko Walid Ouallit bigarrena izan zen 1.500eko proban, eta Marisol Ramos hirugarren, beteranoen 1.500 metroko proban.

Hamahirugarrenez txepeldun

Jonathan Perezi dagokionez, urteak pasa beharko dira, pertika saltoan, beste gipuzkoar bat Arrasatekoa-



Sergio Gartzia. | X.U.

ren marketara gerturatzeko. Perez horretan dabil lanean, atzetik datozenak entrenatzen, bere markak egunen batean txiki gera daitezten. Baina oraingoz bere espezialitatean Gipuzkoako errege da -baita Euskal Herrian ere- eta gorputzak baimentzen dion bitartean urrezko dominak jantzen jarraituko du. Lesioek baldintzatuta ere Arrasatekoa 4,70 metroko saltoa egiteko gauza izan zen asteburuan Anoetan.

SASKIBALOIA

Merkamueble Torrelavega bihar Zubikoan (18:00)



Iago, hiruko jaurtiketa bat egiteko gertu, zaleen begiradapean. | J. ARANTZABAL

X.U. | ARRASATE

Zortzigarren postuan dagoen Merkamueble Torrelavega taldearen bisita izango dute zapatuan Xabi Igartuaren mutilek Zubikoan (18:00). Etengabe sailkapenari begira egon barik, etxeko zaleei merezi duten garaipena eskaintzeko asmoz kantxaratuko dira Natrakoak, eta baita eurek ere, asteroko lanaren ordaina merezi dutelako.

Lehen Nazional Mailan MUK sailpanearen laugarren dagoen Lizuan.com-en bisita izango du bihar (20:00). Azken ordura arte ez da jakingo talde hori igoera ala jaitsiera fasean egongo den; mailari eusteko borrokan MUREndako kontrario zuzen bilaka daiteke, eta horrek garrantzia ematen dio zapatuko norgehiagokari.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA

Reala-Sevilla
Astelena. 21:00. Anoeta.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Zumaia
Zapatua. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara-Mondra
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Oartzun-Aretxabaleta
Zapatua. 16:15. Oartzun.
BetiGazte-Aloña
Domeka. 16:30. Lesaka.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Ordizia-Aretxabaleta B
Domeka. 12:00. Mendibelz.
Antzuola-Mutriku
Zapatua. 16:00. Estala.

LEHEN ERREGIONALA, IG.

Allerru-Mondra B
Zapatua. 15:45. Lezo.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta C-Asoleus
Domeka. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK OHOREZKO MAILA

Mondra-Billabona
Zapatua. 15:30. Mojategi.
Bergara-Euskalduna
Domeka. 17:15. Ipintza.
Aloña Mendi-Aurrera
Domeka. 16:30. Azkoagain.

GAZTEAK, KOPA

Bergara B-Aloña Mendi B
Zapatua. 11:30. Ipintza.
Arizmendi-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Almen.

OHOREZKO KADETEAK

Aretxabaleta UDA-Bergara
Domeka. 11:30. Ibarra.
Zarautz-Aloña Mendi
Domeka. 12:45. Zarautz.

KADETEAK, IGOERA

Arrasate-Urola
Zapatua. 10:00. Mojategi.

LEHEN KADETEAK, KOPA

Arizmendi-Arrasate
Domeka. 11:30. Almen.
Antzuola-Aretxabaleta B
Zapatua. 11:00. Estala.
Aloña Mendi B-Bergara B
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza (atsedena).

BIGARREN MAILA

Ceramicas Nog.-Aretxabaleta
Domeka. 12:00. Donostia.

KADETEAK

Intxaurrondo-Arizmendi Esko.
Zarautz. 09:30. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri Arras.-Quiron As.
Zapatua. 17:15. Iturripe.
Romo-Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Gebxo.

LEHEN TERRITORIALA

Ereintza-Izarritz Aloña
Domeka. 10:30. Pasaia.

BIG. TERRITORIALA

Amenabar-Arrasate
Zapatua. 16:00. Antoniano.

FEDERAZIO SARIA

Mondragon Lingua-Egia
Gaur. 19:45. Zubikoa.
Beristain Banak.-Talleres Chap.
Zapatua. 18:00. Olaiizaga.
Bergara-Eibar Eskub.
Zapatua. 13:00. Bergara.

KADETE GIZONEZKOAK

Soraluce Bergara-La Salle
Domeka. 10:00. Zumarraga

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati-Merkamueble
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Lizuan.com
Zapatua. 20:00. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Hernani
Gaur. 20:00. Musakola.
Beitzinberri-Soraluce Bergara
Gaur. 19:30. Donostia.

SENIOR, BIGARREN MAILA

Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR, HIRUGA. MAILA

MU B-Cafes Aitona B
Zapatua. 16:00. Musakola.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Añorga
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Oiarzungo-Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Eloroso.
MCM-Aloña Mendi
Zapatua. 09:00. Donostia.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
CRS-Kanpanzar ART
Domeka. 12:00. Santander.

PILOTA

ARETXABALETAK

Gaur. 19:30. Iturriarri.

ANTZUOLA

Gaur. 20:00. Udal pilotalekuan.

ESKORIATZA

Gaur. 19:00. Udal pilotalekua.


OÑATI

Zapatua. 18:30. Udal pilotalekua.

GIMNASIA ERRITMIKOA

ESKOLA ARTEKO A MAILAKO FASEA

Zapatua. 10:00etan goizeko saioa, eta 16:45ean arratsaldekoa.



ARRASATE DRAGOI

DENBORALDI HASIERA GIMNASTENDAKO Debagoieneko gimnastek zapatuan hasiko dute denboraldia, Eskola Arteko A mailako fasea egongo da-eta jokoan Uarkapen, Arrasaten.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

2012
otsailak 11

martxoak 17
apirilak 21
maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Eragin eta Garapen
Ekonomikoaren Saila


Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitate eskaintzen dizkizute.



Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarrimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Euskaraz sentitu eta idatzi

- ▶ Amodiozko gutunen sariak martitzenean, San Balentin egunean banatuko dituzte
- ▶ Ekhiñe Egiguren donostiarraren gutunak eroan du sari nagusia: 500 euro

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Begarako Jardun euskara elkarrekin antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketak 20. edizioa egin du aurten. 20 edizio oparo, duda barik. Euskaraz idazteko zaletasuna han eta hemen sustatzeko balio izan du lehiaketak. Horren adibide da aurten jaso dituzten gutunen jatorria. Euskal Herri osotik bidali dituzte gutunak, baina baita atzerriko ere: AEBetatik lau gutun jaso dituzte, adibidez.

Urtero egiten dute lehiaketa, eta, urtero moduan, literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatu dute epaimahaia: Andoni Tolosa kantariak, Oihane Perea bertsolariak, Pello Añorga idazleak eta Idoia Galan 2011ko irabazleak osatu dute aurten. Bada, asteon batzartu den epaimahaiak hartu du erabakia: Donostiako Ekhiñe Egigurenaren gutuna da irabazlea. 500 euroko saria jasoko du donostiarrak.



Miguel Angel Elkoroberezibar, Maitane Arizabaleta, Idoia Galan eta Andoni Tolosa. | JARDUN

Dotore idatzitako gutuna

Egigurenek idatzitako gutunari eman diote saria, "plastizitate handiko hizkera, kreatiboa eta inpresionista" erabili duelako. "Dotore idatzia, tonu eta erritmo egokiarekin eta estereotipoetan jauzi gabe", gaineratu du epaimahaiak. Egigurenek istorio bitxia du; orain dela 18 urte Amodiozko Gutunen Lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen, 15 urterekin. Donostiarra pozik dago.

Bigarren saria Ivan Poyato barakaldarrak jaso du, 250 euro.

Begarar onena: Ana Moñux

Begarar onenaren saria Ana Moñux 24 urteko gazteak eroan du. Ez da lehenengo aldia lehiaketan parte hartzen duena: "Duela bost urte aurkeztu nintzen lehiaketara eta hau bigarren aldia da", azaldu du. Ez zuen espero irabaztea, eta gainera, herritik

kango jaso du berria, Irlandan.

Desioaren irrazionaltasunaz dihardu Moñuxen lanak: "Norbaite ezagutu gabe piztu diezazkizukeen sentimenduez", dio. Jokoa sartzen dira norberak besteekiko burutzen dituen proiektzioak, eta baita ere, esan ezin diren baina, hala ere badauden sententzioak. "Egiazko konfesio batek sentiarazten digun arintasuna helarazi nahi izan dut bukaeran; nahiz eta harremanetarako arau inplizituak puskatu izan", dio. "Ezezagun baten aurrean, maskara kentzeko saiakera bat ere bada. Paradoxikoa dirudien arren, agian anonimatuak jarduna erraztu dezake", gaineratu du Moñuxek.

Epaimahai gaztea

Herriko lau gazteak osatu dute epaimahai gaztea: Ipintza institutuko Maitane Muxikak eta Laura Axpek; eta Aranzadi Ikastola-

**EKHIÑE EGIGUREN**
IRABAZLEA**"Stockholmen kokatuta dago istorioa"**

33 urteko donostiarra da Ekhiñe Egiguren. Pozik dago jaso duen sariarekin; izan ere, ez zuen espero irabazlea izatea.

Zorionak! Ez da lehenengo aldia lehiaketa irabazten duzuna?

Orain dela 18 urte Begarako lehiaketara aurkeztu eta irabazi egin nuen.

Zertaz idatzi duzu?

Emakume batek beste bati idazte dion gutuna da. Stockholmen kokatuta dago, eta elurrak gogora ekartzen dizkion oroitzapenak dira.

Sorpresa izan da saria eskuratzea?

Maila handia egongo zela uste nuen, eta ez nuen espero lehiaketa irabaztea.

**ANA MOÑUX**
BERGARAKO ONENA**"Idazteko ohitura izateak erraztu egin dit"**

Irlandan dagoela jakin du Ana Moñuxek begarar onenaren saria jaso duela. Bigarren aldiz aurkeztu du gutuna lehiaketara.

Zelan animatu zinen?

Idazteko joera handia dut, eta maitasun gutunak ez izan arren, ohitura izateak erraztu egin zidan lehiaketan parte hartzeko orduan.

Zertan oinarritu zara?

Denetik hartu dut. Nire barruan bizitakoa, besteengan behatutakoa, irudikatutako zati handi bat...

Espero zenuen saria lortzea?

Ez. Denbora bat pasa da idatzi nuenetik, eta, entregatu ostean, ahaztu egin nuen. Gaur arte!

Ingrid maitea**EKHIÑE EGIGUREN**
Lehen saria

Ingrid maitea; Aspaldian gogoan zaitudalako idazten dizut gauaren izkina honetatik, hitzak hausten dizkidan dardaraz, esaldi erdian zure ezpain labainak gogoratuz. Estokolmo hegoaldeko hileritik ari natzaizu, idazten dut Skogskyrkogården parkean, Asplund-ek diseinatu zelaietik, hiriaren birika den mikropaisaian. Iluna da lorategia estaltzen duen gaua eta isiltasunak... (gutunaren zatia)

ko Maialen Maraurik eta Irantzu Casanellasek. 26 urtetik beherako idazleen gutunak irakurri ondoren gutun onena saritu dute. Iruñeko Irati Majuelo izan da irabazlea -150 euro.

Euskaraz idazteko zaletasuna

Amodiozko Gutunen Lehiaketaren helburua euskaraz idaztera bultzatzea da, eta baita teknologia berriak direla-eta geroz eta gutxiago idazten diren gutunak idaztera bultzatzea. 1993an egin zuen Jardunek lehenengo Amodiozko lehiaketa. Arrazoiak euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzea eta Berrigara aldizkariaren 100. zenbakia ospatzea izan ziren, besteak beste.

20 urte hauetan 2.334 gutun jaso dituzte Jardunen. Aurten emakumezkoek idatzi dute gutun gehien (%74), eta adinaren batez bestekoa 26 urte izan da.

SARITUAK

SARIA	IZENA	HERRIA
Lehen saria	Ekhiñe Egiguren	Donostia
Bigarren saria	Ivan Poyato	Barakaldo
Begarako onenaren saria	Ana Moñux	Bergara
Gazteen saria	Irati Majuelo	Iruñea

DATUA**65**

GUTUN

Aurtengo edizioan 65 gutun jaso dituzte, iaz baino bederatzi gehiago. Eta horietatik 18 begararrenak izan dira.



Yolanda Palacios, Txaro Jauregi, Ruth Osinaga, Manu Gallardo eta Marta Izagirre. | ARANTZAZU EZKIBEL

Operazaleen elkarteak aurkeztu dute: Ozenki

'La Bohème' opera ikusteko 140 bat sarrera geratzen dira oraindik

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Debagoienean lirika sustatzeko asmoarekin aurkeztu dute Arrasateko Ozenki elkarteak. Aurkezpenean, elkarteak kide Manu Gallardok eta Kultura zinegotzi Kepa Urteagak hartu zuten hitza. Urteagak azaldu zuen Ozenki elkarteak "gogor lan" egin duela *La Bohème* Arrasatera ekartzeko, eta elkarteak kideei eman zien hitza. Gallardok eskerrak eman zizkien Udaleko kideei, baita babesa erakutsi dieten erakunde

ere. Batez ere, Kutxari eta Euskadiko Kutxari.

Hiru lagunek osatzen dute elkarteak: Manu Gallardo, Txaro Jauregi eta Yolanda Palacios. Bi helburu izango dituzte: batetik, Arrasaten musikazaletasuna sustatu gura dute; eta bestetik, Debagoieneko musika eskolekin elkarlanean aritzea gura dute. "Horretarako, bi emanaldi antolatuko gura ditugu urtean: opera bat eta herriko jendearekin egindako ikuskizun bat", dio Gallardok. Aurkez-

pena amaitzeko, Ruth Osinagak *La Bohème* operaren *Musetta* balsa abestu zuen, *Quando men vo* aria, hain zuzen, Marta Izagirre pianoan lagun zuela.

Sarrerak Interneten bakarrik
La Bohème opera martxoaren 1ean izango da, Amaian. Sarrerak azkar ari dira saltzen: 140 bat besterik ez da geratzen. Sarrerak 25 eurotan jarri dituzte salgai; *Kutxa.net*-en bakarrik eros daitezke.

'Mirrix katua' ezagutzera eman eta ipuina aurkeztuko dute

A.E. | OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak *Mirrix katua* musikala eskainiko du datorren domekan Santa Anan, 18:00etan. Ikuskizunerako sarrerak aste osoan egon dira salgai Santa Anan -18:00etatik 20:00etara-; gaur izango da sarrerak erosteko azken eguna. 5 eurotan jarri dituzte salgai.

Bi ataletan banatuta

Bi atal izango ditu emanaldiak. Lehenengo atalean, zabortege batean bizi den katu koadrila baten egunerokoa kontatuko dute: *Leonor*, *Bryan*, *Vladimir* eta beste hainbat katuren istorioak, hain zuzen ere. Herri-mina usatzeko, katuek euren herrialdeetako kantuak erakutsiko dizkiete elkarri. Zuzenean abestuko dute.

Bigarren atalean, Josu Elberdinek idatzi eta musikatu duen *Mirrix* katuaren istorioa kontatuko dute.

Katu harroa eta alproja

Kale kantoietan bizi den *Mirrix* katuaren istorioa kontatzen du istorioak. *Mirrix* katu harroa eta alproja da eta inguruko animalia guztiak kikilduta ditu. Egun batean, ordea, txakur handi batzuekin topo egin eta kale kantoitik ihes egin behar izango du. Ihesi doala mendira iritsiko da; han, galduta dagoela, *Lutxiano* barraskiloarekin topo egingo du.

Emanaldia aprobetxatuko dute ipuin musikatuak aurkezteko. Ganbararen hirugarren ipuin musikatuak izango da: musika, ipuinak, denbora-pasak... izango ditu.



Mikel Freire eta Ainhoa Urtelai kantari gazteak. | GANBARA

Telebistako pantailatik taula gainera etorrira, barrea eragitea izango dute helburu

'Bodologoak' antzezlanak eskainiko dute gaur, 22:30ean, Espaloia antzokian

A.E. | ELGETA

Telebistan ikusi izan ditugu Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu. Behin baino gehiagotan eragin digute barrea telebistaren beste aldetik. Oraingoan, zuzenean eta bertatik bertara ikusteko aukera egongo da. *Bodologoak* ikuskizuna eskainiko dute Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean. Euskal umore apartarekin, gaur egungo hainbat gai astinduko dituzte bakarrik eta elkarriketa moduan.

Ezkontza aurretik etorriko dira
Euskalduna izatearen burukominak, Elizaren mundu zoragarria, elkarte gastronomikoak, euskaldunon oporrak, opari eta detaileak, etxeko animalien arropak, euskaldunok eta teknologia... eta beste hainbat gai jorratuko



Lasa, Pagadi eta Aranburu aktoreak. | TXINTXETA PRODUKZIOAK

dituzte. Gai guztiak, hori bai, umorez landuko dituzte.

Elgetako ikuskizuna egin aurretik, ezkontza bat izan du hirukoteak. Hala, elegante,

zorrotz, petral eta xeble etorriko dira Espaloira, baina, betiere, umorez gainezka. Barre algarak nagusituko dira gauean.

Jazz eta funk doinuak eskainiko ditu The Cherry Boppers taldeak

Bilboko taldeak Tartufon eskainiko du kontzertua zapatuan; autobusa jarri dute

A.E. | ARRASATE

The Cherry Boppers taldea 2004. urtean sortu zen Bilboko Santutxu langile-auzoan, instrumental izaerarekin. Jazz eta funk musika egiten dute, eta, orokorrean, sustrai beltza eta dantzatzeko erritmo zaharrak zabaltzeko asmoa dute.

Euskal Herrian eta Espainian hainbat jaialditan jo duen taldea da. Baina horrez gain, Europa aldean ere ibili da taldea: Holandan, Frantzia eta Alemanian, besteak beste.

'Shakin the Hood' diskoa

Shakin the Hood disko berria aurkeztuko du taldeak Tartufon. Diskoak jazz funk oinarria dau-

ka, baina beste soinu batzuei irekita dago. Lan fresko, zuzena eta zabala da. Hala, entzuleak psikodelikoak, blues-paisaiak eta acid jazz ukituak entzun ditzake abesti berrietan, dena rock ukituarekin. Abesti guztiak taldeak idatziak dira, bi izan ezik: Jimi Hendrixen *Crosstown Traffic* abestia eta *Deep Down Inside* soul samurra -Roberto Sanchezekin batera egindakoa.

Zapatuan 23:00etan izango da kontzertua, 8 euroren truke. Autobusak jarriko dituzte Tartufora joateko, 21:00etan hasita, ordu erdian behin. Azokan gertatuko da autobusa.

Doinu eta erritmo biziak izango dituzte aste bukaeran gaztetxean

Gaur, egubakoitza, Governors talde arrasatearrak eskainiko du kontzertua

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Erritmo biziak eta oi! doinuak izango dira aste bukaeran gaztetxean. Bi kontzertu izango dira, estilo ezberdinetakoak.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean hasita, Governors eta Drop! taldeek girotuko dute gaztetxea.

'Collage' diskoa aurkeztu

Metal doinu bizi eta indartsuez gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean. Governors arrasatearrek *Collage* diskoa aurkeztuko dute herrian. Taldearen iraupen luzeko hirugarren lana da. Governorsen bereizgarri handienetakoak da doinu indartsu eta itsaskorren arteko eremu ia ezinezkoari eustea, eta, lan berrian muturrak are eta gehiago aldentzen badira ere, leinari tinko eutsi diote iparra galdu gabe. Taldekideen iraganeko heavy-rocka nabaritu egiten da abesti berrietan eta nagusitu egiten da, batez ere, *Beldar itsua*-n; Eskandinaviako punk-rock bizienarekin Mikel Laboari omenaldi partikularra egin diote *-Mikel Snake-* eta aurrera egiteko animuak eman dituzte *-Igerian-*.

Collage diskoa Usurbilgo



Governors taldeak etxean joko du. | GOIENA

DATUA
5 TALDE
Gaur eta bihar bitartean bost talde igoko dira gaztetzeko taula gainera, bi emanaldi jaialdi ezberdinetan.

Hi-Gain estudioan grabatu zuten 2011ko irailaren 26tik urriaren 21era bitartean. Hamar abestiz osatutako lana da; lehenengo abestia izan ezik *-instrumentala da-*, beste guztiak euskarazko bertsiok dira.

Emanaldia Drop! taldeak zabalduko du. Hardcorea eta metala egiten du Arrasateko talde gazteak. Kontzertua 22:30ean izango da, 5 euroren truke.



Maraboots talde frantziarra. | GOIENA

Bihar, zapatua, oi! festa

Gipuzkoan oi! musika egiten erreferente diren taldeak igoko dira zapatuan gaztetzeko taula gainera: Aggressive Combat arrasatearrak, Doubling Boys bergararrak eta Paristik zuzenean etorrita Maraboots taldea.

Maraboots 2009an sortutako kaskamotz taldea da. Sharp jarreari lotutako taldea da, eta, Frantziar ez ezik, Europan ere ibili dira kontzertuak eskaintzen. Hain

zuzen ere, bi lan kaleratu dituzte, biak ere disko motzak: *Souvenirs* EPA eta *La Soupe aux Choubs* diskoa. Bi diskoak iaz argitaratu zituzten, 2011. urtean. Aggressive Combat 2004. urte bukaeran sortutako taldea da. Bi disko argitaratu dituzte eta hirugarrenarekin lanean dihardute orain.

Kontzertua 22:30ean izango da, bost euroren truke, bihar, zapatua.

Bazkide berrien artean egindako
ZOKETAREN IRABAZLEA

Zuk zeuk hurrengo saria irabazi nahi?

goienakluba 2012

VERONICA BERROCAL
Astilleron bazkaria eta Balentziaga museorako sarrera
ZORIONAK!



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

Mikel Laskurainek gurean aurkeztuko du 'Wilt' datorren aste bukaeran

A.E. | ARRASATE

Ados antzerki taldeak *Wilt*, *panpina puzgarriaren hilketak* eskainiko du datozen asteetan gurean. Otsailaren 17an Oñatiko Santa Anan eskainiko dute antzezlan, 22:30ean. Sarrerak www.barrabarra.eu/c/OinatiKultura atarian eskura daitezke otsailaren 17ra arte *-leihatilari ere jarriko dituzte,* egunean bertan, 22:00etatik aurrera.

Arrasaten otsailaren 18an

Arrasaten, oster, otsailaren 19an izango da, Amaia antzokian, 19:30ean. Tom Sharperen eleberri ospetsuan oinarritutako antzezlan da *Wilt*, *panpina puzgarria-*



Antzezlanoen kartela. | ADOS ANTZERKIA

ren hilketak. Mikel Laskurain aktore bergararra da protagonista nagusia: *Wilt*, hain zuzen. Umorez betetako antzezlan izango da.

Barakaldoko Brand New Sinclairs taldearen arima beltza Oñatin

A.E. | OÑATI

Oñatiko Antton tabernan berriro ere zuzeneko musika eskainiko dute gaur. Barakaldoko Brand New Sinclairs taldeak izango du horren ardura. Soul, funk eta blues doinuak egiten ditu talde bizkaitarrak. Hain zuzen, 2007an hasi zuten musika ibilbidea. Lehenengo hiru urteak The Sinclairs izenarekin eman ondoren, euren ibilbidean pauso garrantzitsua eman eta izena aldatu zioten taldeari.

60ko hamarkada gogoa

Izen aldaketarekin batera 60ko hamarkada sutsu eta dirdira-tura begira jarri zen Barakal-

doko taldea. Taberna ilunetan eta baita areto handietan ere ibili den taldea da. Musika doinuekin entzuleak zoratu eta dantzan jartzeko abilezia erakutsi dute. Arima beltza duen taldea da.

Bi disko kaleratu dituzte urte hauetan: *Ten blues pills* eta *Healing Souls*. 2009an argitaratu zuten lehenengo lana eta 2011n bigarrena. Hain zuzen, euren azkeneko laneko abestiak eskainiko dituzte gaur Oñatiko Antton tabernan. Kontzertua doan izango da, 20:00etan. Soul, garaje, funk eta rhythm-and-blues doinuak eskainiko dituzte gaur iluntzean.

Ruper Ordorikak Alemanian aurkeztuko du disko berria

Udazkenean *Hodeien azpian* diskoa argitaratu eta Euskal Herriko areto asko bete ondoren, tartean Elgetakoa, oraingoan, oñatiarrak Alemanian jotzeko aukera izango du. Berlinen bi kontzertu eskainiko ditu oñatiarrak: zapatuan, otsailak 11, Mediengalerien izango da eta 13an, astelehena, Konstanzen Unibertsitatean joko du. Alemaniatik bueltan berriro ere Euskal Herrira itzuliko da musikaria: Saran eta Gernikan eskainiko ditu kontzertuak otsail amaieran eta martxo hasieran. Hain zuzen, 11 abestiz osatutako diskoa da *Hodein azpian* azkeneko lana.



Iker Eskibel | Txirrindularia

"Neguan, bizikletan baino gehiago, basurdetan ibili naiz, baina motibatuta nago denboraldi berria dela eta"

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Dorletako Amako talde berriarekin afizionatu mailan denboraldia hasteko irrikan dago Iker Eskibel (Eskoriatza, 1993), nahiz eta onartu duen negua ez duela, bereziki, gogor entrenatzeko aprobetxatu. Mendian ibili da gehiago, eskopeta eskuan, basurde bila. Ehiza kontuak alde batera utzita, serio hasi da entrenatzen, ondo daki -eta urte gogorra duela aurrean. Hark, eta afizionatu mailara salto egingo duten debagoiendar guztiek; aspaldiko partez, gainera, asko izango dira.

Kategoriaz salto egingo duen txirrindulari gazte batek zertan ematen du negua?

Lagunekin ibiltzen, baserrian egoten, ehizan... Egia esan, bizikletan apenas ibili naiz, eta lagu-

nen batek dagoeneko esan dit motibazioa falta zaidala, baina ez, negua beste gauza batzuk egiteko aprobetxatzeak ez du esan nahi denboraldi berriaren aurrean motibatuta ez nagoenik. Hasi naiz entrenatzen, eta urtea luzea da, badut gorputzaldi onean jartzeko astia. Gainera, iaz izan nuen afizionatuekin korritzeko aukera, eta ez nuen nire burua horren txarto ikusi. Baina bada-ki hasierako lasterketetan asko sufrituko dudala; lasterketak amaitzea izango da helburua.

Ehizan ibili zara bizikletan baino gehiago. Non ibiltzen zarete ehizan?

Ni ez naiz usotan ibiltzen, baina basurdeak ehizatzeke uxaldiak egiten ditugu. Normalean, Eskoriatzako inguruan ibiltzen naiz,

bertako koadrila batekin.

Ehiza denboraldi ona izan da?

Bueno, ez da apartekoa izan, baina basurde batzuk ehizatu ditugu. Inguruan basurde asko daude, baina haien arrastoa bilatu behar izaten da lehenago.

Ehizatutakoa jatera, elkartera?

Txorizoak egiten dituzte basurdeekin.

Ez da, ba, txirrindulari bati gehien komeni zaiona.

Hori ere egia da. [Barre]

Zer dela-eta txirrindulari?

Gaztetan pilotan ere jokaten nuen, baina mendiko bizikletan hasi nintzen lagunekin, eta lasterketara joaten hasi nintzen; handik errepideko bizikletara egin nuen salto.

Emaitza onenak, baina, mendiko bizikletaz lortu dituzu [besteak

beste, Euskadiko txapeldun izan da, eta Euskadiko selekzioaz ere lehiatu da].

Baina errepidean mendiko bizikletan baino maila handiagoa dago, eta baita ziklista gehiago ere.

Noiz estreinatuko duzue Dorletako Amako maillot berria?

Taldeak zapatuan egingo du aurkezpena, eta ordurako maillot berriak eskuetan izango ditugu. Badut zelakoak diren ikusteko gogoia.

Alberto Contadorrek adierazi du, aste barruan, garaipen guztiez oroitzen ez bada ere, afizionatu mailan Gorlan lortutakoa ez duela sekula ahaztuko [izen hori ei dauka haren txakurretako batek]. 20 minutu pasatxoan igo zuen Gorla, errekorra ezarrita. Hartu duzu inoiz hor denbora?

Ez, oso gutxitan igo dut Gorla eta inoiz ez dut denbora hartu. Aurtentzako lasterketa izango dugu bertan,

Iker Eskibel Eskoriatzan, Mugarri-Jay taldeko elastikoaz, eta eskopeta kartutxoekin.

eta ikusi egin beharko da zelan igotzen dugun, baina seguru 20 minutu baino gehiago beharko ditudala. [Barre] Gaztetatik hasi zen Contador aparteko maila duela erakusten.

Oñatin ari zara Kirol Ekintzak izeneko modulua ikasten. Ze asmo etorkizunari begira?

Ikasketa hauen ondoren Tafyd egin nahiko nuke, baina oraindik ez daukat oso garbi etorkizuneari zer egin nahi dudana. Kirolarekin harremana duen zerbait egin nahiko nuke, heziketa fisikoko irakasle... Baina hemezortzi urte ditut oraindik, eta badut astia.

Daukazun adinarekin, eta bizikletan ibilita, amestuko duzu profesional bilakatzea, ala?

Ametsak izatea beti dago ondo, eta gazte guztiok izaten ditugu halakoak buruan, baina argi eta garbi jakinda txirrindulari moduan profesionaletara iristea ze zaila den.

PERTSONALA

Zure herriko txoko gustukoena: Nire baserri inguruak, Lete auzoa. Eta baita Atxorrotz ere.

Bizikletarekin igo nahi duzun mendate bat: Stelvio [Dolomitetan].

Ahaztuko ez duzun lasterketa bat: Mendiko bizikletarekin lortu nuen lehen

garaipena, Bastidan.

Txirrindulari bat: Ezin dut bakarra esan: Contador, Samu, Igor Anton...

Ikusle moduan gustura ikusiko zenukeen lasterketa bat: Tourmaleten amaituko litzatekeen Tourreko etapa bat. **Bizikleta marka bat:** Trek.

XABIER URTZELAI

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberitua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650 01 05 15

Eskoriatza. Duplexa salgai. 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Deitu 679 16 24 96 telefonora.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldia. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663 77 14 50 edo 671 14 99 63

Eskoriatza. Baserrira ematen da errentan. Guztiz eraberitua. 605 77 51 65

Oñati. Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldia eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. 677 07 19 37

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 685 42 72 80

Arrasate. Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsua. 630 26 13 28

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoa. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 610 99 70 46

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logelabat edo bikoa. Venezuelakoa naiz. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 608 49 89 76

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 678 73 66 54

Arrasate. Pertsona bat behar da lau gela eta bi bainugelako pixua osatzeko. Etxea oso eguzkitsua da, oso ondo dago eta hiru langile bizi dira bertan. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 44 57

